



Euskera 2015, 60, 2

# IKERKETA ZENBAKIA



2015  
60, 2

# EUSKERA

2015  
60, 2

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca  
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque  
Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

EUSKERA



18 €

Euskera 2015, 60, 2, 397 - 788, Bilbo. ISSN 0210-1564

# EUSKERA



2015  
60, 2  
BILBO  
ISSN 0210-1564



# EUSKALTZAINDIA

*EUSKERA AGERKARIA*

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Telefona: 94 415 81 55 • Faxe: 94 415 81 44

e.posta: [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus) • web gunea: [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da  
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones  
Cette revue s'échange avec d'autres publications  
This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabeak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244-58

*Diseinua:* [www.ikeder.es](http://www.ikeder.es)

*Preimpresioa:* Composiciones Rali, S.A.

Costa, 12-14, 7º izda. – 48010 Bilbo

*Inprimategia:* Imprenta RGM, S.A.

2016ko urrian inprimatua

## EUSKERA AGERKARIA

*Euskera* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik argitaratzen da. Urteko lehen zenbakiak (buletinak) Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta bigarrenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Zenbakiak urtea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan argitaratzen dira. Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

### ***Euskera* agerkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:**

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean
- Dialnet datu-basean

### **Kalitate adierazleak:**

CIRC (2016): C maila

MIAR (2015): 4.477 (ICDS)

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El primer número del año (el boletín) recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Los números se publican dentro del semestre posterior a finalizar el año. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de redacción, garantizando el anonimato, recurrirá a expertos externos.

### **La revista *Euskera* esta disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:**

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography
- Base de datos Dialnet

### **Indicadores de calidad:**

CIRC (2016): Categoría C

MIAR (2015): 4.477 (ICDS)

*Euskera*. 2015, 60, 2. Bilbo  
ISSN 0210-1564

La revue *Euskera* est l'organe officiel de l'Académie de la Langue Basque / Euskaltzaindia ; sa publication a démarré en 1920. Le premier numéro de l'année (le bulletin) présente les travaux et la vie de l'Académie ; le second quant à lui publie des articles concernant des travaux de recherche, des comptes rendus de livres, ou autres sujets similaires. Les numéros sont publiés au cours du semestre qui suit la fin de l'année. En ce qui concerne la publication d'articles de recherche, le Comité de rédaction s'entoure d'experts extérieurs à qui il garantit l'anonymat.

**La revue *Euskera* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :**

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d'Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography
- Base de données Dialnet

**Indicateurs de qualité :**

CIRC (2016): Catégorie C  
MIAR (2015): 4.477 (ICDS)

*Euskera* is the official journal of *Euskaltzaindia* and has been published since 1920. The first number or bulletin published each year reflects the Academy's work and academic activities, while the second one contains original research articles, book reviews and the like. Issues are published in the six month period following the end of the year in question. For the publication of research articles the editorial board seeks the opinions of external evaluators, while preserving their anonymity.

**The *Euskera* journal appears in the following indexes, lists and databases:**

- Catalogue of the Azkue Library
- Website of Euskaltzaindia
- Latindex catalogue
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database
- Dialnet database

**Quality indicators:**

CIRC (2016) : group C  
MIAR (2014) : 4,477 (ICDS)

*Euskera*. 2015, 60, 2. Bilbo  
ISSN 0210-1564

# EUSKALTZAINDIA

## EUSKERA AGERKARIA



### IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA. Euskaltzaindia. Bilbo

Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO. Euskaltzaindia. Donostia

Idazkari teknikoa: JON ARTZA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA.  
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS.  
Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA.  
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA.  
Euskaltzaindia. Donostia

PATXI SALABERRI.  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

MIKEL ZALBIDE.  
Eusko Jaurlaritzza, Hezkuntza Saila. Gasteiz

### AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE  
CNRS, J. Jaurès Unibertsitatea.  
Tolosa, Okzitania.

MIREN AZKARATE  
Euskaltzaindia. Donostia

JOXE AZURMENDI  
Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

MARTINE BERTHELOT  
Perpignango Unibertsitatea. Perpignan

XARLES BIDEGBAIN  
Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea.  
Baiona

JOSU K. BIJUESCA  
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

GIDOR BILBAO  
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

IÑAKI CAMINO  
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANA ETXAIDE  
Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea

JOSE RAMON ETXEBARRIA  
Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

MAITE ETXENIKE  
Universitat de València. Valentzia

PATXI GOENAGA  
Euskaltzaindia. Gasteiz

RICARDO GOMEZ  
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MANUEL GONZALEZ  
Real Academia Galega. Coruña

MARTIN HAASE  
Bambergo Unibertsitatea. Bamberg

JOSE IGNAZIO HUALDE  
Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois

ITZIAR IDIAZABAL  
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

XABIER ITZAINA  
CNRS, Centre Emile Durkheim,  
Sciences por Bordeaux. Bordele

JOSEBA INTXAUSTI  
Euskaltzaindia. Donostia

IÑAKI IRAZABALBEITIA  
Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JACINTO ITURBE  
Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa

JABIER KALTZAKORTA  
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JON LANDABURU  
CNRS, Paris. Kolombiako Kultura Ministerioa

ALBERTO LOIZATE  
Basurtuko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

JOAN MARTÍ  
Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica. Bartzelona

ENEKO OREGI  
Eusko Jaurlaritzza. IZOko burua. Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA  
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA  
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL  
Real Academia Española. Madril

TXOMIN PEILLEN  
Euskaltzaindia. Baiona

IBON SARASOLA  
Euskaltzaindia. Donostia

JOAN MARI TORREALDAI  
Euskaltzaindia. Donostia

MIRIAM URKIA  
UZEI. Donostia

JUAN JOSE ZUBIRI  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

Batzorde teknikoa: PRUDEN GARTZIA (Euskaltzaindia. Bilbo).

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (Euskaltzaindia. Bilbo).





# E U S K E R A

## AURKIBIDEA

### AHOSKERA JARDUNALDIA:

- [407-408] *Sarrera*
- [409-450] *Ahoskera hiztunik hiztun eta eskualderik eskualde*  
CAMINO, Iñaki
- [451-476] *Esatearen ederra. Agertokitik ikasgelara*  
MARIN, Julia
- [477-498] *Peut-on apprendre la variété? Autour de quelques dimensions de la fixation et la transmission d'une norme phonétique et du rôle des linguistes*  
VELOSO, João
- [499-531] *Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena*  
(Ahoskerak axola du)  
OÑEDERRA, Lourdes; ELORDUI, Agurtzane; EPELDE, Irantzu;  
ETXEBERRIA, Pilartxo; JAUREGI, Oroitz; SALABERRIA, Jasone

### BESTE IKERKETAK:

- [535-563] *J. M. Etxeitarren Jaioterri Maitia (1910): Ardibasotik Ardibasorako joan-etorria*  
TOLEDO, Ana
- [565-584] *Piarres Larzabalen antzerkigintza, euskal identitatearen paradigmak*  
ETXEBERRIA, Ixabel

- [585-616] *Piarres Larzabalen antzertiaren harrera hego Euskal Herrian*  
URKIZU, Patri
- [617-643] *Malenkoniaren aurkako nostalgia: betiereko itzuleraren gorputz errepresentazio artistikoa konponbide gisa. Jon Mirande eta Balthazar Klossowski paristarren lanetan oinarritutako hurbilpen konparatiboa*  
ELIZALDE, Amaia
- [645-672] *Cimientos del Sistema Cultural Vasco (1975-1990). Las tradiciones no canonizadas: Joseba Sarrionandia*  
GANDARA, Ana
- [673-698] *Euskarazko hedabideak: datuek erakusten dutena*  
ZUBEROGOITIA, Aitor; BIDEGAIN, Eneko; EGAÑA, Txema;  
GOSTIN, Andres; LARRAÑAGA, Ainhoa
- [699-752] *Anbotoko Dama eta infernua. Aurrez sartu eta atzez irten*  
MENTXAKATORRE, Jon

### LIBURU AIPAMENAK:

- [755-760] *Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa*  
MADARIAGA, Juan
- \* \* \*
- [761-764] Aurkibidea / Índice / Index, 2015
- \* \* \*
- [767-770] *Euskera* agerkariaren idazketa arauak
- [771-774] Normas de redacción de la revista *Euskera*
- [775-778] Normes de rédaction de la revue *Euskera*
- [779-782] Writing guidelines for the journal *Euskera*

# Ahoskera jardunaldia

*Euskera*. 2015, 60, 2. Bilbo  
ISSN 0210-1564



# Sarrera

Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeak antolatuta, Ahoskera Jardunaldia egin zuen Akademiak, Gipuzkoako ordezkartzan, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

Jardunaldian, ahoskeraren garrantzia azpimarratu zen eta arlo guztietako eragileen hausnarketa eta parte hartzea aldarrikatu zen. Ahoskera batzordeko txostenean jaso den bezala, «erabilera esparru guztietan normal izan nahi duen hizkuntzaren ibilbidean aurrera egiteko parte hartzaile guztiek elkar hartu behar dugu: arauemaile, ikasle, irakasle, kazetari, antzezle, politikari...».

Jardunaldiaren xedea ahoskeraren inguruko gogoeta egitea izan zen: behar al du euskarak ahoskera estandarrik? Ba al dute euskalkiek lekurik ahozko euskara batuaren ondoan? Zer da hizkera estandar bat? Ahoskera irakatsi behar da? Ikas daiteke? Horiek eta beste hainbat galdera jarri ziren mahai gainean.

Miren Azkarate euskaltzain oso eta UPV/EHUko irakasleak, Iñaki Camino euskaltzain urgazle eta UPV/EHUko irakasleak, Julia Marin antzerki itzultzaile eta komunikazio tekniketan irakasleak eta João Veloso fonologia-lari eta Portoko Unibertsitateko irakasleak hitzaldi bana eman dute. Ahoskera batzordeak landutako txostena ere aurkeztu zen.

Miren Azkaratek esan zuenez, «euskararen batasunaz», «euskara batuaz» hitz egin ohi dugu euskaldunok. «Ikuspegi orokorrago batetik, hizkuntzaren

estandarizazioa, eta hizkuntza estandarra (agian zehazkiago, aldaera estandarra) terminoak erabiliko genituzke. Baina kasu batean zein bestean nekez aurkituko dugu ahoskeraren aipamenik».

Azkaratek adierazi zuenaren arabera, «Corpus plangintzaz arduratu direnek bialdi bereizten dituzte: kodea, araua sortzea (hau da guk batasuna deitu dioguna lortzea) eta ondoren kode hori etengabe eguneratzea. Gure artean, Mitxelenak Arantzazuko Biltzarrean aurkeztu zuen txostena izan zen gidari lehenaldi horretarako (eta ezagunak dira beste hizkuntza batzuek eginiko bideak ere), eta batasunerako gaiak, beste hizkuntza askotan bezalaxe, ortografia, morfologia, lexikoa... ziren. Ahoskeraren aipamen txikiarik ere ez».

Horiek horrela, bere buruari galdetu zion zergatik. Eta zergatik sortu Ahoskera batzordea Euskaltzaindiaren Iker Sailaren baitan? Eta zergatik antolatu Ahoskera jardunaldiak?

Bi bidetatik saiatu zen galdera horiei erantzuten. Lehenik, Mitxelenaren Arantzazuko txosteneko sarrerako hitzak oinarri harturik. Horrekin batera, «Euskaltzaindiak berak erabilitako terminologia kontuan hartuaz: aditz batua, hiztegi batua... baina ahoskera zaindua.» Beste hitz batzuetan esanda, idatzizko erregistroari eman zaio lehentasuna aldaera estandarren bila abiatzean, hemen eta beste hizkuntzetan ere. Baina hizkuntza lehenik ahozkoa denez, aldaera estandar zainduak ahoskerarekin egiten du topo, ezinbestean. Kontua, Mitxelenak zioen bezala, hauxe da: zertarako behar edo nahi dugun ahoskera zaindu (edo batu) hori.

Jarraian, Iñaki Camino, Julia Marinek, João Velosok eta Ahoskera batzordeak emandako hitzaldiak hurrengo orrialdeetan irakurri ahal izango dituzue ikerketa artikulua gisa.

# Ahoskera hiztunik hiztun eta eskualderik eskualde

La pronunciación de hablante a hablante, de comarca en comarca

La prononciation de locuteur à locuteur, région par région

Pronunciation from speaker to speaker and district to district

CAMINO, Iñaki  
(UPV/EHU)

Noiz jaso: 2016-02-29

Noiz onartua: 2016-05-15

*Euskera*. 2015, 60, 2. 409-450. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Euskal ahoskeraren gaiari datu biltzen diharduen dialektologialariaren ikuspegitik heldu zaio saio honetan. Jardunbide honek ikertzailea hiztunaren eta haren ahozko mintzoaren aitzinean jartzen du, eta grabatu dena transkribatzen hastetik beretik sortzen dira lehen auziak. Non ez azterketa fonetiko xeheetarako izan, dialektologialariak belarriz lan egiten du eta etnotestuak transkribatzerakoan mintzo estandarrekoak ez diren hainbat hots eta bilakabide islatu beharra du. Saio honetan Ipar Euskal Herriko ekialdeko ahozko mintzoa islatzeak berekin dakartzan ñabardurak eta berezitasunak ageri dira.

**Hitz-gakoak:** ahoskera estandarra, ahoskeraren gardentasunik eza, hasperena, sudurkaritasuna bokaletan, *ü* fonema.

Abordamos el tema de la pronunciación desde la perspectiva del dialectólogo que recoge y analiza los datos. Tal disciplina enfrenta al investigador con el habla y la pronunciación de distintos hablantes. Las disquisiciones comienzan desde el mismo momento de la transcripción de lo grabado. Si no es para análisis fonéticos muy concretos, el dialectólogo trabaja por medio de su oído y al transcribir etnotextos muestra sonidos y procesos que no pertenecen al habla estándar; nuestro trabajo muestra características y matices que aparecen al reflejar los datos correspondientes al habla oriental del Norte del País Vasco.

**Palabras clave:** pronunciación estándar, pronunciación difusa, aspiración, nasalidad en vocales, fonema *ü*.

Nous abordons le thème de la prononciation basque du point de vue du dialectologue qui collecte et analyse des données sur la phonétique basque. Cette discipline met le chercheur face au parler et à la prononciation de différents locuteurs. Les divergences commencent au moment même de la transcription des enregistrements. Si ce n'est pas pour l'analyse phonétique de cas très concrets, le dialectologue travaille avec son oreille et lorsqu'il transcrit des ethnotextes, il montre des sons et des processus qui n'appartiennent pas au parler standard ; notre travail présente des caractéristiques et des nuances qui reflètent les données correspondant au parler du Pays Basque Nord oriental.

**Mots-clés:** prononciation standard, prononciation diffuse, aspiration, voyelles nasales, phonème *ü*.

We deal with the subject of pronunciation from the point of view of the dialectologist that collects and studies informations about Basque language phonetics. This discipline faces the researcher with the language and the pronunciation of different speakers. The disquisitions begin at the very first moment of recorded material's transcription. Unless it is for a very detailed phonetic analysis, the dialectologist works with his hearing, and transcribing the ethnotexts shows sounds and processes that don't belong to standard language. Our work shows features and nuances that appear after reflecting the informations of spoken language in the east of Northern Basque Country.

**Keywords:** standard pronunciation, diffused pronunciation, aspiration, nasal vowels, phoneme *ü*



## 1. Sarbidea

Ahoskeraz hitzaldi bat egitera gonbidatu nautelarik ahalkea eta beldurra nahaska sentitu ditut: zer esan nezake nik gaiaz? Zer balio du dialektologian diharduen lagun baten ikuspegi edo iritziak euskal ahoskeran interes teorikoa ukan lezakeenarentzat? Eta zer konta niezaieke hedabideen zuzeneko emanaldietan baliatzeko ahoskera arloko irizpide argi eta zehatzak behar dituzten kazetari eta aurkezleei nik? Haurrak euskalduntzen nahikoa lan duten irakasle-andereñoei zein aholku eman niezaieke euskal ahoskeraz? Hasieran jokoz kanpo banengoen ere, anitz pentsatu ondotik baiezkoa eman diot gonbitari, baina ez pentsa segurtasuna sentitu dudalako izan denik.

Dialektologiako datuen bildumak hiztunekin aurrez aurre egotera eta ondotik banda edo grabazio horiek entzun, berrentzun eta kudeatzera behartzen du ikertzailea. Datu-biltzaile naizen aldetik, ene asmoa euskal hiztunen ahotik Ipar Euskal Herri barreneko alderdiaren ekialdean zer entzuten den kontatzea da, euskararen munduko gure arteko jende batzuek euskal ahoskeraz ukan dezaketen ezagutza orokorrari maila bat gehiago eransteko besterik ez bada ere; helburu hori erdietsiz gero, ene aldetik aski litzateke. Halaz guztiz ere, ahoskeraren gaiari dagozkion arlo edo atal orokorxeago batzuen berri ere ekarri nahiko nuke saioaren hasierako lerro hauetan.

Hasieratik garbi adierazi nahi dut ez naizela fonetika artikulatorioaz edo akustikoaz nahiz fonologiaz maila teorikoan aritzera etorri, ez nintzateke gai: Hyman, Malmberg, Hurch, Llisterri, Mascaró, Hooper eta abar beste garai batean irakurri edo ikasitako gaien artean gelditu ziren eta ez ditut geroztik sakonago landu, intuizioz jardun dut nik ahoskerari dagozkion afe-retan. Fonetikako tresneriarik baliatu gabe, belarriz eta intuizioz, fonologiaz jakin dezakedantxo gogoan: dialektoen arloan deskribatzeko edo mugak finkatu ahal izateko adierazgarri diren desberdintasunen eta ezaugarrien isla diren ahots zertzeladak ditut nagusiki bilatzen, ez naiz hauen ezaugarri fonikoak sakon aztertzea murgiltzen, hori fonetistek dakite egiten, nahiz baidiren Euskal Herrian dialektoen azterketatik hotsen azterketa xehe eta soziolinguistikora iragan diren lankideak ere, Irantzu Epelde bat, besteak

beste. Ingeniariaren laguntzaren bidez ahotsa sakon lantzeraz dialektologiatik iragan den ikertzailek ere bada gure artean; hori da Iñaki Gamindek egin duena, emaitza zientifiko oparoa ekarriko, gainera.

## 2. Batasunaren saihestasak

Estandarizazioaren bidean abiatu den euskara bezalako hizkuntza baten etorkizunerako, garrantzi handiko eginkizuna izan zen ortografia eta morfologia batzea, euskaldunon gizarte ttikian eztabaida, grina eta iskanbila eragin zituen. Euskal hitzak ere ari dira orain batzen; emeki-emeki ematen dituzte euskaltzainek eta horretarako eratu batzorde bereziko kideek zerrendaren hurrenkeran, baina sintaxiaz ez du inork deus esan; ez luke kanore handirik arlo hau ere batu nahiak eta ez dirudi hurren urteetan inork alderdi honetaz planteamendu uniformizatzailek defendatuko duenik.

Ahoskerarena, ordea, ez da afera erraza, izan ere, ez baita idazteko batzen, izatekotan mintzatzeko batuko litzateke eta oro har, idazketa baino, jardun garrantzizkoagoa da pertsonarentzat mintzoa. Segurtasunez ahoskatzen eta hitz egiten ez duen laguna ez da bere buruaz ziur sentitzen eta entzuten duen hura xuxen deskodetzen ez duen hiztuna ere ez da ongi sentitzen. Usu entzuten dugu Amikuzeko euskara eta Zuberoakoa hurbil daudela, bata bestearen ondoko ibarrak izanik elkarrekin berriztatu dituztela ezaugarri batzuk, beren arteko hizkuntza-komunikazio maila gora dela, baina Zuberoako mugaren ondoko Amikuzeko gizon gamuetar bat ez zaigu guri honela mintzatu (2005):

(...) gio goiti juiten bazira, horrat, tXüberaat, etziü fitsik konprenitzen, e; guk bi urthe pasatü tziu Atharratzen, na ez gintzin(...) sofitritü diizi, e, ez gintzin konprenditzen.

Bat baino gehiago izan daitezkeen arrazoiengatik, Euskaltzaindiaren inguruan hainbat lagunek galdegin dute euskal ahoskera batzea: eman dezagun, Txillardegik behin baino gehiagotan idatziz egin zuen (1986, 1987, 1992) eta Piarres Xarritoni ahoz entzun diogu ahoskerarako ere erabaki batzuk hartu behar direla. Xabier Kintanari ere entzun diogu ahozko euskara jantziari gutieneko baldintza batzuk ezarri behar zaizkiola; hedabideetako

langile batzuen ahoskeraz kexu idatzi ohi du: «(...)esatari guztiei ez zaie beti hizkuntz kontrol onik egiten. Horregatik mikrofono-aurrean mintzatu behar duten pertsona askok beste edozein hizkuntzetan onartuko ez liratekeen arduragabekeriak, ebakera txarra, era dialektalak eta erdarakadak aireratzzen dizkigute» (1992, 41-42). Ahoskeraz erabakiak hartu beharra ere usu aldarrikatu du euskaltzain bilbotar honek, halako fonemaren ebakera bataren alde eta bestearen aurka: «Bestalde, hizkuntzaren sistema fonetiko standarra erabakitzeko dago oraindik (khotaismoa eta yeismoa, kasu, hor dira). Baina urte asko iragan arren, Euskaltzaindia ez zaigu dei horien aurrean oso sentikor azaldu» (48).

Ahoskeraren arloko erabakien bidez euskal hiztunari gauzak sobera bortxatzeko halako herabetasuna agertu dute beste euskaltzain batzuek eta ikerketa gehiago galdegin, erabakiak hartzen hasi beharrean lana patxadan egin ahal izateko. Berebat, irakaskuntzaren esku-hartze globalagoa ere aldarrikatu da Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordetik, haurren hezkuntzako ikastetxeetan ahoskerari garrantzi eta ondorioz presentzia handiagoa eman dakion. Guk uste eskaera honekiko ez litzatekeen hain paradoxikoa, hiztunarentzat ahoskera den bezain gauza naturala gehiegi ez behartzeko ardura hartzea: ustez, bide honetan dakusagu Miren Lourdes Oñederraren jarduna hondarreko urteotan. Funtsean, ahoskeraren arloko gaiak artean sobera ukitu ez badira, seinale eginkizuna ez dela txantxetakoa eta erraza; hain segur, adar bat baino gehiago ukitzen du: hizkuntzaz landa, joko honetako partaideak euskal hiztunak dira, azken buruan pertsonak, hala hiztun xeheak nola euskararen munduko langile franko.

Arlo honetan, gainera, iritziak ez daude baitezpada alderdi bateko nahiz besteko saihetsean, franko jenderen ikuspegia mailaz maila bide-erdi haratago edo honatago kokatu ohi da. Eman dezagun, hots bataren ala bestearen aldeko arautze hautua arrazoitzeko juzgu soziologiko edo demolinguitikoak egon litezke, esate batera /j/ ahoskatzeko baldin [x] hotsa proposa baledi, baina hizkuntzan hauek ez dira arrazoi bakarrak. Hots baten kide den beste hotsaren alde arrazoi geografikoak edo euskalki arrazoiak ere aipa litezke, dakigun bezala [j] hotsa Ipar Euskal Herri eta Nafarroa gehienekoa eta Bizkaiko saihets handi batekoa baldin bada. Arrazoi kronologikoak ere argudia litezke, esate batera, fonema batez ditugun hotsetan guk dakigula

bata zaharrena edo zaharragoa bederen baldin bada, [j] hotsa [x] baino zaharrago dela dakigun aldetik, baina honelako auzietan gauzak ez dira matematika hutsa izaten eta arrazoi kronologiko, historiko, literario edo filologikoak ez dira aski izaten arrazoi soziologikoek hiztun kopururik handienaren alde jotzen dutenean, batez ere hots bat hizkuntzaren erdigune geografikoan homogenea den kasuetan, hizkuntzaren saihets edo bazterrak galtzaile aterarik, baina euskal [x] eta [j] hotsen kasuan zabala da [j] hotsaren hedadura; Euskal Herriko aski erdiguneko eskualde batzuetan ere erabiltzen da [j]. Ageri denez, arrazoi konbinazioak eta hots baten hedaduraren konbinazio geografikoak berak, guk nahi baino bihurriagoak izan ohi dira eta halaxe dira usu euskaraz ere.

Jatortasunari dagozkion arrazoiak ere baliatu ohi dira eta ez dira hutsaren hurrengoak: euskarari guk nahi baino indar gehiagoz eragiten dion erdarazko hotsa ez bezalakoa den beste bat hobetsi ohi dugu euskaldunok usu. 1802an Juan Antonio Mogelek *Peru Abarka*-ren hitzaurrean zioskunez, zinezko euskaldun garbiek ez dute *alferra*, *afaria* edo *ifini* esaten, *alperra*, *aparia*, *ipini* baizik; zekarrenez, ezin ahoskatu dute *Fernando*, *Francisco*, *fiesta* edo *función* eta haurrei ere neke zitzaien erdaldunek bezala *f* ahoskatzea (1956 [1802], 17). Gauzak areago korapilatzen dira tartean estetika edo juzgu inpresionistak sartzan hasiz gero: Mogelek zioenez, «frantses euskaldunek» beren idazlanak *h-z* betetzen dituzte eta hitzak beste era batera ebakitzen; bera bezalakoan belarrirako ahoskera gozakaitz, latz eta baldarra zeritzon hasperenari (18).

Arlo soziolinguistikoa ere ukitzen du mintzoak, balio sinbolikoa duen aldetik: artean gertatu ez bezala, estandarizazioaren ondoko aldian ahoskera jakin batek prestigio berria har dezake ala prejuizioa eragin diezaieke beste entzule batzuei.

Badakigu hizkuntza-aldaketek inoiz gizarte-motibazioa ukan dezaketela. William Labov soziolinguistaren 1972ko ikerlanagatik ospetsu bihurtu da ekialdeko Ipar Amerikako Massachusettsen Martha's Vineyard uhartea; bertako hiztunek /ay/ eta /aw/ diptongoen ahoskera arras zentralizatua egitera jo zuten, bereziki 31-45 urte bitarteko jendeek, betiere aldea azpifonemikoa izanik. Lehenago ondu ingelesaren hizkuntza-atlasetan uharteko

emaitzak islaturik baitzeuden, aitzineko belaunaldiei bildu emaitzak 1961eko ahoskerarekin alderatu zituen Labov-ek. Hizkuntzazko etno-demarkazio betean, nor den nor eta batez ere nongoa den adierazi nahiz bezala, beren nortasunaren agergarri, urteroko ekain-uztailetako berrogeita bi mila udatiar bostondarrek ez legez, urtean zehar uhartean bizi diren gizon gazteek, oharkabean nahiz beren borondatez, uharteko arrantzaleen ohitura zaharragora eraman zuten aipatu bi diptongoen ahoskera.

Pertsonak norbanako eta aldi berean taldekide ere bagaren aldetik, gizarte maila jakin batekin, jatorri geografiko batekin ala kultura erreferentzia berezi batzuekin identifika genezake fonema baten ahoskera jakin bat eta kasu batzuetan ez da txantxetako edo jolaserako gaia: norberaren baitako ziurtasuna, duintasuna, talde-identifikazioa edo honako edo harako barioak... garrantzi handiko heldulekua baitira pertsonarentzat. Zenbait filologo, hizkuntzalari edo normalizatzailerik uste dute honelako gorabeherak belaunaldi bat, bat eta erdi ala gehienez bi iraun ohi dutela eta behin batasuna, estandarizazioa eta normalizazioa erabakiz gero, ahoskera-ohiturak biderkatzeko gaitasuna eta ahala duten hedabide, hezkuntza eta administrazioak gizartearen eta geografiaren alderdi gehienetara lerraraziko eta bideratuko dituztela ondotik ahoskera arau estandarizatuak: jende batzuk zaharrez hiltzea eta beste batzuk sortzea eta heztea bezain gauza automatiko eta lineala delakoan.

Gaiak, gainera, gaurkotasuna ukan du berri: fonetikaren eta fonologiaren jakintzagaian aditua den Jose Ignacio Hualdek ahoskeraren aldetik euskara hizkuntza itzalitzat jo daitekeela idatzi du 2015 honetan eta lagun batzuek aurre egin eta tinko erantzun diote Euskal Herrian Illinoisko ikertzaileari. Eta auzia dago gai honetan. Alde batetik zer den eta zer ez den euskal ahoskera, zein den ahoskera egokia eta zein ez, eta zein erregistrotan, bai baitakigu euskal hiztunen belaunaldietako segmentu batzuetan frantsesa eta gatzelania euskal ahoskera aldarazten eta higitzen ari direla; aise «dantzugu» euskarak dituen ezaugarri batzuk erdaren aitzinean neutralizatzen ari direla eta besterena gurera kutsatzen; ez guk uste bezain emeki, gainera.

Ordea, euskal ahoskera zer den eta zer ez den finkatzen hastean, ikuspegi historikoa eta geografiko-dialektala edukitzeak ez digu batere kalte egi-

nen; euskal herrialde guztietako mintzoa hein batean ezagutzen duenak badaki ahoskera batzuen eta besteen *continuum* luzean euskalkiek bide dibergenteak har ditzaketela eta hartu ere dituztela; era guztietako bideak zabaldu dira eta usu euskal ahoskera jatortzat jotzen ditugun hainbat joera, ohitura edo are arau, eskualde laburragoko ala zabalagoko euskara dira, ez dira euskara orokorra, batua edo estandarra, ez dira Hegoalde guztian edo Iparralde osoan nagusitu joerak; eta ez dira betikoak ere. Orain euskal ahoskera jatorraren ezaugarritzat jotzen dugun hori, bere garaian ez zuen testu zaharretako idazkerak islatzen eta ondoko berrikuntzatzat jo beharko litzatekeela ulertzera heldu gara. Euskaldun bat *rts*, *ntx* edo *rtz* egin beharrean *ersi*, *hanxe*, *horxe*, *sagarze* ahoskatzen ari denean, beharbada «euskal» ezaugarri zahar bat gordetzen ari da, nahiz egungo gure belarriak hitz horietan euskarak hots afrikatuak eman beharko lituzkeela sentitzen duen.

Ez bedi pentsa saio honetan parte hartzea interes ideologikoaz edo teorioaz ideia batzuen alde jotzeko onetsi dudanik, ez nator ahoskera egokia zein den eta zein ez den adieraztera, auzi horretan badudalako berezko halako ezintasun gogorra; garbizalexe naiz eta ez ditut gogoko erdaratikako zenbait azentuera edo ahoskera berri. Halaz guztiz ere, iduri luke gure arteko zenbait jende euskaltzalek pentsatzen duela Gipuzkoa edo Bizkaikoa ez den euskal azentuera oro erdararak kutsaturik dagoela; gauzak, ordea, ez dira hain xinpleak. Berri itxura eduki lezakeen hainbat doinu eta azentuera entzun daiteke dialektologiako grabazioetan, eman dezagun Nafarroa Garaian edo ekialderago ere, baina Bizkai-Gipuzkoetakoak bezain euskarazkoak eta egokiak dira horiek ere. Erdal kutsuko azentuera eta doinu trokaiko berri horren aurka jo nahirik, euskal azentuera egokia Beterrikoarekin identifikatzeko joera izaten da usu, baina uler litekeenez Euskal Herriko zeinahi bazterretan egiten da ahoskera eta azentuera egokia.

Iparraldean frantsesak eta Hegoaldean gaztelaniak euskarari eragiten dioten erdararatze joeraren aurka lanean dihardute euskalgintzako hainbat kidek, euskarago diren erak bultzatu nahirik. Ildo honetan, Eusko Jaurlaritzak Andres Alberdi egile duen *Ahoskera* izeneko liburua argitaratu du berri. Haren orriak eskuztatzen hasi orduko ohartu naiz lana Hegoaldetik begira idatzi dela, nahiz laguntzaile eta lankideen artean badiren Ipar Euskal Herriko ahoskera ongi ezagutzen duten bi lagun, baina zerrendan ez dago Ipar

Euskal Herriko edo Nafarroako inor. Liburuaren helburu eta iparra balirudike dela, Bilbon, Durangon, Amurrion, Gasteizen, Agurainen, Lizarran, Tafallan edo Iruñean ikasle euskaldun berrien aitzinean eskolak eman behar dituenak halako oinarri bat edukitzea ahoskera gaietan.

Iduri luke liburuaren erabileraren bidez erdal kutsuko euskal ahoskera saihestu nahi dela, hainbat euskaldun berrik duten mintzo gordin hori leundu eta jatorragoko beste batez ordezkatzeko. Euskararen irakasle ororen borondate zintzoaren erakusgarri den aldetik, inolaz ere ez ninteke asmo honen aurka egon. Gaiak garrantzi handia du eta ez nuke nahi adierazpen honetan inork ikusterik liburu hau kritikatzeko ari naizenik, baina hango eta hemengo hainbat euskaldunentzat minbera gerta litezkeen gaiak ezkutatzeko ere ezin hasiko naiz. Adibidexko batzuek argi adieraziko dute zer erakutsi nahi dudana.

*Ahoskera* izeneko liburuak dakar Euskaltzaindiak dioela euskara zaindurako *esan zuen* «esantzuen» edo *han zebilen* «hantzebilen» ahoskatu behar dela afrikazio hau egiten duten hizkeretan (Alberdi 2014, 28-29); zuzen dabil egilea, afrikatze berri hau ez baita eskualde orotakoa. Hego Euskal Herrian badira nafarrak egoera zaharrari eusten diotenak, aditz nagusia eta laguntzailea biltzen diren sandhi horretan afrikaziorik egiten ez dutenak: Burundan –*esan zegín* Altsasun– edo Erronkari ibarrean –*erraiten ziezun* Izaban– eta badira nafar eskualde batzuk afrikazio hori egiten dutenak, baina ez era sistematikoan: *erosten zute* «erosten zuten» eta *eman tzako* «eman zion» erako kontsonante taldeak txandakatzeko dituzte Aezkoan. Alta, Ipar Euskal Herri barreneko franko euskaldunek *jinak ziren* «jinatzien» ahoskatzen dute, *k + z* kontsonante clusterraren ondorioz *z* afrikatuz, baina *Ahoskera* izeneko liburu honetan ez zaigu aholkatzen ahoskera afrikatu hau; al-diz, Bizkai-Gipuzkoetakoa bai.

Liburuak dio ere Hegoaldean ez dela *h* ahoskatzen eta *ez haiz* eta *ez huke* «ezaiz» eta «ezuke» ahoskatu behar direla, baina *h* ahoskatzen den hizkeretan egokiak direla «ehaiz» edo «ehuke» moldeko ahoskerak (28); ordea, Hegoaldean *yaiç* & *yaz* & *yiz*, *yago*, *yintze(n)*, *yue(n)* edo *yuke* ahoskatzen duten euskaldun nafar ugariei ez zaie adierazten «eyaiz», «eyago» edo «eyuke» erako ahoskatzea egoki dela; nonbait, euskaldun nafar horiek ez dauke euskal ahoskerazko Eusko Jaurlaritzaren liburu honen jokalekuan.

Liburuan azentuera aipatzen den atalean ahoskeraren gai honi Gipuzkoatik eta bereziki Beterritik so egin zaiola sumatu dugu; ezkerretik hasirik bigarren silaban hobesten da azentua, bere garaian Txillardegik proposatu bezala (1992, 65-70). Gipuzkoan ezkerretik hasirik hirugarrenean koka daiteke azentua Urolan (Hualde 1993b) eta esate batera, Goierriko Zaldibian baita hitz batzuetan hirugarren eta laugarrenean ere, adineko jendeen mintzoan (Garmendia 2008, 105 eta 108). Euskal Herriko ekialdeko eta Nafarroako euskaldun anitzek ere bigarren silaban kokatzen dute azentua, baina eskuinetik hasirik. Bultzatzen den ahoskeran doinu batzuk hobetsi dira liburuan, baina egileak ez du hautuaz arrazoirik agertu; beharbada ikasteko pausu zehatzak direlako eta eredu honek arrakasta ukan dezakeela pentsatzen delako? Baldin aholkuak honela plazaratzen badira, hurranen urratsa izan liteke euskaltzale batzuek pentsatzea egokitasuna eta batasuna Beterriko era horietan dagoela eta ez besteetan.

Etorkizuneko euskara jantzia ahoskera aldetik batu behar dela pentsatzeko eskubidea dute euskaltzaleek; berebat, azentuerari dagokionez erdal kutsuko doinu trokaiko berri horri aurre egiteko bide eragingarriena Beterriko azentuera proposatzea eta bultzatzea dela senti dezakete ere; bakoitzak daki bere berri. Era guztietako arrazoiak egon daitezke burubide bat ala beste, iritziak eta pentsamolde bereziak izateko eta hautu hau ala hura egiteko, baina auzia ez da jolasa. Erabakiak hartzen hasi baino lehen komenigarri da egin diren hautuen aldeko arrazoiak argitzea. Gaiaren arlo eta adar guztiei so egin behar zaie, neurbide egoki eta ahalik objektiboenen alde lerratu behar da, hizkuntzaren eta hiztunen mesedetan, betiere ikuspegi hertsietarik urrun.

Nolanahi ere den, dialektologiako langile naizen aldetik, ahoskerarekin nola edo halako lotura duten zenbait gai aurkeztea da egungo ene asmoa, ez naiz etorri 2014ko liburu honen edo beste zenbaiten aurka deus adieraztera; ez dut delako *Ahoskera* lana sakon ezagutzen eta ez naiz ideia jakin batzuk aurkeztera edo defendatzera etorri ere. Dialektoak aztertzeko eginahalean ikertzaileok usu hiztunekin aritzen baikara, euskal jende batzuek hizkuntza mintzatuko hotsak ahoskatzean ageri diren zenbait gertakari eta bilakabide aurkeztera etorri naiz.



### 3. Ipar Euskal Herriko ahozko datuen transkripzioa

Ipar Euskal Herriko gizartean eta hiztun euskaldunen gogoan frantsesa sakon errotu delarik, aldaketa gaitza gertatzen ari da hiztun ipartar anitzen hizkuntza ohituretan. 1980ko hamarkadan entzuten nituen 80 urte inguruko hiztun franko eta orain entzuten ditudan 80 urte ingurukoak ez dira berdinak euskararen erabileraren aldetik: bokalen ahoskera, dardarkariarena, hasperena, lexikoa oro har... aldatuz doaz, egungo hainbat hiztun ez dira fonikoki ordukoak bezain osoak, semi-hiztunaren tankera hartzen dute batzuek adierazpenak egiteko etengabe frantsesera jotzen dutenean; gutienek ezintasunagatik egiten dute, anitzek eguneroko ohitura edo inertziagatik, gizarte presioagatik, baina emaitza halako kode aldaketa da. Ez dezagun ahantz ez gutik prestigioagatik egiten dutela: haur denboran euskara baizik ez zekiten egungo hiztun elebidun hauek ederki menperatzen dute orain frantsesa eta hori erakustea, oharkabean baizik ez bada ere, onuragarri zaie, psikologikoki osasungarri.

Ezagutzen ditugun hondarreko hiru hamarkadotan gertatu dena ez da 80ko hamarkadako gaitza, lehenagotik ere gertatzen zen hau; min zuen egoeragatik 1896an Jean Hiriart-Urruti idazle hazpandar ezagunak (2004, 331):

Datozila español-eskualdunak mendiez hunaindirat: guk heientzat bezenbat erraiteko badukete heiek guretzat. Ezen gutartean ere ondikotz ikusgarri bera dugu begien aitzinean: zaharrak dire bakarrik beti eskuaraz mintzo. Bitarte adinekoak erdi eskuaraz, erdi frantsesez.

Ipar Euskal Herriko egungo euskara transkribatzen denean, ekialdeko euskarak berak izan ditzakeen ñabardura berezietz landa, frantsesaren eragina ere aintzat hartu behar da, euskara estandarretik urruntzen diren ahoskerak entzuten ditu dialektologian dabilenak, horrelako eremuan lan egiten du eta bokalen eta kontsonanteen ñabardurak islatu behar ditu... Datu bilteza eta transkribatzea ez dira atzo goizeko fenomenoak Euskal Herrian, tradizio sendoa dute bi jardun hauek; hona euskal geografian gaindi ahozko datu-bilduma esker ga bildu duten lau egitasmo:

Louis-Lucien Bonaparterena (1860 →)  
*Erizkizundi Irukoitza* (1922-25)

*Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* (1984, 1990)

*Euskal Herri Hizkeren Atlas*a (2008 →)

Bestalde, franko etnotesturen transkripzioak egin eta argitaratu dira:

Julien Sacaze (1887), Edouard Bourciez (1894), Julien Vinson (1907, 1908, 1911), Georges Lacombe (1911-14), Rudolf Trebitsch (1913), Hermann Urtel (1916-17), Henri Gavel (1920, 1960), Resurrección María Azkue (1922, 1927, 1931, 1945), Amado Alonso (1923), Tomás Navarro Tomás (1923, 1925, 1926), William Rollo (1925), Jean Larrasket (1934, 1939), Nils M. Holmer (1950), Kandido Izagirre (1959-60), Koldo Mitxelena (1959 →), Jean Haritschelhar (1963, 1970), Geneviève N'Diaye (1970), Damaso Intza (1974), Nicole Moutard (1975-76), Koldo Artola (1977 →), Iñaki Gaminde (1980 →), Pello Salaburu (1984)...

Dialektologian gabiltzanok grabazioa egin ondotik ahoskera albait leialen entzuten eta emaitza aztertzen ordu ugari ematen dugu, baina hotsak transkribatze hori buruhauste bilakatzen da inoiz; hotsekin borrokan ari behar du batek eta ez daiteke uka zertxobait sufritzen dela. Bandan grabatu dena transkribatu behar izaten da eta *continuum* bat haustea edo neurbideetan marra bat irudikatzea bezalakoa da transkribatzea, interpretazio bat egitea da: azken buruan, erabakiak hartzea.

Aztertzen den euskara transkribatzailearen ohiko mintzotik zenbatenaz urrunago dagoen, hainbatenaz gehiago sufritzen da hori islatzeko, hainbat osagai ezezagun edo urrun baitatoz jokalekura. Halako borroka gertatzen da, behin eta berriz entzun behar baita hots bat; aldi batez era batera entzun uste dena, transkribatzaileak ondoko aldi batean beste era batera entzuten duela uste du: zer transkribatu eta nola egin ez da aise, egin den hautua ez da asebetegarri eta halakoxe sentikera ilunaz doa bat aitzinera.

Baina gatozen jokalekura: transkripzioak egiten dituen dialektologialariak zer du eskuartean? Hasteko grafia du bere tresneria, eta zein transkripzio mota egiten du? Ohiz ez da fonetikoa, fonologikoa da, baina fonema horien ahoskeran ñabardurak egin behar direlarik, orduan *claudator* artean hotsak era fonetikoan idazten ditu, fonetikako grafia baliatzen du, hiztunak zehazki zer ahoskatu duen argi geldi dadin. Eman dezagun, hiztunak [3]in ala jin

dioen adierazi behar du, edo dardarkariaren ahoskera hobikaria ala ubularra den, <rr> ala [R] idazten du etnotestuan; berebat, bokalarteko txistukari lepokaria ahostuna baldin bada, [z] idazten du: *etxe[z] etxe, etxeko[z] etxeko, e[z] anitx, e[z]untsa...* Eta ahostuna den bokalarteko txistukaria apikaria baldin bada, [ʒ] idazten du: *ai[ʒ]e, deu[ʒ]e, erreu[ʒ]itü, gi[ʒ]a, ü[ʒ]ü...*

Eta eman dezagun katea fonikoan hots batzuk ohi baino ahulago entzuten direla, honelakoetan goitixeago eman daiteke hots ahulki ahoskatu hori; hona adibide batzuk:

*alaba ʻe, baʻzoʻtzün, bituʻ, esniaʻkilan, heʻndako ʻbezala, hoʻei, hoʻi, ikhasia ʻaitute, iziʻarri, noaʻ joan, ogiaʻn sariaʻn, Oʻarren, untsa ʻsinten, xut ʻzum...*

Funtsean kasu gehienetan transkribatzeko IPA –*International Phonetic Alphabet*– ereduia ibiltzen da: IPA baliatuz, baina Euskaltzaindiaren EHHA euskal atlasaren jokoarari jarraikiz ere bai. Hona, adibidez, bokaletan zein ñabardura adieraz daitekeen:

- bokal sudurkariak: *ā, ē, ĩ, ō, ũ, [ỹ]*
- *ɑ*: «a» eta «e» arteko hotsa
- *ɛ*: «e» eta «i» arteko hotsa
- *ø*: «o» eta «u» arteko hotsa
- *æ*: «e» eta «o» arteko hotsa, maileguetan ageri den frantses fonema
- *ü*: «u» palatala, «u» hertsia, «u» eta «i» arteko fonema; egin liteke [y] ere, baina euskal etnotestuak transkribatzeko aski bortxatua gerta daiteke [y] eta aski ezaguna den «ü» ere balia daiteke
- [ʒ]: Zuberoako ohiko /j/, txistukari igurzkari sabaiaurreko ozen edo ahostuna
- [ʒ]: zenbait hitzen barrenean gertatzen da, txistukari igurzkari apikari ahostuna da
- [z]: txistukari igurzkari lepokari ahostuna; ondotik bokalez hasten den hitza duen ez hitzaren sandhietan aise entzun daiteke eta maileguetan ere bai; Amikuzen bada sandhietako ozentze edo ahostuntze hori, baina Zuberoan areago gertatzen da
- /j/: Nafarroa Behereko /j/ arrunta, hots sabaikari herskaria

- /i/: arestikoaren aldaera goxoagoa, hersketarik ez duena, *i* transkriba daiteke; eman dezagun, Arberoako Mehainen entzun *ioaiten* «joaiten, joaten»
- R: dardarkari ubularra, frantsesaren eite duena, hala Ipar Euskal Herrian nola Ipar Katalunian ahoskatzen dena, Hego Euskal Herrian eta Hego Katalunian ez bezalakoa; Ipar Euskal Herrian hiztun gazteetan eta adineko jende frankoren ahoan ageri da

Baina etnotestuen transkripzioak egiten ditugun guztiok ez dugu berdin jokatzeko; eman dezagun, honelako lanetan aspalditik diharduen Koldo Artolak <ä> idazten du *a* eta *e* artekoa eta *e* eta *i* artekoa, berriz, <ë>; *o* eta *u* artekoa, <ö>. Berebat, EAEL edo *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa*-n Zuberoako /j/ sabaiaurreko ozena [ž] eman zen.

Baina zer transkribatzen dugu zinez? Ustez gure belarriak entzuten duena islatzen dugu testuan. Garbi dago hizkuntza-atlas batean lanean ari bagintez eta bi datu-biltzailek errealitate foniko bat eta bera desberdin entzun bagenez, bataren ala bestearen –ala bi transkribatzaileen– datuak faltsuak lirartekeela eta mapan isoglosa faltsuak edo artefaktuak agertuko lirartekeela. Ikertzaileen beren entzuteko gaitasun desberdinak aldeak eragin ohi ditu mapetara emaitzak eramatean edota entzuten dena edo entzun uste dena interpretatzerakoan; honelako adibideak ugari dira, esate batera, dialektologia erromanikoa: 1925eko *Tableaux phonétiques des patois suisses romands* lanak argi eta garbi utzi zuen inkestan zehar bi inkestatzailek hots bat eta bera desberdin entzun dezaketela.

Giza belarriaren oharmenean bada diskriminatzeko halako gaitasuna: gizakiak tresnak baino hobeki daki, informazioa deskodetzean hotsaren osagai guztietarik giza gogoak zeri garrantzia ematen dion; gizakia ez bezala, tresna gai da hots baten osagai guztiak edo gehienak diskriminatzeko eta neurtzeko, baina ez da gai giza gogoak hotsen osagai guztietarik zein diskriminatzen duen jakiteko, oharmenaren aldetik zein osagairi ematen dion zinez garrantzia berea ez bezalakoa den hots edo doinu bat entzutean, informazio hori hobekien hiztunaren oharmenaren azterketak eskainiko digu, tresna bidezko espektograma batek ez.

#### 4. Ahoskeraren gardentasunaz eta euskararen kalitateaz

Hiztun ipartar batzuek hots batzuek egun egiten duten ahoskera ez da iraganekoena bezalakoa, baina badira beste hiztun batzuk, eman dezagun, hasperenak edo hots hasperenduak egun ere arras garbi ahoskatzen dituztenak. Zuberoan hiztunek hasperena ahoskatzean indarrezko *h*-a sumatu ohi da, baina ez zaigu iruditzen hasperenaren ahoskera gardenaren gaian Zuberoaren hurbiltasuna beti parametro baliagarria denik, izan ere, herrialde honen mugaren ondoko Nafarroa Behereko hiztun amikuztar ugarik ez baitu hasperena garbi ahoskatzen, edo ez zuberotarren indarrez bederen. Izan ditugun Arbotiko bi lekukok –biak gizonak– ez dute *h* nabarmen ahoskatzen eta alderantziz, ezagutu dugu Oragarreko auzo den Bartan –betiere Hazparne ondoan– *h*-ak Arbotiko gizonak baino argiago ahoskatzen dituen emazteki bat.

Honek lekukoaren generoaren gaira ekarri gaitu, gizon eta emaztekiatarra. Auzi honi ekiterakoan bi ardatz bederen gogoan eduki behar ditugu; alderdi batetik hizkuntzaren transmisioari dagokiona, izan ere, egoki ahoskatzea, hizkuntzaz arreta ukaitea, haurra xuxen mintzaraztea, aski jardun femeninoa da, haurraren heziketa ohiko gizartean amaren bizkar gelditu ohi den aldetik. Bigarren ardatza ahoskatzen diren hots eta formen gizarte onespenera genduke eta arlo honetan ere, emaztekoa arretatsuago dela dirudi, mendebleko kulturetan bederen jaramon gehiago egiten dio hizkuntza-formen oharmenari eta gizarte-balioari.

Amikuze eskualdeko euskal lekukoekin hondarreko hamar urteotan gertatu zaiguna segurik aipa genezake: gogoan dugula, emazteki guzti-guztiek ahoskatze arras gardena ukan dute, baina gizonen kasuan ez da berdin gertatu; gardentasunagatik gogoangarriak izan dira Mehaine, Labetze, Larribarre, Sorhapürü, Sarrikotapea, Lohitzüne edo Oihergiko gizonak, baina transkribatzerakoan aski lan eman digute Oragarre, Behauze, Zokotze, Donapaleu, Zohota eta Berroetako gizonak.

Ahoskeraren gardentasunak hizkuntza batek ukan lezakeen maila jantziarekin eta arta edo txukuntasunezko tradizioarekin lotura zuzena du, hezkuntzarekin eta kulturarekin, erkidegoko kide gehienengana gizartetik

heldu den mintzatze-kulturarekin, nahiz norbanako batek ere eduki leza-keen mintzatzeari dagokion elitezko ezagutza edo jakituria. Ipar Euskal Herriaz dihardugunez, balio luke auzi honetan katixima aipatzea, errient-errientsek eskolan ez bezala, denboraz apezek euskaraz eginarazten baitzuten katixima Elizan. Honela, euskara katiximan landu zitekeen, apezaren ahotik entzundakoa euskara on eta zuzena zatekeen, elizgizonek irakurtzeko zaletasuna, ahala eta premia ukan ohi dutenez.

Ahoskera eredu ona, <sup>h</sup>*eskuara huna*, katiximan entzun dutela esan digute Arberoako Mehainen eta Amikuzeko Behauzen eta honek beste auzi batera garamatza: eskualde bateko ala besteko mintzoaren kalitatearenera. Mehaineko eta Behauzeko ene lekukoek maite zuten katiximako euskara, hori izan zen hein batez araturik ezagutu zuketena bakarra, eta Baionako apezpikutegetik etorri ohi ziren liburuetan mintzamolde hori ageri da, Lapurdiko euskararen kutsua duten liburuetan. Bestalde, duela ez aspaldi arte misionestak herririk herri ibiltzen ziren kristau fedea hedarazten eta sendotzen; dakigunez, eskualdean misioak egiten zituzten apez edo fraideak Hazparneko egoitzatik joaten ziren eta horixe da egun Amikuze alderdian euskaldunek gehien estimatzen duten euskal mintzoa, Hazparne alderdikoa; iduri luke mintzoen estimuaren gaian arrazoiek eta ondorioek elkar elikatzen dutela.

Nolanahi ere den, mintzoen estimuaren txanponaren binperra norberaren mintzoaz batek ukan lezakeen uste ezkorra da eta bi alderditarik bederen elika daiteke. Batetik baxenabartarrek Lapurdiko aldaeretarako duten joeratik, baina Frantziako Eskola Nazional ofizialetik ere bai. Errientez adierazirik nonbait, frantsesaren eta euskararen hitz-hurrenkera edo sintaxi-egitura alderatzean bata eta bestea usu aurkako norabidean abiatzen direnez, hori entzutearen entzutez beharbada, euskal hiztun batzuek diote euskaraz mintzatzean orga idien aitzinean kokatzen dutela. Honelako juzguez ez diote mesede handirik egiten euskarari, baina Amikuzeko Zohaztin honelako iritzia entzun dugu guk, euskara arras xuxen ematen duen emazteki batengandik, gainera; hizkuntza-segurtasunik eza eragiten ote dio honek emazteki honi? Zohaztiar honek eredu sendoak dakuski hala zuberotarra nola lapurtarra, baina Nafarroa Behere-Amikuzekoa ez. *EHHA* izeneko euskal atlasean Bardozeko lekukoak ere antzera dio, irudia errepikatzen da,

dioenez orga idien aitzinean ezartzen dute bardoztarrek euskaraz mintzatzean; frantses errient zenbaiten eraginez sarrarazia ote da iritzi ezkor hau?

Nafarroa Beherean ez da ezezaguna norberaren mintzoaz halako arrangura izatea; hona Euskaltzaindiko buru izan genuen Jean Haritxelhar zenak zioena: Baigorriko euskarak elkarrizketari itzuli gogorra ematen diola, Nafarroa Beherean Lapurdin baino hitz gutiagorekin mintzatu ohi dela, esaldia laburrago dela, idorrago; lapurterazkoa, berriz, zabalago dela (1963, 69). Baigorriko euskararen usu idordura sumatzen zuen, urduritasuna eta lastertasuna, laburduretarako joera; idazkeratik urruntzen ari den mintzoa zekusan Baigorrikoa (73). Ez da atzo goizekoa iritzi ezkor hau; duela mende bete Jean Etxepare Bidegorri mirikuak 1915ean Lapurdi eta Nafarroa Beherea aurkaritzan ezarri zituen, hain segur orduan ere iritzi hau nagusi zebilelako: Etxeparek zioskun *Sarako lapurtarraren handitik, nola Garaziko baxenabartarraren xehetik* ematen zuela Jean Hiriart-Urruti idazle hazpandarrak; ikus Charritton (1984, 172).

Azkueren hiztegiko *gohaindu* sarreran ez du bere mintzoaz iritzi onik ageri oztibartar batek: *Ostibarreko mintzo basa hunek asia, gohaindia, okhaztatia bitzautekte ingoitik* (1905). Ezagutu ditugu Oztibarren Baigorriko euskara maite duten jendeak, edota Lapurdikoa bestela. Iduria da iritzia Amikuzen ere: oro har ezkorra da, euskara ona Lapurdiko Hazparden egiten dela entzun ohi dugu. Amikuzeko Sarrikotako hiztun batek Garazin dakusa euskara ona ere, uste baitu ez dutela Amikuzen bezainbat erdal hitz baliatzen euskaraz mintzatzean.

Amikuzen entzun dugu ere Lapurdiko mugako Bardoze herrian mintzatzean euskaldunek bearnesa eta euskara nahasten dituztela eta Kristina Encinarrek ere iritzi hori bera entzun du Mugerren eta Beskoitzen Bardozeko euskaraz (2008, 390). Bardozeko euskarari buruzko iritzi ezkorra EHHA-n ageri da ere, lekuko herritar baten ahoan; egiten duten euskara nahasiagatik *xarneguak* eta *baxtartak* direla irizten diote bardoztarrek: *ü* ez dela bertako hotsa esateraino, nahiz Bardozen artean euskal hitzetan *ü* ahoskatu ohi den. Aita-amak bardoztarrak dituen lekuko bardoztar batek ere euskara ederra Hazparden eta Uztaritzen dakusa; Bardozen ez (Encinar 2008, 389).

## 5. Hasperena

Aipagarria da *h* edo hasperenaren gaia; aldea dago 80ko hamarkadan Ipar Euskal Herrian entzuten nuen eta orain entzuten dudan hasperenaren indarraren artean; belarriz bederen, Nafarroa Behereko hiztunetan agerianago zitzaidan egun baino hasperena orduan. Oroitz Jauregik eta Irantzuko Epeldek Ipar Euskal Herrian hasperena jasaten ari den galeraz idatzi dute (2013); Ilse Lehiste (1964) eta Bernard Hurch (1988) ikertzaileen lanak aipatuz diote, hasperenik ez egitea naturalago dela egitea baino eta «aspirazioa ekoizteko, ez ekoizteko baino ahalegin artikulatorio handiagoa behar» dela (257).

Mitxelenari entzuten genion Ipar Euskal Herriko euskara aztertzeke egokienak etxeokak berekoak direla, Hegoaldekoek entzuten ez ditugun *ñabardura* batzuk ipartarrek sumatzen dituztelako. Arestian adierazi dut erdizka baizik entzuten ez ditudan *h*-ak iganago kokatu ohi ditudala hitzean etnotestu bat idaztean: esate batera, *<sup>h</sup>orgo* dakart Labetzen. Baina usu gertatzen zait ez dakidala xuxen, entzuten dudana *h* ahula den ala deus entzuten ote dudan, ala iruditzen ote zaidan *h* ahula entzuten dudala zinez entzun gabe, sugestioz edo hitz horrek etimologiaz *h* duela jakite hutsagatik; horrelakoetan ez dut batere garbi izaten zinez entzuten dudan ala ez dudan.

Gertatu zait bestek Ziburuko arrantzale bati grabatu bandan *<sup>h</sup>ola* «hone-la» ahoskatzen duela iruditzea, nik entzutea eta gazte ziburutar batek hasieran ez entzutea; aldiz, ondotik berriz entzunik, hark ere *<sup>h</sup>ola* horretan *h* ahul bat entzutea. Ezagutu ditut honelako kasu gehiago ere, baina alderantziz. Esate batera, *EHHA* euskal atlasean Izaskun Etxebeste eta Koro Seguroa lankide giputzek entzuten ez zituzten herskari hasperendu batzuk transkribatzen zituen Xarles Videgain oztibartarrak Ipar Euskal Herriko zenbait emaitza antolatzen ari zenean. Alta, hau ez da Euskal Herriko gertakaria soilik, auzi orokorra da hizkuntza-atlasetan: transkribatzailea nor den, ezauzgarri kritiko batzuen kasuan mapan aldaera bata ala bestea agertuko da, bandan grabatu dena hots bat eta bera izanik ere.

Videgainen doktoretza-tesi bikainean (1989) Ipar Euskal Herriko Oztibarreko mintzoa biltzen da etnotestu luzeetan, eta hasperena ukan lezake-



ten herskari guztiek dute hasperena transkripzioan: *h* guztiak ageri dira, eta beren lekuan, gainera. Beharbada Ipar Euskal Herriko tradizio idatzi edo jantzian *ph*, *th*, *kh* hasperenduak ahoskatzen diren eskualdeetan honela idazteko ohitura dago eta etnotestuak transkribatzerakoan ere honela egin zuen Videgain ikertzaileak, grabazioan hiztunak zinez ahoskatzen duena kasu guztietan banaka-banaka behin eta berriz entzuten hasi gabe. Eni segurik Oztibarren 2015ean ez zait gertatu hasperena ukan dezaketen herskari guztiek hasperena ukaite hori: adibide anitzetan edo ahul entzuten dut edo ez dut entzuten; berdin gertatuko ote litzaioke Ipar Euskal Herriko belarri bati? Ez jakin.

Hainbat kasutan arazoak ukan ditut *ph*, *th*, *kh* herskari hasperenduak gardentasunez entzuteko, ez baitut argi entzuten hitzeko kontsonante horretan hasperenik baden ala ez den; adibide batzuetan arras argi entzuten ditut herskari hasperenduak, baina beste batzuetan ez dut inolaz ere hasperen arrastorik entzuten, eta beste kasu batzuetan zalantza dut entzuten dudana herskari arrunta ala hein batez hasperendua den. Ene belarrian hasperen kutsua ukan dezaketenetan *p<sup>h</sup>*, *t<sup>h</sup>*, *k<sup>h</sup>* idatzi dut eta gardenak direnetan *ph*, *th*, *kh*; halaz ere, ez dut guztiz garbi *p<sup>h</sup>*, *t<sup>h</sup>*, *k<sup>h</sup>* idatzi ditudan batzuk zinez hasperenduak ote diren, eta ez dakit, bestalde, nik *p*, *t*, *k* idatzi ditudan batzuetan hasperen arrastorik egon ote litekeen ere; printzipioz ez dut uste, bestela *p<sup>h</sup>*, *t<sup>h</sup>*, *k<sup>h</sup>* emanen baintuzke horiek ere etnotestuan, baina ez naiz neure buruaz guztiz fidatzen.

Egiazki, ikertzailearen entzumenaren bidez lekukoak hitza xuxen nola ahoskatu duen jakitea ez da beti aise izaten. Amikuzen hitz zaila gertatu zait benetan *gehio*, usu *geiho* ahoskera entzuten baitu ene belarriak eta adibide batzuetan ez dakit entzuten dudana *gehio* ala *geiho* den, noiz nola, bata nahiz bestea entzuten dut, eta grabagailuan dagoen adibidea bat eta bera da, tresnari behin eta berriz errepikarazten diodana, baina bata ala bestea den ziurtatzeko eta lasaiago gelditzeko, guztizko bermerik ukan ezinik gelditzen naiz; gizakion belarriak ere mugak ditu.

Badira gero hasperen batzuk beren lekutik zertxobait higitu edo direla diruditenak:

*etzit erraiten haal horren gañian deu[ʒ]e* (Martxueta)

Baita inondik inora itxaroten ez ditugun hasperenak ere: *bortizkeriahik* (Arrueta); alta, kasu hau ez da *ehi* «eria, hatza» bezalakoa, non *eri* → *erhi* → *ehi* gertatu baita; Amorotzen *behaz* «beraz» ageri zaigu.

Beste adibide batzuetan kontsonante igurzkari baten ordain ageri zaigu hasperena:

*ehasten* «ebasten» *al tzutela* (Oragarre)

*e<sup>h</sup>intzün juten* «ez gintuzun joaten» (Gabadi), non *ezg* → *eg* → *eh* gertatu baita

*gazte hat* «bat» *balimada bürü etxen* (Martxueta)

*ta geo, to, etxea, etxea, ihil* «ibil», *etxe zaharra b<sup>e</sup>igindien han, bena etxea in lehenik hor* (Zohota)

*ihandia* «igandea» (Gamue)

Bestalde, ez da aise *Oharre* «Oragarre» (Oragarre) adibidean bilakabidea xuxen nola izan den jakitea.

Nabarmena da ere hitz elkarketak hasperena eragiten duela, Ø → *h* gerta daitekeela; hurranen adibidean diptongoa eta bokala elkartzen diren guanean, hiatuan sortu da: *gauherdi* (Arrueta, Arboti); beste honetan hiatus arruntean: *lohaldia* (Gabadi).

Lekukoekin lan egiteak erakusten du ahoskeran franko eratako bihurrikeriak gerta daitezkeela; esate batera, Zuberoa-Amikuzeetan nagusi den *hoge*i aldaera zaharragoaren ondoan (cf. Lakarra 2011, 108), (*h*)*ogoi* egiten da ondoko ibar Arberoan, Nafarroa Behere eta Lapurdi gehienez, baina Amikuze eta Arberoako mugari hurbil den Ostankoa herrian, halako batean, hiztunak *o ho<sup>e</sup>i* ahoskatu zuena *hogoi* identifikatzen nuen nik grabazioa entzutean, baina ez nengoen ziur; grabazio bereko beste adibide batean hiztunak *hoge*i eman zuen garbi eta jabetu ahal izan nintzen Amikuze-ko gainerateko herrietan bezala, Ostankoa ere *hoge*i aldaera gordetzaila ibiltzen dela, baina lehen adibidean ez nuen batere garden entzuten eta *hogoi* izan zitekeela iruditzen zitzaidan, hori entzun uste zuen ene belarriak. Amikuze-ko mugako herria da Ostankoa, Landibarreri begira bizi dena – nahiz badakigun Landibarren *hoge*i ematen dutela, baina, esate batera, Iri-

sarrin eta Armendaritzen (*h*)*ogoi*-. Dialektologiaren aldetik garrantzizkoa da eskualde horretan ostankoarrek *hogoi* ala *hoge*i egiten duten jakitea.

## 6. Sudurkaritasuna bokaletan

6.1. Aspaldian ezaguna da euskarazko bokaletan sudurkaritasuna ager daitekeela. Jauregik eta Epeldek fonetikaren azterketaren bitartez dioskute-nez «bokal sudurkariak ekoiztea bokal ahokariak ekoiztea baino konplexuagoa da fisikoki» (2011, 31).

Mitxelenak berak *FHV*-n aurkezten du gaia: Bizkaian XVI. mendean honelako bokalak ahoskatzen zirelako berri esplizituak ditugula dio eta Erronkari eta Zuberoako hitzetan balio fonologikoa duten bokal eta dipton-go sudurkari garaikideen berri dakar. Jean-Baptiste Coyosek Arbailako bokal sudurkarien eta ez sudurkarien pare minimo bakan batzuk dakartza (1999, 64).

Badakigu bokal sudurkarien arteko egungo *h*-ak iraganeko bokalarteko *n* arrunta ordezkatzeko duela. Hualdek argitu zuenez, gainera, bokal sudurkari bitarteko xiberotarren *h* kontsonante hori ere sudurkaria da (1993a). Txomin Peillenek dioenez, Zuberoako Pettarra eskualdean ozenki ahoskatzen dira bokal sudurkariok (1992, 254).

Hizkuntzalarien ustez ez dirudi halabeharra denik egungo egunak artean bokal sudurkariak Zuberoan iraun izana; hona Egurtzegiren hitzak (2014: 174):

Contrastively nasalized vowels have been developed by means of language-internal processes in Basque. Nevertheless, borrowings from gascon have greatly increased the number of words with contrastively nasalized vowels in Zuberoan. Contact between Zuberoan and Gascon has probably helped preserve the distinction until recent times. While most Basque dialects lost contrastive vowel nasalization around 4-5 centuries ago, some Zuberoan varieties have maintained it until today.

Erronkarin ere baliatzen ziren bokal sudurkariok, baina hasperenik gabe; alta, Zaraitzun ez da honelako bokalik ageri, Mitxelenak ez zituen entzun

(1967, 165) eta nik ere laurogeiko hamarkadan ez nuen Zaraitzun honelako bokalik entzun. Erronkari ibarreko Izaban Mitxelenak *kño* «usain txarra», *zĩatu* «koipe gatzatua» eta *zĩ* «ezkurra» bildu zituen eta Uztarrozen *gāzta* edo *ũr* «urra» (1953). Kandido Izagirrek ale hauek dakartza Uztarrozen (ez dugu grafia aldatu): *ánra* «harra» (1959, 297) eta *únra* «urra» (294); baita *áinzpa-reki* «ahizparekin» (1961, 399), *ánkarrak* «ahakarrak, haserreak» (398), *gánzta* (394) eta *zunr* «zuhurra, zekena» (397) ere. Bonaparteren 1869ko *Le verbe basque en tableaux* iturrian oinarriturik, Mitxelenak diosku ipar-mendebaleko Zuberoako Domintxaine eta Ithorrotze-Olhaibin ere *mēhē* edo *mīhī* hitzetan bokal hauek baliatzen direla (1977, 48), baina XXI. mendearen hasieran Amikuzen ibili ondotik, adieraz dezaket amikuztarrek ere bokal sudurkariak ahoskatzen dituztela, Zuberoan bezain nabarmen entzuten ez badira ere. Zuberoa eta Amikuzeko bokal sudurkarien gaia aurkeztu aitzinetik, ordea, beste ikergai berri bati heldu nahi diot.

6.2. Gaia akustikaren alderditik aztertutik, frantsesezko mailegu berrietan gertatzen ari dena aurkeztera jo dute hondarreko aldian gure arteko ikertzaile batzuek; Jauregik eta Epeldek Lapurdiko Senpereko euskal adibideak dakartzate (2011); ikus, bestalde, Oñederra, Jauregi & Epelde ere (2014, 86-87). Frantsetik bokal sudurkari mailegatuak sartzen ari dira Ipar Euskal Herriko euskarara, baina honela ahoskatzen duten hiztunak ez dira nagusiki frantsesa eskolan ikasi dutenak, sortzez hiztun elebidunak dira, Ipar Euskal Herriko hiztun berri edo gazteak, beharbada euskara sei urterekin ikasi dutenak eta frantsesa etxetik zekitenak: frantsesezko bokal sudurkariak sortzez egiten dakiten hiztunak dira; eman dezagun, ongi dakite *jād-arma* egiten.

Euskaraz tradiziokoak ez diren eta frantsesezko maileguen bidez euskarara sartzen ari diren bokal sudurkari guti entzun dut nik Amikuzeko adinetako jendeen ahotik. Maileguetan *fin* aipa daiteke: *astiaín fīan* «astearen hondarrean» eman du Arberatzeko lekuko batek, bokal sudurkaria eginez eta *n* inplosiborik gabe; zioztanez, frantsesa berandu eta gaizki ikasi zuen. Hartara, adinetako lekukoek ez dituzte frantses mailegu berriak beti euskal era zaharrean ahoskatzen. Labetzen euskal elkarrizketan *zāntima* hitzean lehen bokala sudurkari ahoskatzen du lekukoak, xuxen esanik *a* eta *e* arteko bokala, «æ» sudurkaria; silabako *n* inplosiboa ahoskatu zuen, bai, baina

mailegu honetan argi ageri da frantses ahoskera eta hiztuna adinetakoa zen, euskaraz bikain egiten zuena. Lekuko berarena da *ā<sup>n</sup>velopetan* hitz teknikoa ere, euskaraz emana. Berebat, Arüeko adinetako lekuko bati [ʒ] *ē<sup>n</sup>darma* eta *iē<sup>n</sup>darmekin* adibideak entzuten dizkiot: bokala sudurkaria da, nahiz ondotik baden kontsonante kutsu zerbait ere. Euskaraz diharduela Martxueta lekukoak garbiki *brætō* «bretoia» ahoskatzen du maileguzko adjektiboa, hitz bukaeran *-n*-rik ez delarik. Honelako kasuak bakan dira ezagutu ditudan Amikuzeko adinetako hiztunen artean, baina entzun ditut ale batzuk.

Esate batera, Oragarreko auzo Bartan, Ostankoan, Donapaleun, Amorozen, Amendüzen, Domintxainen edo Oihergin *bō* entzun dut Ipar Euskal Herriko ohiko *bon* «ongi» hitza; Martxueta, Gamuen eta Zohotan, berriz, *bōn*. Arestiko bi aldaerak bata bestetik edo bilakabide bata eta bestea bereiztea ez da aise, ez baikara gertakari absolutu batez ari, mailaz mailako izaera duen zerbaitez baizik. Barta auzoko hiztun horrek, ordea, *jandarmak* ahoskatu du garden, kontsonante sudurkaria eginez eta Larribarren ere *jandarmak* ageri zaigu; Olhaibin, berriz, *jandarmendako*. Ez dut gaia sakon landu, eta ezagutza eta tresneria beharko lirateke azterketa xuxen egiteko, baina nik belarriz adinetako euskaldunen artean, eman dezagun, *anprunta* «sos mailegua» entzun ohi dut beti: nolana ere den, *n* kontsonante inplosiboa nabarmen ahoskatu.

6.3. Bokalarreko jatorrizko *n* → *h* bilakabidea ez da aski euskarazko bokal sudurkari oro azaltzeko. Egurtzegik berak duela denbora guti analogiaren azalpena aurkeztu du: proposatzen duenez, *gihaur* eta *zihaur* izenordain hanpatuetako hasperen sudurkariaren kutsatzailea paradigmako lehen pertsona *nihaur* litzateke (2014: 83). Paradigmaren argudioak kasu batzuk azal ditzake, baina beste hitz batzuetako bokaletan ere sudurkaritasuna entzuten da; esate batera, Zuberoako ipar-mendebaleko Sarrikotapean *hēben* «hemen» eta *hēēxa* «herexa, arrastoa» hitzetan, *h* ondoko bokalean kutsu sudurkaria entzuten da; analogiaz ote da hasperendua?

Bokalarreko *n*-aren bilakaeraz eta analogiaren azalpenaz landa, hirugarren eragile bat egon daiteke ere. Ezaguna da James A. Matisoff-en 1975eko «Rhinoglottophilia: the mysterious connection between nasality and glottality» ikerlana. Ivan Igartuak ere sudurkaritasunaren eta laringalizazioa-

ren arteko hartu-eman hertsiaz eta gertakariak hainbat hizkuntzatan duen paralelo tipologikoaz idatzi du (2008, 177). Dioenez, delako *rhinoglottophilia* honen kariaz, *h* igurzkari glotala edo ? herskari glotala duten sekuentzia fonetikoek ahoskera sudurkarien agerpena eragin dezakete: esate batera, Thaiandiako thai hizkuntzan, *h-* ondotik bokal apalen sudurkaritzea gertatzen da: [ha:] «bost» > [hã:]. Nepalgo ekialdeko hayu hizkuntza tibeto-birmaniarrean, [h-] duten silabetan halako sudurkaritze llabur baina nabarmena ageri da (177-8). Matisoff, John J. Ohala eta Manjari Ohala hizkuntzalarien oharra aipatzen ditu Igartuak eta azalpen fonetikoak dakartza gertakariak (181):

El hecho de que la articulación de los sonidos glotales no requiera elevación del velo del paladar (a diferencia de la mayor parte de las consonantes y en contraste con las nasales, que exigen su descenso) posibilita que parte del aire pase a través de la cavidad nasal.

Amikuzeko grabazioen emaitzak behin eta berriz entzutean, hitz batzuetan bederen halako lotura sumatu uste dut nik segurik hitz hasierako hasperenaren eta ondoko bokalen sudurkaritasun kutsuaren artean: hitz hasierako *h-* + *v* segmentuetan halako sudurkaritze ahula sumatzen dut Amikuzen bokal ugaritan, nahiz hitz guztietan ez den berdin gertatzen: belarriz bederen, hitz batzuetan besteetan baino nabarmenago sentitzen dut kutsu sudurkari hori.

6.4. *FHV* lan ezagunean Zuberoako bokal sudurkariak ezegonkortzat jo zituen Mitxelenak, galbidean doan ezaugarri arkaikotzat (1977, 48). Ezegonkortasun hori zehazki zertan den ulertu nahirik, batek pentsa lezake aldakortasuna beharbada hiztunetik hiztunera dagoela bokal sudurkariaren erabileran, edo aldakortasuna Zuberoaren barreneko geografiaren arabera dela. Adibidetzat Urdiñarben 2009an entzuna hartuz gero, Mitxelenak bokal «arkaiko» hauen ezegonkortasunaz dioena hobeki uler liteke (1977, 48), bai bederen Barkoxen, Ospitalepean eta Eskiulan bi belaunaldi eta erdi lehenago Larrasketek 1939an bildu datuekin alderatuz gero, hiru herri horietan eta Urdiñarben entzundakoaren artean ez baitago guztizko berdintasunik. Esate batera, Larrasketen 1939ko lanean bildu hitzetan hurranenak bokal sudurkariak dira:

*âhârdi, âhâte, âhâtz, âhîzpa, ardû, bêhîn, gîhâû, hâmâr, hân, hândi, hêbên, ihârdets, ihârrâus, ihâu, ihîtz, ihû ê, lêhên, mâhâñ, mâhâts, mêhê, mîhîse, nâhâs, nâhî, ûhûe, xâhâ, xêhê...*

Aldiz, 1939ko lan horretan bederen beste hitz hauen bokaletan ez dakar sudurkaritasun ikurrik:

*behá, béhar, behatz, behéz, béhi, bíhi, bihotz, bóhor* «behorra», *ého, khámbára* «gela», *léher, ohártze, óhe, xáhar & záhar...*

Urdiñarbeko hiztun bati entzun dizkiodan hitz bokal sudurkaridunak, Larrasketek Barkoxeko, Ospitalepeko eta Eskiulako hitzetan 1939ko hiztegian dakartzanak berak dira:

*âhîzpa, bêhîn, hân, hândi, hêben, ihîztatzen* «ihinztatzen, ureztatzen», *khânbean, lêhênik, hâmar, mañhîetan* «bainuetan», *mîhîsik* «mihiseak, maindireak», *nâhî, sa[ž]û* «sasoina», *xâhâtzea, zihâun* «zuhaure, zeure»...

Urdiñarbeko hiztun adinetako horri entzun dizkiodan hitz bokal sudurkaridunak dira hurrenaren hauek ere, baina Larrasketek bokal sudurkaririk gabe dakartza eleok 1939ko hiztegian; parentesi artean dator hiztegiko haren emaitza:

*âhâl* (âhal), *behârrik* (béhar), *ehâitea* «hiltzera» (eháite), *ohâpin* «ohapean» (ohápe), *oihâlen* (óyhal), *segazahîa* (záhi), *zâhâr* (záhar)

Ozen ondotik ere bokal sudurkaria entzuten dut Urdiñarbeko lekukoa-rengandik: *alhábák* (alhába), *errhâtzaekilan*.

Larrasketen 1939ko hiztegiko hitzek bi kategoria dakartzate bokaletan: sudurkariak eta ahokariak, sudurkaritasuna baduten eta ez duten hitzak. Datuen arabera balirudike ez zuela bitarteko egoerarik sentitu, ez zuela sudurkaritasun ahuleko bokalik entzun, auzia 0 ala 100 artekoa balitz bezala, bitarteko egoerarik gabe. Nik, aldiz, Urdiñarbeko hiztunaren beste adibide bakan batzuetan ez dut argi *h* ondoko bokalean entzuten dudana *h*-aren hotsaren kutsu edo eragina den, ala *h* ondoko bokal horretan entzuten dena halako sudurkaritzea ote den. Belarriz zail da bereizten, gainera, izan ere, hitz baten entzunaldi batean sudurkaritasun kutsua entzuten da, baina adibide beraren hurrenaren entzunaldian ez da hain garden sentitzen. Zalantza

dudan hurranen hitzak ere bokal sudurkaririk gabe dakartza Larrasketek (1939), baina *h-* + bokala sekuentzian kutsu sudurkaria entzuten dut Ur-diñarben hala *h-*an nola ondoko bokalean:

*hāa* «hara» (háa), *hālxax* (haláxe), *hāsi* (hási), *hāxekan* «belar multzo bila» (háxe), *hērrilat* (hérril), *hīlik* (hil) & *hīlak*, *hīu* «hiru» (hiu), *hūñez* «oinez» (húin) –aintzat har bedi ondokoa ere kontsonante sudurkaria dela–

6.5. Euskararen transmisioa etxean bildu zuten adinetako euskaldunen mintzoa biltzen eta aztertzen dut eta oro har iduri luke hauen artean Zuberoan bokalen sudurkaritzea ez dela galdu; heldu eta gazte zuberotarren euskal jardunaz ez dut daturik. Alta, Zuberoa ondoko Amikuze Nafarroa Beherko ibarrean gauzak bestela dira; hau adieraztean ez naiz gazte eta helduen arteko bereizketaz ari. Amikuzen hiztun zaharren artean ere anitzek ez dituzte euskal hitzetako bokalak sudurkari ahoskatzen eta iduri luke ezaugarriaren galera lehendik abiaturik dela. Aldiz, Zuberoan, euskaraz ongi egiten duten ber, adinetako jendeek euskal bokal sudurkariak ahoskatzen dituzte: Pettarreko Ündüreneine edo Ur-diñarbeko euskaldun zaharrekin egotean honela entzun dut.

Amikuzen bokal sudurkari oro *h* ondoan kokatzen da, lehen edo bigarren silaban; ez da Zuberoako *ardū* «ardoa», *hazkū* «azkona», *kharrū* «izotza» erako adibiderik entzuten, ezta *arrathū*, *arraxū*, *sasū* «sasoia» erakorik edo *kamiū* «kamioia», *lehū* «lehoia», *xabū* «xaboia» berriagoen erakorik ere: arestiko adibide guztiak *u* sudurkari azentudunak dira Zuberoan. Adierazi nahi dena da, Amikuzen ez dela entzuten bokal sudurkaririk ondoan *h* ez duenik; bistan dena, *h* hori ere sudurkaria da; horra etsenplu sorta bat:<sup>1</sup>

*āhāl* (Bith, Ost, Mar, Zoha, Arbe) –alta, Zohaztin eta Arbotin *ahāl* entzun uste izan dut; Ostankoan *āhālex* uste dut entzuten dudala– & *in āhāla* (Sor); *āhālge* (Amo); Ilharren ere *ahalge* entzutean susmoa

<sup>1</sup> Hona laburduren berri: Amendüze (Ame), Amorotze (Amo), Arberatze (Arbe), Arboti (Arbo), Arrueta (Arrü), Barta-Oragarre (Barta), Behauze (Behau), Bithiriña (Bith), Donapaleu (Donap), Gabadi (Gab), Gamue (Gam), Ilharre (Ilh), Labetze (Lab), Laphizketa (Laph), Martxueta (Mar), Oragarre (Ora), Ostankoa (Ost), Sorhapürü (Sor), Uhartehiri (Uha), Zohazti (Zoha), Zohota (Zoho).



dut bokal horietan badela sudurkaritasuna, baina ez nago ziur; *āhārdi* (Ora) & *āhārdiak* (Zoho); *āhārran* «eztabaidan, haserrean» (Ame, Zoho); *āhāte* (Ora, Amo, Behau, Ilh, Gab) & *āhāteak* (Ost) & *āhāti-ak* (Arbe); *āhāzten* (Ora, Arbe) & *āhātziak* (Donap); *āhāzpek* (Mar); *āh[ȳ]r* «esku ahurra» (Ame); *aīhēn* (Lab)

*bēhār* (Lab, Ame, Arbe, Sor) & *bēhārra* (Zoho) & *behār* (Lab, Ame) & *bihār* (Gam); *bēhātzen* (Mar, Arbe) & *bēhātuz* (Bith); *bēhī* (Mar, Arbe, Sor) & *bēhīain* (Gam) & *bēhīekin* (Zoho, Arbe) & *bēhīendako* (Donap); *bēhīn* (Donap, Arbe) & *behīn* (Ame); *bēhōr* (Arbe) & *bēhōrreki* (Mar); *belhāun* (Donap); *berrēh[ȳ]n* (Zoho); *bīhī* (Mar) & *bīhīa* (Arbe) & *bīhīain* (Lab)

*ehāiten* «ehotzen» (Arbe); *ēh[ȳ]n* «100» (Ame)

*gehāu* (Lab), *geihēna* (Bith)

*hēskualdunak* (Mar); *hōgei* (Zoho) & *hōei* (Donap); *hōla* (Ame, Zoho) –sakonean *honela* izanik–

*ihīzin* «ehizan» (Lab, Ilh, Donap, Arbo) –baina Donapaleun entzun dut lekuko berarengandik *ihīzin* ere– & *ihīzen* (Zoho) –baita *ihīzen* ere Zohotan– & *ihīzirat* (Laph) & *ihīztari* (Lab) & *ihīzłari* (Zoho, Laph)

*lēhēn* (Bith, Mar, Ame) & *lēhēnik* (Zoho, Sor) & *lēhēnao* (Lab) & *lēhēnau* (Zoho) & *lēhēno* (Arbe) & *lēhēneko* (Donap) & *lehēn* (Gam); *lehērtzen* (Arbe)

*māhāirat* (Sor) & *māhāñak* (Gam) & *māhītrak* «mahaintarak» (Amo); *mahātsa* (Arbe) & *māhasti* (Behau) & *māhastia* (Behau) –honelaxe entzuten ditut–; *mēhē* (Lab); *mīhīseak* (Uha)

*nāhās* (Gam) & *nāhāsten* (Arbe); *nāhī* (Zoho, Arbe) & *nāhīo* (Mar) & *nahī* (Donap, Ame) / *normahī* (Donap); *nēhōr* (Arbe) & *nīhūr e* (Ora) & *nīhūri* (Ame) & *nihūr e* (Amo, Ame) & *nihūekin* (Ame)

*ohētik* (Lab)

*sēhī* (Bith, Mar)

*ūhāl* (Sor); *ūhūre* «ohorea» (Ame) & *ūhūria* (Gam) –honelaxe entzuten dudala uste dut, baina sudurkari gabeko *uhuria* aldaera ere

entzun dut Gamuen; aldiz, Zuberoa mugako Sarrikotapean sudurkari gardena da: *denboan de[ž]ũhũe* «desohore» *handia*–

*xãhãrren* (Arbe); *xãhãtü* (Lab) & *xãhãtze* (Uha) & *xãhãtzen* (Bith)  
–Gamuen *xaatzeko* entzun dut, kutsu sudurkaririk gabe–; *xẽhãtu* (Ost) & *xẽhẽkatiük* (Ame) & *egür xẽhã süiaen phizteko* (Zoha) & *xẽhãk* (Dom)

*zãhãr* (Lab) & *zãhãrrek* (Zoho) & *zahãrraua* (Ame)

Beste sekuentzia batzuetan –ene entzumenaren arabera bederen– bokalen sudurkaritasun kutsua entzuten da, baina ez dirudi aspaldiko bokalarteko *n* haren ondorioa denik: *bẽhãla* (Lab), *behũa* «beroa» (Ame), *bẽhẽxte* (Ame), *ehõtuik* «eroturik» (Ame) adibideetan *vr̥v* → *vr̥hv* → *vhv* bilakabidea dagoela dirudi.

Izenordain hanpatuetan ere bokal sudurkariak entzuten dira:

*nĩhãu* «nihaur, neroni» (Arbe) & *nĩhãur* (Zoho) –baita *nihau* ere (Zoho)– & *nĩhãuk* (Mar, Zoho) & *nĩhau* (Donap) / *gũhãuk* (Donap) & *gũhãuren* (Arbe)

Hurranen adibideetan ere, ene belarriaren arabera bokal sudurkariak izan litezkeenak ez dira bokalarteko *n* baten bilakabidearen emaitza, hitz hasierako *h*- etimologikoaren ondoan daude: halako *rhinoglottophilia*-ren adibideak izan ote litezke? Azterketa fonetiko xeheen bidezko deskribapena beharko litzateke:

*bẽhãtza* (Bith)

*hãgan* (Donap), *hãin* «haren» (Donap, Zoho), *hãinbeste* (Ame), *hãk* «hark» (Donap, Ame), *hãmabi* (Donap), *hãmar* (Donap, Ame, Zoho), *hãn* (Donap, Ame, Zoho), *hãrgingoan* (Donap), *hãri* erakusle datiboa (Ame), *hãrtzen* (Ame), *hãsi* (Ame) & *hãste* (Zoho), *hãtzeman* (Lab), *hãu* (Donap, Zoho), *hãurrak* (Zoho), *hãxeka* (Donap), *hãzitakua* (Mar), *hẽa* «ea» (Ame), *hẽek* «haiek» (Ame, Zoho) & *hẽk* (Donap, Mar) & *hẽẽtan* «haietan» (Mar), *hẽldü* (Ame, Zoho), *hẽmen* (Lab) & *hẽn* «hemen» (Donap, Ame), *hẽrri* (Ame, Zoho), *hĩgatzen* (Ame), *hĩl* (Ame), *hĩrüerren* (Ame), *hõin* «hain» (Donap), *hõri* (Zoho) & *hõi* (Donap), *hõrrekin* (Ame), *hõtza* (Donap)

Hondarreko urteotan Amikuzeko ahoskera entzuten jardun dudanean, irudipena dut ( $\tilde{v})\tilde{h})\tilde{v}$ ) eredu edo sekuentzia nagusi dela. Iruditzen zait ( $\tilde{v})\tilde{h})\tilde{v}$ )  $\tilde{v}$ ) katea fonikoaren adibide gehiago entzuten ditudala ( $\tilde{v})\tilde{h})\tilde{v}$ )  $\tilde{v}$ ) ereduarenak baino, alegia, ondoan ( $\tilde{h})$ ) duten bi bokaletarik hasperendua bakarra denean, eskuinekoa izan ohi dela kasu gehiagotan ezkerrekoa baino. Jakina, hau ene belarriaren irudipen inpresionista da, ez da tresna objektiboek neurtu dutena.

Euskal hitzetan beste egoera berezi batzuetan ere ageri da bokal sudurkaria Amikuzen, baina honelako adibide bereziak arras bakan entzun ditut:

*uai kanþuan tzi behiekĩ (Arbe)*

*esniaikĩ (Arbe)*

*edo Arbaatzen duk, edo Domixĩ, ta uai Domixĩentik heldũ zakiuk hunat (Zoho)*

Itxaron litekeenez, Donapaleuko kantonamenduko Zuberoako herrietan ere bokal sudurkarien adibideak agertu dira euskarazko hitzetan:

*ãhãtiak, ihĩzłari, xẽhẽkatzen (Berroeta)*

*ãhãl, ãhãrra, ãhãtzi, ãhĩzpa, behãr, bẽhĩak, bẽhĩn, hãn, hãxot, ihĩzen, lẽhẽno, mãhãñen, nihãundako, nihũ e «inor ere», oihãl, oihãn, sẽhĩaiki, xãhãtũ & xãhãtzen, zãhãr, zernahĩ (Olhaibi)*

Iruditu zait Olhaibin *mĩñsen txiũtzeko* entzuten dudala, baina bi *i* horien sudurkaritasunaz ene zalantza dut; bego honela.

Zuberoan barnago sartuz bezala bokal sudurkarien agerpena areagotuz doa:<sup>2</sup>

*ãhãl (Oih), aharratzen (Oih), ãhãtzi (Oih), bẽhãr (Sarkp, Pag), bẽhẽtũ (Pag), bẽhẽx «bereiz» (Pag), bẽhĩ (Sarkp, Oih, Pag), bẽhĩn (Sarkp), bẽhõr (Pag) & bõhõr (Sarkp, Oih), belhãiko «belauniko» (Oih), bõhãme «ijittoa» (Pag), ehãiten (Oih, Pag), eihẽa «eihera, errota» (Sarkp), ihĩztaiak (Pag), kamiũ (Oih), lẽhẽn (Sarkp, Oih, Pag), lẽhẽr (Oih), mãhãtsa (Pag), mẽhẽxi (Oih), nãhãs (Sarkp, Oih, Pag),*

<sup>2</sup> Hona laburduren berri: Oihergi (Oih), Pagola (Pag), Sarrikotapea (Sarkp).

*nāhī* (Oih, Pag), *nīhāuk* (Pag), *oihāl* (Pag), *ōihān* (Oih), *sa[ʒ]ū* (Pag),  
*txān* «xehean» (Pag), *ūhūñ* «ohoina, ebaslea» (Pag), *xāhār* (Sarkp,  
 Oih), *xā* (Oih), *zāhār* (Oih), *zīhāuk* «zuhaurek» (Pag), *zūren* (Oih)

Hurranen etsenplu Zuberoakoak, ordea, ez dira *h* artekoak, *h* ondokoak dira:

*hāla* (Pag), *hān* (Sarkp), *hāndi* (Sarkp), *hānitx* (Oih, Pag), *hāsi*  
 (Pag), *hēben* «hemen» (Sarkp, Pag) & *hēn* (Sarkp) & *hēn* (Sarkp),  
*hēēxa* «herexa, arrastoa» (Sarkp), *hūu* «hiru» (Pag), *hūñez* (Oih, Pag)

## 7. Atal gehiago ahoskeraz

7.1. Ekialdeko euskalkiez dihardugunean eta bokalen arteko seigarren fonema *ū* aipatzen dugunean, Zuberoako adibideak eta bilakabideak herrialde horretan dituen kokagune-baldintzak datozkigu gogora, baina Amikuzen eta Lapurdi saihetseko Bardozen ere euskal hitzetan *ū* ibiltzen da; agerpen edo kokagune baldintzak desberdinak dira Zuberoakoekiko bi alderdi haue-tan; bestalde, Amikuzekoak eta Bardozekoak ere ez dira berdinak; cf. Lafon (1937, 1962). Bardozen «zalantzatia» da *ū*-ren agerpena; cf. Encinar (2008, 386-389); Amikuzeko *ū*-z ikus Camino (2016).

Gauza ezaguna da Amikuzeko herri batzuetan euskal hitzetan *ū* ahoska-tzen dela eta beste batzuetan ez dela egiten; esate batera, Oragarren, Amoro-tzen, Ostankoan, Bithiriñan edo Uhartehirin guk ez dugu entzun. Ezagu-tzen ez genuena da, *ū* egiten den eta egiten ez den herrien arteko geografia-mugaren inguruko herri bateko hiztun batek, kasu honetan leku-ko martxuetar batek, kokagune edo hitz berean aldi batzuetan *ū* egin deza-keela eta beste batzuetan *u* egin dezakeela, halako aldakortasun librea ba-lege bezala. Adibide sorta honetan garbi ageri da:

*bakizu* / *extukezū*  
*duun* & *duula* / *dūūina*  
*emazu* / *emazū*  
*gitzu* / *gitzū*  
*gu* / *gū*  
*hiru* / *hirū*

*bauzu* / *bauzū* & *behauzū* / *baiūzū*  
*etzu* «ez duzu, ez da» / *etzū*  
*gintzun* / *gintzūn*  
*gue* & *gure* / *gūe* & *gūre*  
*hamahiru* / *bizpahirū*

*nuzu / nüzü*  
*tzu* «dituzu, dira» / *tzü*                      *tzitzun* «zituzun, ziren» / *zitzüin*  
*uzu / üzü / üzü / bauzü*  
*zun* «zuzun, zen» & *tzun / zün* & *tzün*    *bazu<sup>n</sup>* «bazuzun, bazen» / *bazün*  
*etzun* «ez zuzun, ez zen» / *etzün*

Arestiko aldaerak elkarrizketa berean ahoskatu dituen lekuko martxuetarrak Gamuekoa du senarra, hau da, euskal hitzetan *ü* ahoskatzen den ondoko herri batekoa; senarrak *ü*-ak Amikuzen ohikoa den eran egiten ditu. Ene ustez, lekuko martxuetarrak fonema honetan fluktuazio hau agertzea ez dagokio Hegoaldeko ikertzailearen presentziari, haren senarra ere elkarrizketan baitzen eta biak txandaka mintzatu ziren, askatasun osoz eta goxoan, giro guztiz atseginean. Uste dut arrazoia geografikoa dela, lekuko martxuetarra *ü* egiten den eta ez den herrien arteko mugakoa izateari egotziko nioke nik fluktuazioaren azalpena.

Berebat, Zuberota ondoko Arbotiko gure lekuko bietarik batek usu ahoskatzen du *gu*, baina *gü* ere ematen du; aldiz, ondotik *r* duen *güre* egiten du grabazioan ageri den adibide orotan.

7.2. Geografia-espazioa dela eta, adieraz dezadan Oragarreko auzo Bartako lekukoak ez duela *ü* palatalik ahoskatzen, guztiak *u* egiten dituela; alta, Koldo Artolak *ü* batzuk dakartza Bartako adizki laguntzaile batzuetan, *u*-i sekuentzian: *zauküian* «zitzaiguan + ziguan», *zauzküian* «zitzaizkiguan»; bestalde, *nintüian* & *nintiüian* «hark ni» «nindian» toka ere aipa daiteke. Badakigu Oragarreko auzo den gunen horretan gaskoiak agerpen handia duela: badira familia gaskoiak eta badira gaskoia dakiten euskaldunak ere. Akamarre, Bidaxune, Bardoze, Gixune herrien ondoan bizi dira bartarrak eta egungo egunak artean gaskoiaren presentzia handia izan da eskualdean. Bartarrek euskaraz *ü* fonema ez ahoskatzeko balizko bi arrazoi dakuskigu; lehena Oragarreko auzo hau berria izatea, bestela esan, bertako jende euskaldun nahiz gaskoiak bertan aspaldikoak ez izatea eta beraz, Amikuzen *ü*-k duen sarbide historiko-geografiko eta gizartezkoarekin lotura zuzenik ez ukaitea. Bigarrenik, Lapurdiko Hazparne Oragarreko auzo Bartatik hurbil egotea, hiri hori merkatugune, sos eta lan iturria izan den aldetik. Hazparne hiritik inguruko herrixketara hondarreko mendeetan hainbat hazpandar euskaldunek bizitzera jo dukete eta hain segur, ukan duke honek ere hiz-

kuntzaren aldetik ondorioa. Amikuze inguruko *ü* fonemari aurre egin dioke Hazparnek, hiri honetan euskal lexikoan ez baita *ü* ibiltzen. Aldiz, Koldo Artolak Bartan bildu adizkietako *ui* kateko *üi* palatalizazioa ez da morfonologiako bilakabide ezezaguna hitzaren bukaeran Hazparne hirian.

7.3. Larribarreko hiztun batek ama Zuberoako Arüekoa zuen eta aita bearnesa; Arüe *u* eta *ü* fonemak bereizten diren herria da eta alde horretatik ez da harritzeko haren semeak euskal hitzetan ere *ü* ahoskatzea edo *u* eta *ü* bereiztea. Koldo Artolaren arabera (in Irizar 2002, 22) Larribarren ez omen da *ü*-rik euskal hitzetan, baina dudan grabazioan lekuko honek ahoskatzen du eta haren adiskide larribartar batek ere bai. Ez dute *ü* egiten beste amikuztar batzuek bezainbat, hitz frankotan ez dute egiten. Ba ote da halako mekanismo bat haien gogoan, intuitiboki ala oharkabean batzuetan *ü* ahoskarazten diena eta beste batzuetan ez? Bada honelako zerbait, izan ere, elkarriketan lekuko bat erneago dagoen uneetan, *ü* gehiago ahoskatzen du. Ezagutu dugu larribartar bat adierazi diguna herrian ez dela *ü* egiten. Bestalde, ama larribartarraren alaba bithirindar adinekoak ere ezagutu ditugu, ez dutenak *ü* egiten, baina Bithiriñan ohikoa da fonema hau ez ahoskatzea.

7.4. Muga lektalen inguruneetan ahoskerak zenbateko garrantzia duen aise da ikusten, mugaren alde batean ala bestean gauden ahoskerak axola du, sistema bata ala bestea aktibatzen baita, nahiz honek ez duen esan nahi eskualde horietan elkarreteragina, nahasketa eta delako *interdialect* gertakaririk ageri ez denik. Arüe Nafarroa Behereko Amikuzeko eta Zuberoako euskararen muga-mugako herria da, alderdi bateko eta besteko ezaugarriak ageri dira arüetarren mintzoan. Arüeko lekukoa anaiarekin eta beste arüetar batekin etxean zegoela egin genuen harekin elkarriketa luzea, bi herriar horien aitzinean Arüeko bereko euskara aiseago eginen zuelakoan, *the observer's paradox* delakoa ahalaz saihestu nahirik: lekukoari etxera Arüez kanpoko ezezagun zenbait sartu zaio euskaraz mintzatze hutsera, eta egoera hori kudeatu behar du. Hurranen pasartean lekukoa eni mintzo zaidala ageri da, baina halako batean anaiak ere parte hartzen du elkarriketan eta honek eman aldaera bera ematen dit lekukoak ondotik eni, hain zuzen ere hasieran enekin aritzean eman ez bezalako: milisegundu batean *gau* → *gai* aldaketa egin du: [arto xuritzea] *etxe atetaik bestila, gü bezala g... gaur zü-*

*kezün ta beste etxin beste gau atez eta hola* [anaiak] *gai ooç* [eta enekin ari zen lekukoak, arrebak, baieztatuz jarraitzen du] *gai ooç...*

7.5. Zuberoako Pagola herrian polimorfismo fonikoaren adibidea ageri zaigu: Zuberoa, Oztibarre eta Amikuzeko muga-mugako herria da eta ahoskera bidialektala entzun daiteke pagolarrengandik; Arüe, Sarrikotapea eta Oihergi herrixketan ere gertakari iduriak ditugu. Hurranen adibidean Pagolako elkarrizketako atal bat dakargu; ageri denez, zuberotarren [ʒ] eta baxenabartarren [j] hotsak txandaka ageri dira:

bõ, bixtan dena, gü Xubealat [ʒ]un eta bethi atzamaiten tzeiküzien difeentzia, bethi, gü bethi, Xubealat [ʒ]un eta manexak güntützün, manexeat [ʒ]un eta xubeataarrak, ükhen dizüü bethi... mintza[ʒ]e lifeent pat, amiñi at bietan nãhãsteka, nãhãsteka, zeen eta Xubeatik [j]in düzü [ʒ]ente, [j]in düzü Oztibarretik e bai, han e eztizie *tout à fait* ber mintza[ʒ]ia, *voilà*, nãhãsteka amiñi bat, bai

Jakin nahi dugu pagolarrek Zuberoara jotzean ea beren mintzoa hangorat lerrarazten ote duten eta lekukoak ezetz diosku, herrian bezala mintzo zirela han ere:

ber gaiza, bai, ba, bai; ez, ez, bate, ez, ez, bate, ez, ez, ez, hartako zeiküzien erraiten «manexinak» edo hola; gio joaiten nüntzün berdin eta Donaplülát, xerbütü itea, kafe batzütaa, Donaplüeko bestetako edo merkhatü...ietako, ordian berriz han erraiten tzeitazien, bõ, ni Xubeatik heldü nintzala, ta bõ, enündüzün 'Xubeatik jiten, bena (...)

7.6. Hizkuntza erkidego bera bi estaturen administrazio esparru banatan bizitzeak desberdintasunak eta berrikuntzak eragin ditzake erkidego bakar horren mintzoan; eman dezagun, Ipar Katalunian eta Ipar Euskal Herrian hiztun gazteek dardarkari ubularra ahoskatzen dute katalanez eta euskaraz dihardutenean, baina dardarkari hori hobikaria da Hego Katalunian eta Hego Euskal Herrian. Hau da *grosso modo* egoera, baina gertakari bakoitzaren barrenean badira mailak, ñabardurak eta erritmo bereziak.

Etsenplu bat eman dezagun: badira adinetako euskal hiztun ipartarrak egun ere dardarkari hobikaria ahoskatzen dutenak, Hegoaldekoak balira bezala eta badira bestalde, haur denboran euskal dardarkari hobikaria ongi ematen zuten hiztunak, ondotik frantsesaren dardarkari ubularra ahoska-

tzen ikasi dutenak; egungo egunean adinetako euskaldun ipartar horiek euskaraz dihardutenean, bata ala bestea ahoskatzeko gai dira, baina ez da sakon aztertu zinez zer gertatzen den eta nola jokatzeko duten. Soziolinguistikaren alderditik ez da auzi makala, baina aldagai hau euskaraz aztertu gabe dago. Mintza gaitezen ahoan bilorik gabe: zerk eragiten dio Amikuzeko hiztun adinetako bati euskaraz Hego Euskal Herriko batekin diharduenean dardarkari ubularra baliatzea, garbi dakigularik haur denboran lagun horrek bazekiela dardarkari hobikaria ahoskatzen eta oraino ere euskaraz ahoska dezakeela?

Euskaldun bat Parisen edo Lourdesen urte batzuez sehi egon izanak ez du osoki bermatzen edo justifikatzen egun euskaraz diharduenean hiztun horrek dardarkari ubularra baliatzea. Badira honelako kasuak, baina baita salbuespenak ere. Hots ubullarrera lerratu dira guk ezagutu ditugun zenbait lekuko: Gabadi eta Ostankoako lekukoak, Parisen sehi egonak; Laphizketakoa, Lourdesen sehi egona; baita honen emazte berroetarra ere, Lourdesen egon ez bada ere. Bithiriñako lekukoa ez da inon sehi egon, baina hots ubularra baliatzen du euskaraz; haur denborako eskola ote da eragilea? Donapaleuko lekukoak aita-amak herri ttiketakoak zituen, ama garaztarra gainera, eta hots ubularra ahoskatzen du; euskaldun hiritarra izanik, nahiz beti baserriko lanetik bizi izana, uler liteke frantsesaren presio handia bildu duela luzaz. Eta Gamue, Ilharre, Sarrikota edo Domintxainen ere entzun dugu lekukoengandik hots ubularra.

Uler bedi ez gairela ukatzen ari frantsesaren prestigioak eragin dezakeela euskaraz ere hots ubularra ahoskatzea, baina prestigioa arrazoi absolututzat saltzen badugu, nola ulertzen da beste hainbat euskaldun ipartar adinetakok oraindik euskaraz dardarkari hobikaria ahoskatzen jarraitzea? Jokoaren teoria honetan dardarkari hobikariari halako euskal baserri kutsu zenbait itsatsiko litzaioke, ala?

Oragarre herri euskalduntzat sal geniezaioke Hego Euskal Herriko nornahiri arazo handirik gabe, baina ez da guztizko egia; herri honetan ez da 40-45 urte inguruko jende erdaldunik falta, *ergo...* frantsesak indar handia hartu du Oragarren. Halaz ere, Parisen sehi egon zen emazteki oragarren batek naturaltasun osoz ahoskatzen du dardarkari hobikaria enekiko elka-



rrizketan Behauzen; elkarrizketan gurekin batean den haren senar behauz-tarrak ere hobikaria ahoskatzen du: ez dago hots ubularraren herexarik.

7.7. Desberdina da Zuberoan gertatu dena. 1840tik honat sortu belau-naldi guztiek osoki galdu dute bokalarteko ttak edo *r* kontsonantea ahoska-tzea eta horren ondorioz gertatu da hainbat zuberotarrek dardarkaria beha-rrean ttak ahoskatzea: cf. *beria* «berria» (Etxarri), *heria* «herria» (Etxarri) & *herietan* (Ainharbe), *izigari* (Ainharbe)... Eta alderantzizkoa ere gertatzen da bokal artean Zuberoan: *r* beharrean *rr* dardarkaria baliatzen dute *hirru* «hiru» (Pag), *hurra* «ura» (Arüe, Oih, Ainharbe), *orro* «oro» (Arüe, Sarkp, Oih, Pag), *Xüberroan* (Sarkp) hitzetan.

7.8. Alderdi fonikoan anitz gertatzen diren aldetik, berrikuntzek sekula-ko lotura dute ahoskerarekin. Arberoa ibarreko Mehaine herriko lekuko batek zioenez, lehenago berak beti *ezarten* aldaera ibiltzen zuen, baina orain *ezartzen* baliatzen du: *orai uste dut ezartzen untsa dela*; euskara zuzena-goia deritzo bederen. Sakonean ohiko gertakaria dugu: zenbatenaz gehiago entzun, hainbatenaz behartzenago dute aldaera berriek lekukoa era berria baliatzera, handia baita presioa eta oharkabean bezala –gizarte-jarduna bai-ta hizkuntza–, arrastora sarturik aldaera berria baliatzen hasten da; aldaera berriaren agerpen-maiztasuna areagotuz bezala, presio handiagoa gertatzen da berriaren alde. Hasieran ondorioa zena arrazoi eragile ere bihurtzen da geroago: berrikuntzaren arrazoiek eta ondorioek elkar elikatzen dute.

7.9. Aipatu dugun *rten* → *rtzen* berrikuntzak bere ñabardurak ageri ditu Zuberoako mugako Nafarroa Behereko herrietan, hauetan *rz* kontsonante tal-dea gordetzen baita oraino, horregatik, Sorhapürü herrian *r* ondoko txistukaria igurzkaria da eta ez afrikatua, *erorzen* eta *ezarzen* adibide berriak entzun ditugu. Hauen kide dira eskualdeko aldaera ez afrikatu gehiago ere: *borxaz*, *marxo* / *sagarze*, *sorzex*, *-tarziin*, *urzo*, *zorzi*... Laphizketakoa da *zeRzeat* «zertzera».

## 8. Ahoskera gramatikari itsatsirik

8.1. *Guiristinho Perfeccioniaren Pratica*... edo Nafarroa Behereko 1782ko *Alphonsa Rodriguez* euskal testu itzulian \**iron* aditzaren zuketako *zirozugu*

«dezakegu» aldaera behin ageri da, baina honen kideztat har dezakegun *ziroguzu* «dezakegu», berriz, hamabi aldiz; argi da adizkia bera dela, baina aldea dago morfemen kokagunean: lehenean subjektuaren morfema datibo etikoaren morfemaren ondotik doa, baina bigarreanean aitzinean ageri da. Lehen pertsona aktibo singularretik pluralera morfemen hurrenkera aldatzen dela erakusten digute *Pratica*-ko honako aldaerek: *dakit* → *ziakizut*, baina *dakigu* → *ziakiguzu*, ez \*\*«ziakizugu». Alta, Zuberoan Emmanuel Intxauspek *zu* + *gu* hurrenkera dakar 1856an: *édan dezakezúgu* «edan dezakegu» dago Sen Mathiuren ebanjelioan (111).

Honekin loturik dago egungo egunean Amikuzen entzuten den txandaketa morfologiko bat, izan ere zuketako «dugu» adizkia *dizü* edo *dizü* izan baitaiteke, baina baita *diüzi* edo *diüzi* ere; zinez, batzuetan ez da aise bereiztea lekukoak dioena lehen aldaera ala bigarrena den. Idatzizkoan aise ikusten da morfemen kokagunea, baina belarriz entzutean adibide batzuk lauso eta ilunak dira. Berez morfologia diakronikoko auzia dena ahoskera eta entzumen auzi bilakatzen zaio datu biltzen diharduenari.

Egungo Oragarren *ordian guk eztiuzu denak untsa konprenitzen* bildu dut, non badirudien *gu* morfema *zu* morfemaren aitzinean dela; egun Sorhapürün *horxetan badüzi arbole at* entzun dugu, *gu* morfemaren *u* bokala palatalizaturik, Nafarroa Beherean ohi bezala. Argi denez, zuketan bilakabide fonikoak gertatu dira; *u* bokalaren palatalizazioa dago *dizu* > *dizi* bezalakoetan eta hartara, ulertu beharko genuke 1782ko *Pratica*-ko *diüzi* «dugu» emaitzan –sakonean *diguzu* ez baldin badago–, *dizugu* > *dizü* > *diüzi* metatesia gertatu dela.

Oragarren, arestian aipatu dugun hiztun horrek berak emana da *hori ein dizü hoi urthez*, osagarri pluralaren komunztadura gorabehera arestiko *eztiuzu* horren eduki bera dirudiena, baina morfemen hurrenkera aldaturik. Gabadin entzun dugu «*so<sup>h</sup>alla*» *erten dizü*; Arbotin *badüzi gük e hua*; Larribarren *eman dizü memento goxoik, ba, ba*; Berroetan *gühaurek iten dizü*. Zohaztin osagarri plurala duela: *gühaurek ikhasi titzü*.

8.2. *Joan* aditzaren aldaera trinkoetako txandaketak ere, bokal bata ala bestea agertzeak, ahoskera auzi bat sortzen digu: *diazü* «doa» & *doazü*, bi aldaerak entzuten dira oraineko hirugarren pertsonan zuketan, nahiz *i* nagusitzen den Amikuzen:

*han estekatzen tzi behorra ta badiazu beste laun batekin, eta, eatea*  
(Oragarre)  
*bi artho-xurizale badiatzu* (Oragarre)  
*hau askalduik badiazu* (Amorotze)  
*bethi badiazu bat bestiaikin* (Donapaula)

Hurranen adibidean lehen pertsonari dagokio adizkia:

*Amiketat baniazü... ni hamar urthendako baniazü; aitag erran tzatan*  
*hau: «hi bahoia hamar urthendako, hoei urthe eoin hiz»* (Behauze)

Aldiz, Zuberoako muga ondoko Arboti herriko adibide hauetan *o* ageri da:

*gü bagoatzü, bena jendea etzü juiten* (Arboti)  
*bidia har eta denak batian baotzü ardiak bezala* (Arboti)

Hain zuzen ere, Zuberoan Intxauspek *joan* aditzean dakarren sisteman *goätzü* eta *doätzü* ditugu, *o*-dunak (1858: 446). Ezaugarri honetan Nafarroa Behereko Amikuzeko Arboti xiberotarren *o* ereduari lotua da.

8.3. Adizki batzuetan monoptongazioak gauzatu direlako —ez dirudi *liteke* → *leteke* balizko bokal asimilazioa gertatu delako denik—, txandaketa bokalikoa ageri da \**edin*-en adizkietan Amikuzen eta *leteke* & *litake* vs. *leteke* eskema ageri zaigu; hiru adizkiak entzun daitezke eskualdeko hiztunen ahotik. Lüküzén *leteke* ageri da eta baita iraganeko adibide *phestak zezteken segürra han* ere. Amendüzen, berriz, *uai eneteke kapable* eta *zakhur batek bizpahirü hil ta han anbalatü zetekenex* «zatekeenez» perpausak entzun ditugu; Arbotin *enetekezü* eta Donapaleun *letekela*. Amikuzeko Gabadira ezkondu pagolar batek *erran leteke* aldaera eman du.

Ez da asimilazio baten kontua bezain ximplea, eman dezagun: *liteke* → *leteke*. Ondoko Zuberoan *leteke* dagoenez, pentsa genezake bereizketa hau zatiketa zahar baten emaitza dela: *lediteke* → *leteke* → *leteke* monoptongazioa alde batetik eta *lediteke* → *leteke* → *liteke* monoptongazioa bestetik. Batera ala bestera gertatu, morfologiaren eraikuntzatik abiatzen den egitura batean monoptongazio fonikoak emaitza desberdinak eragin ditu euskal geografian eta auzia ahoskeraren jokalekura ekarri du; ez dakigu historikoki bilakabide bakoitza zein garaitakoa den, baina *leteke* erako aldaerak ez dira testuetan ageri; berrixkoak direlako ote da?

## Bibliografia

Alberdi, A., 2014, *Ahoskera*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

Bonaparte, L.-L., 1991 [1869], *Le verbe basque en tableaux*, in *Opera Omnia Vasconice I*, Bilbo, Euskaltzaindia, 175-442.

Camino, I., 2016, *Amikiuze eskualdeko <sup>h</sup>eskuara. Mendaur bilduma 11*, Bilbao, Euskaltzaindia (Argitaratzen).

Coyos, J.-B., 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles. Une approche de l'ergativité*, Paris, L'Harmattan.

Charritton, P., 1984, *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*, Donostia, Elkar.

Egurtzegi, A., 2014, *Towards a phonetically grounded phonology of Basque*, UPV/EHU-ko doktoretza tesi argitaragabea.

Elordieta, G., 2012, «Euskal azentu eta intonazioari buruzko ikerketa: *status quaestionis*», in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren II. biltzarra*, Gasteiz, UPV/EHU, 389-428.

Encinar, K., 2008, «Lapurdiko Aturriko euskara: Bardozeko *ü* bokalaz», *Euskera* 53/2, 383-395.

Epelde, I., 2012, «Lapurdiko itsasegiko euskararen ahoskera: Donibane Lohizune», in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren II. biltzarra*, Gasteiz, UPV/EHU, 307-321.

——— & O. Jauregi, 2011, «Bokal sudurkariak tentatzen», in A. Sagarna, J. A. Lakarra & P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Iker 26, Bilbo, Euskaltzaindia, 973-988.

Etxebarria, M., 1987, «Iniciación a la fonética acústica», *ASJU* 21/2, 475-514.

Etxebarria, P., 1992, «Euskal Ebakeraren zertzeladak», *Ele* 11-12, 169-178.

Gaminde, I., 1993, «Bizkaiko azentu-motei buruz», *Uztaro* 7, 111-140.

———, 1995a, *Bizkaieraren azentu-moldeez*, Bilbo, Labayru.

———, 1995b, «Zubereraren azentuaz», *Uztaro* 13, 107-128.

———, 1995c, «Gipuzkeraren azentuaren azterketa akustikoa», *FLV* 69, 297-321.

- , 1996, «Azentu bariazioa Gipuzkoan», *FLV* 73, 361-385.
- , 1999, *Euskaldunen azentuak*, Bilbo, Labayru.
- , 2005, «Euskara batuaren azentuaz», in P. Etxebarria & H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun*, Iker 17, Bilbo, Euskaltzaindia, 257-272.
- & J. I. Hualde, 1995, «Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa», *ASJU* 29/1, 175-197.
- , G. Aurrekoetxea, A. Etxebarria, U. Garay & A. Romero, 2014, *Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak*, Bilbo, UPV/EHU.
- Garmendia, L., 2008, «Hizkuntza aldakortasuna Zaldibian: ikuspegi soziolinguistikoa», in Iker 19, *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XV. biltzarra*, Bilbo, Euskaltzaindia, 101-111.
- Haritschelhar, J., 1963, «Textes folkloriques de la vallée de Baigorri», in *Actas del tercer congreso internacional de estudios pirenaicos*, Gerona, 1958, Instituto de Estudios Pirenaicos & CSIC, 51-73.
- Hiriart-Urruti, J., 2004, *Ni kazeta-egilea naiz*, X. Altzibarren edizioa, Bilbo, Labayru.
- Hooper, J. B., 1976, *An introduction to natural generative phonology*, New York, Academic Press, INC.
- Hualde, J. I., 1988, «A theory of pitch-accent, with particular attention to Basque», *ASJU* 22/3, 915-919.
- , 1993a, «Topics in Souletin Phonology», in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*, Amsterdam-Philadelphia, Benjamins, 289-327.
- , 1993b, «Observaciones acerca de los sistemas acentuales de la zona occidental de Gipuzkoa», *ASJU* 27/1, 241-263.
- , 1998, *Euskararen azentuerak*, *ASJU*-ren gehigarriak 42, Bilbo & Donostia, UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- , 2014, *Los sonidos del español*, Cambridge, CUP.
- , 2015, «Basque as an extinct language», in B. Fernández & P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre*, Bilbo, UPV/EHU, 319-326.

Hurch, B., 1988, «Is Basque a syllable-timed language?», *ASJU* 22/3, 813-825.

———, 1989, «Raíces de la fonología: pensadores preestructuralistas», *ASJU* 23/1, 95-113.

——— & M. L. Oñederra, 1988, «Azterketa fonologikoaren inguruko gogoetak: fonema», *ASJU* 22/1, 213-231.

Hyman, L. M., 1981 [1975], *Fonología. Teoría y análisis*, Madril, Paraninfo.

Igartua, I., 2008, «La aspiración de origen nasal en la evolución fonológica del euskera: un caso de *rhinoglottophilia*», *ASJU* 42/1, 171-89.

Intxauspe, E., 1991 [1856], *Jesus-Kristen ebanjelio saintia Sen Mathiuren arauéira*, in L. L. Bonaparte, *Opera omnia vasconica* III, Bilbo, Euskaltzaindia, 161-243.

———, 1979 [1858], *Le verbe basque*, Donostia, Hordago.

Irizar, P., 2002, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental*, Bilbo, UPV/EHU & Euskaltzaindia.

Izagirre, K., 1959, 1961, «Erronkariko euskal-ondakin batzuk», *BAP* 15, 279-314. *BAP* 17, 391-407.

Jauregi, O., 2012, «Ba ote dago euskal dialektoen arteko *continuum*-ik tipologia prosodikoaren ikuspegitik?», in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren II. biltzarra*, Gasteiz, UPV/EHU, 323-336.

———, 2015, «Euskarazko silaba egiturak zen.ba.tzen», in M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zertzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Bilbo, UPV/EHU, 325-336.

——— & I. Epelde, 2011, «Bokal sudurkariak gaurko lapurteran», *Lapurdum* 15, 29-42.

——— & ———, 2013, «Hasperenaren galera Iparraldeko euskararen», in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren III. biltzarra*, Gasteiz, UPV/EHU, 245-262.

Kintana, X., 1992, «Batasunerako pausoak gogoratuz», *Ele* 11-12, 23-49.

Labov, W., 1972, *Sociolinguistic patterns*, Philadelphia, University of Pennsylvania Press.

Lafon, R., 1937, «Tendance a la palatalisation de la sonante *u* dans les parlers basques du nord-est», *RLR* 13, 73-82.

Auer-ek (2005: 8) jasotzen du estandarraren funtzionaltasuna: (1) eremu zabal baten hizkera komuna da (eremu horren barruan aldaera geografikoak ere hartzen dituena), (2) eskolan irakatsitako eta eremu publikoetan erabiltzeko aldaera funtzionala da, bereziki idatzirako eta testuinguru formaletan erabiltzekoa, (3) aldaera kodetua da, betiere kodetze-lan instituzional bat ez badago ere. Auer-ek bildutako ezaugarriok maila handiagoan edo txikiagoan betetzen dira hizkuntzetan zehar: estandartasuna, beraz, mailakatu daitekeen nozio soziolinguistikoa dela esan daiteke (Auer & Spiekerman, 2011: 164).

Gradualtasun hori ondo lotzen da, Roeland van Hout (2014) hizkuntzariak eskaintzen digun estandarraren ikuspegiarekin. Bere hitzak itzuliaz: hizkuntza estandar prototipikoa bizia da (*vital*); alegia, elkarteko gehienek erabiltzen dute formaltasuna eta neutrotasuna dagokien egoera guztietan eta estandarra da erabili egiten den neurrian.

<sup>1</sup> Gaminde et al.ek (2014) euskara batua eta estandarra bereiztea proposatzen dute, eta haien lanean proposamenak egiteko orduan «euskara estandarraz» ari direla diote, euskara batuari buruzko proposamenak Euskaltzaindiari dagozkiola argudiatzen dutelarik. Guk, berriz, ez dugu uste euskara batuaren eta euskara estandarraren artean bereizkuntza ontologikorik dagoenik. Euskara batua eremu geografiko jakin bati ez dagokion aldaeratzat har daiteke gaur egun. Batua testuinguru zainduetan ez ezik, beste hainbat testuingurutan ere jazo daiteke (familiar, lagunartean, etab.) eta testuinguru horietan guztietan erabiltzeko erregistroak garatzen ari da (lagunartekoa barne). Baina hori batuaren (edo estandarraren) garapen soziolinguistikoa da. Edozein estandar, erabilia den neurrian, aldatuz joango da diakronikoki bai ardatz geografikoan, bai ardatz estilistikoan. *Batua* da, beraz, hemen estandarrari eman zaion izena.

Aurreko atalean esan bezala, estandarren erabilera ez da idatzia bakarrik: oso maiz aldaera estandar hori ahoskatu egin behar da. Testuinguru horretan kokatu behar dira EBAZ arauak eta hemendik aurrerako estandar-tzearen inguruko gure lana. Ahozko estandarren ezaugarritze honetan garrantzitsu iruditzen zaigu hurrengo bi ideietatik abiatzea:

- a) Estandarrak ez du zertan bat eta bakarra izan. Estandarren uniformetasunaren auziak eztabaida oparoa izan du soziolinguistikan. Milroy & Milroyk (2012 [1985]) aldagaiztat hartzen dute estandarra eta erabateko uniformetasun hori kritikatzeko du Milroyk (2006: 133) ere, «estandarren ideologia» salatzen duenean. Beste soziolinguista batzuek, berriz, estandarren kontzeptu malgua defendatzen dute eta azpiestandar geografiko (Grondelaers & van Hout, 2011) zein funtzionalak (Auer, 2005, 2011) bereiz daitezkeela diote. Gure proposamenak bigarren ikusmolde horrekin egiten du bat. Euskarari buruzko lanetan ere, bereziki aintzat hartzen ditugu batuari izaera aldakorra aitortzen diotenak, ardatz geografiko (Zuazo, 2000, 2005; Camino, 2005) zein funtzionalean (Elordui & Zabala, 2009).
- b) Estandarren kontzeptualizazioan bereziki saihestu behar dugu Milroy & Milroy-k (2012 [1985]) estandarren ideologiaren gehiegikerien artean ematen dutena: estandarra garbia, zuzena (edo aukera zuzen bakarra) izatearekin lotzea; euskararen kasuan sarritan «jatorra» izan ohi da aipatzen dena. Ona da euskara batuak prestigioa izatea eta nahi genuke ahozkoa ere prestigiodun gertatzea, baina euskararen gainerako aldaera geografiko eta funtzionalei prestigiorik kendu gabe. Estandar/ez-estandarren inguruko gizarte-ebaluazioaz diharduten hainbat ikerlarirekin (besteak beste, Coupland, 2009; Kristiansen, 2009; Kristiansen & Coupland, 2011) bat egiten dugu soziolinguistika bariasionistak «estandarra»ren eta «prestigio»aren artean sortu duen lotura kaltegarri eta sinplista kritikatzeko dutenean.

Autore horiek agerian utzi dute prestigioaren auzian beste aldagai ideologiko asko hartu behar ditugula gaur egun aintzat: besteak beste *dinamiko-tasuna* (*dynamism*) aldarrikatzen du Kristiansen-ek (2009) bereziki kontuan hartzeko parametroen artean. Soziologiaren alorrean Modernitate Beran-

tiarra («Late Modernity»: Giddens, 1991) deitu den honetan aldaera ez-estandarrek bereganatu dute *dinamikotasunarekin* loturiko prestigio hori. Europa mailako hainbat hizkuntzaren inguruko azterketek (ik., bereziki, Kristiansen & Coupland, 2011) agerian uzten dute guneanitzeko unibertso ideologiko bat dugula egun estandarren eta ez-estandarren gizarte-ebaluzioan eta, erabilera-eremuaren eta funtzioaren arabera, estandarrek ala dialektoek hartzen dute prestigio-mailan lehentasuna. Antzeko ondorioetara eramaten gaituzte euskara batuarekiko eta euskalkiekiko jarreraren inguruan egin diren ikerketek ere (Amorrortu, 2012; Bereziartua, 2014; Lantto 2015).

## 2.2. Zenbateraino behar da ahoskeraren estandartzea?

Lehenengo galdera da euskarak ahozkoan aldaera formalik behar duen. Euskaltzaindiak 1993an abiatu zuen ibilbideak galdera horri baiezkoa *de facto* eman ziolakoan, horren ahoskera (ahoskera *zaindua*<sup>2</sup>) egokia nolakoa izango zen aztertu behar izan zen.

Baten bati bestela irudituko balitzaio ere, beste hizkuntzetako ahoskeren berariazko estandartzeak gertatu dira, baita akademiarik ez duten hizkuntzetan ere. Halako egitekoa bete zuten ingelesezko ahoskera-hiztegiak (Buchanan, 1757; Sheridan, 1780, 1791, apud Tieken-Boon van Ostade 2012: 41): «get rid of accent» («libra zaitez azentutik») aholkua ematen omen zuten. Inguruko Akademiak ere gurea baino askoz lehenagokoak dira eta horregatik irudi lezake gauzak libreago direla (Italierarena 1582, Frantsesarena 1635, Espainolarena 1713, Suedierarena 1786).

Beste inolako hizkuntzen menpe ez dauden hizkuntza horiek errazago bizi litezke estandartze gabe, ahoskeraren estandartze gabe bederen (ikus honen

<sup>2</sup> Mitxelaren proposamena da *zaindu* terminoa. Labur esanda ahoskera zaindua litzateke hizkera formal edo jasoari legokiokeena, hain zuzen ere hizkera horretan hiztunak arreta ematen diolako (beti bezala) edukiari, baina halaber eduki hori adierazten duen forma fonetikoa zaindu egiten du (gainerako hizkera mailetan ez bezala; hortik gainerako horiek *-formari dagokionez arduragabetzat* hartu ahal izatea).



azpiko (c) paragrafoa). Haatik, uste dugu euskarak ahoskeraren berariazko estandartzea behar duela. Hona behar horren zenbait eragile:

- a) Euskal aldaera guztietako hiztunek orain hedabide komunak dituzte. Komunikabideen presentzia gero eta handiago da, produkzio libre gero eta ugariagoarekin. Informazio teknologia berriei esker esatari profesionalek ez ezik, medioetako erabiltzaile-sortzaile arruntak ere, ahozko estandar baten beharra du: buruan ditugu testuinguru akademikoetan euskal neska-mutilek egunero sortzen dituzten *booktraile-rrak* eta eskolarako bideoak, esaterako.
- b) Gainera, unibertsitatean eta administrazioan erabiltzen denez, esparru horietako erabilera zenbaiterako behintzat egokiagoa dirudi, lekuan lekuko euskalkia baino, estandarrak dakarren hizkera neutro eta formalagoa.
- c) Euskara hizkuntza gutxitua izateak areagotu egiten du ahoskera arautzearen beharra. Hizkuntza osasuntsu indartsu batek berez (Milroy, 1994: 21) gara dezake aldagarritasun funtzionala (hizkera desberdina, egiteko desberdinetarako), baina euskarari mende luzeetan zehar beste hizkuntza batzuek bete diote estandarrari legokiokeen eremua. Ez zegoen, beraz, ohitura kolektibo bateraturik, ez dago hizkera zaindurako eredu sendorik, ezta euskalkietan ere<sup>3</sup>.
- d) Bi hizkuntzaren menpean da, gainera, hizkuntza gutxitu: horrek ere arautze batuaren beharra azpimarratzen du, joera exonormatiboak euskararen zatiketa indartzen duelako. Ezin ahaztu dugu, gainera, frantsesa eta gaztelania araututa daudela. Alegia, estandarturik daude bai kodetzearen aldetik, bai aldaeren banaketa funtzionalaren antolaketaren aldetik (frantsesa gaztelania baino areago).
- e) Hitzunen elebitasuna. Ez dago honezkero hiztun elebakarrik. Bestela esan, hiztun bakar bat ez dago beste hizkuntza baten eredu fonologikorik gabea (euskaraz-kanpoko beste eredu horren nagusitasun erlatiboa hiztunaren biografia linguistikoaren zenbait eragileren arabera-

---

<sup>3</sup> Elizak erabilitako aldaera zenbait lirateke horri gehien hurbilduko litzaizkiokeenak.

koa delarik): zaindurako erreferentzia hizkuntzaren barrenetik ematearen garrantzia azpimarratzen du horrek.

- f) Bestalde, idatzian ere berriki estandartua da. Horrek indartu egiten du *spelling pronunciation* edo letren ahoskera deitzen denaren arriskua: hiztunentzat idatzia forma berria izanik, letrak berdintzea erabat fone-mekin. Ahoskera berri bat egokitzen zaio horrela hizkera berriari. Horretarako, nahigabe eta besterik ezean, erdarara jotzen da eredu foniko berri horren bila<sup>4</sup>.
- g) Aldagarritasun soziologiko eta estilistiko mugatua: euskaradunok gizarte txikia osatzen dugu, desberdintasun sozial mugatukoa. Bestela ere hizkuntzak ez du oraintsu arte estilo formalen beharrik izan (ik. goragoko c).

### 2.3. Oraingo egoera

1998az geroztik dugun EBAZ araua (ikus Euskaltzaindia 1998) ezagutzen duten hiztun gehienak erabiltzaile bereziak dira: irakasle, ikasle, esatariak. Bai kopuruaren aldetik, bai beren eraginkortasunagatik, talde garrantzitsua badira ere euskal hiztunen artean, esan liteke Batuaren gainerako atalak baino ezezagunagoa dela ahoskerarena. «Atarikoak» atala eta aldagarritasunaz 1998ko arauetan agertzen diren iradokizun zatikakoak dira errazen ahaztu direnak (ikus 3.1.f). Horrekin lotu daiteke, EBAZ arauaren erabilerari kaotiko samarraren barruan, ahoskera desberdinen egokitze estilistikoa izatea hutsik handiena. Arauak hiztun batzuek bakarrik betetzea ez da berez txarra (ikus 3.1.e); kezkarriena da erabileraren banaketa nolakoa den.

Oro har ez da ohikoa euskararen egokitze funtzionala: Batua (EBAZ arauak betez edo ez) edozein egoeratan erabiltzen dutenen beste muturrean agertzen zaizkigu batua, egoki litekeenean ere, erabiltzen ez duten hiztunak.

<sup>4</sup> Hau aspaldi, Batua berria zenean gertatu bide zen; baina orduan sortutako aukera egonkortsu eta eredu gisa sendotu dela esan daiteke. Frantsesak eragin txikiagoa izan dezake gaztelaniak baino, ortografia fonetikoagoa duelako bigarrenak. Halere azentu kontuetan eredu aldaketa nabarmena da bi kasuetan.

Azken mota honetakoak euskalkiren bat menperatzen duten euskaldun zaharrak izan ohi dira. Beren jokaeraren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke. Batzuek ez dakite batua erabiltzen, beste batzuek ez dute nahi, edo ez dute egoera desberdinetan hizkera desberdina erabiltzeko beharrik sumatzen, ezta batua sendotzekoa ere. Bigarren azpitalde honetan nabarmen dira batuaren aldeko ahaleginak bizi izan ez zituzten gazteak, baina badira, euskalkien babesaren argudioaz, horren alde egiten duten intelektualak ere. Ziurrenik badu honek Europa osoan gertatzen ari den bernakularizazio prozesuarekin zerikusia (Coupland, 2009 ; Coupland & Kristiansen, 2011)<sup>5</sup>.

Arau gehiago eskatzen duenik ere bada zenbait alorretan (Alberdi, 2014: 12). Ahoskera batzordean ez dugu uste arau gehiago eman behar denik. Dagoena garatzea proposatzen dugu, zehaztuz, esplizitu eginaz agian ilun litekeena: arauen kodetzea landu behar litzateke, edo kodetze hori zer den garbi azaldu, betiere ahozkoaren aldagarritasunari behar duen lehenetasuna emanaz.

Oraingo EBAZ arauaren erabilera desberdin eta aldizka kaotikoa ez da behar bezala konponduko arauen ezagutza nola edo hala hedatuz, ezta gogorrago betearaziz edo arauak ugarituz eta zailduz. Ahoskera estandartuko badugu, oso aintzat hartu beharko ditugu idatziaren eta ahozkoaren arteko desberdintasun eta loturak, estandartzeak zer esan nahi duen eta hizketaren aldagarritasuna.

#### 2.4. Zer da gure ustez ahoskera estandartzea

Hizkuntza gutxitua izanik, erabilera esparru nahikorik izan ez duelako, euskararen hizkera formalik ezak hizkera-mailen arteko egiturarik eza dakar. Horrek hizkuntzaren antolaketa estilistikorik eza esan nahi du. Alegia, ez da garatu hizkuntzaren historian zehar hizkuntza indartsuagoek izan du-

---

<sup>5</sup> Euskararen kasuan ere zantzu argiak aurkitzen ditu Elorduik (2015). Kristiansen-ek joera nagusi biren inguruan hitz egiten digu Europako hizkuntzez diharduela: *desestandarizazioa* eta *demotizazio* prozesuak. Bietan estandarren eta dialektoen arteko banaketa ideologiko berriak aurkitzen ditu (Kristiansen, 2009; Kristiansen and Coupland, 2011: 27).

ten esparru soziolinguistiko mailakatua, ez behintzat gizarte osoan. Testuinguru horretan ulertu behar dira EBAZ arauen malgutasuna eta bide-aniztasuna: hizkuntzak historian zehar izan ez duen aldagarritasuna, neurri batean behintzat, berariaz antolatu beharreko zerbait da euskararen kasuan. Hizkuntzalariok badakigu hori ez dela erraza eta ezin dela erabat kanpotik programatu. Kontu handiz egin beharrekoa da eta ez genuke saiatu behar erabat lotzen (ez ontasunaren, ez jatortasunaren, ez beste ezeren izenean) hizkuntzaren berezko garapena izan behar lukeena.

Euskararen estandartzeak, leku guztietako hiztunentzako aldaera komuna finkatzeaz gainera, eskatzen digu hizkuntzaren unibertso osoa egitura-tzea. Beraz, aldaera estandar abstraktuaz gainerako hizkerek ere presente egon behar dute estandartze-egitasmoan. Estilo zaindu eta arduragabeek, lekuko hizkerek, talde sozial ezberdinenek, gazteago eta zaharragoenak baikoitzak bere egitekoa izan behar du egitura egitasmo horretan:

[A] complete language has its formal and informal styles, its regional accents, and its class or occupational jargons, which do not destroy its unity so long as they are clearly diversified in function and show a reasonable degree of solidarity with one another. (Haugen, 1966: 932).

Nolabait esan, euskararen ahoskera estandartzearen helburu litzateke hizkuntza normaltzea ahozko erabileran. Horretarako, unibertso osoa antolatu behar da, ez soilik estandararen ahoskera. Atalaren lehen paragrafoan aipatu EBAZ arauen malgutasuna eta bide-aniztasuna ardatz estilistikoan (*dittu/ditu, etxia/etxea*) eta dialektologikoan<sup>6</sup> (*mina/miña; esan zun/esantzun*) gertatzen dira hurrenez hurren.

Aldagarritasuna berezkoa du ahozkoak, besteak beste alor dialektalean, eta ez du ahoskera bakarrik harrapatzen noski: *dan/den* bezalakoak elkarren segidan gerta daitezke, Batuan aritu nahi duenaren hizketan ere (eta *handi/*

<sup>6</sup> Euskalkien artekoa ez da aldagarritasun sozio-fonologiko bakarra, noski. Gazte eta zaharren arteko desberdintasunak, euskaldun zahar eta berrien artekoak edo herritar klase desberdinen artekoak lirarteke bete-betean aldagarritasun soziofonologikoaren erakusle, baina lan honetan arauen analisirako ez dira erabiltzen, nahiz zeharka eta tarteka aipatzen diren horietako batzuk lanaren beste leku batzuetan.

*haundi, niretzat/neretzat, euskara/euskera, baina/baino, dut/det*); baina ahoskera da dudarik gabe hiztunaren kontrolpetik errazen askatzen dena: *iruittuko zaiizue, úrrrengoako komponduko dewlè, esaterako, egoera formal batean jasoak dira*.

Batzordeak ez du euskalki guztietako hiztunentzako ahoskera bakarra proposatzen: hizkera estandarra erabili behar denerako gutxieneko gida bat baizik (*gida* eta *gutxieneko*, biak azpimarraturik). Ideia hori izan zen gaizki ulertu den EBAZaren funtsa. Ikuspuntu honetatik doinu eta azentuek behar dute libreen, horiek direlarik kontsonante eta bokalen ahoskeren baldintzatzaile neurri handi batean. Itzuliko gara berriz ere prosodia kontueta-  
ra 4. atalean.

Malgutasun estilistikoa ere aintzat hartu behar da. Batzordeak ez du edozein egoeratarako ahoskera bakarra proposatzen. Ondo daude *ditut* [ditut] eta *dittut* [dicut], *etxea* eta *etxia...* zein bere erabilera esparruan. Euskalkiekin bezala, mailen artean ere aldagarritasuna bizia da oso ahozkoan eta ez da ahoskera kontua bakarrik: *dagon/dagoen* bezalako desberdintasun morfolo-  
gikoa segundo gutxiren buruan egin zuen mikrofono aurrean hizlari batek. Izan ere hauxe da praktikan aldagarritasun ardatz zailena: hizkera-mailen berezko desberdintasun dinamikoaz eta irristakorraz gain, orain arteko euskararen aldagarritasun estilistiko murriztagatik.

Euskalkien eta estiloen aldagarritasun-ardatz bi horietan oinarrituta, hizkuntza ahulduaren normaltasunerako indartu behar litzatekeena lortzeko, dinamika horien alde jarri behar dute bai euskara txikitatik dakitenek, bai heldutan ikasi dutenek ere.

Taking care of the weakness of a threatened language should go hand in hand with giving way to its functionally necessary resources, such as an orderly varied pronunciation. (Milroy 1994:20).

Euskaldun zaharrek estandartzen ikasi beharko dute (alegia beren euskalkiko aukeretatik ateratzen eta batua erabiltzen hala dagokionean). Euskaldun berriek desestandartzen ikasi beharko dute (alegia ikasi duten euskara batua euskalkian urtzen gehiago edo gutxiago egokieraren arabera). Zehazki ahoskerari dagokionez, bokal arteko *r* jaten duenak etxeoekin (*ari* > *ai*), ohitu beharko du halakorik ez egiten eskolan aurkezpen bat egitean.

Idazten diren *r* guztiak ahoskatzen dituenak beti, ikasi beharko du bokalarteko batzuk behintzat jaten tabernako elkarrizketetan. Mailak bereiz daitezke halakoetan: *r* bat ere ez jategik (mikrofono aurrean, irakurtzean, etab.); agian ez hain estu, batzuk bakarrik isiltzera azentuaren eta arretaren edo ohituraren arabera (aurkezpen libreagoan); denak kentzeraino (etxeko sukaldean). Mailakatze zehatzaz ez genuke sobera arduratu behar, hori berez etorriko baita, malgutasunaren eta aldagarritasunaren norabidea behar bezala bereganatzen baditu erabiltzaileak.

## 2.5. Euskaldun berriak

*Euskaldun berria* oso termino zabala da, bere baitan errealitate oso plurala hartzen duena. Lan honetan, deitura hobeagorik ezean, termino hori erabiliko dugu euskara umetan (gutziz) bereganatu ez dutenak izendatzeko.

Euskara batua sortu zenean, are euskara ofizialdu zenean lurralde batzuetan, euskaldun berriak ugaritu ziren. Egun, oraingo belaunaldietan, euskaldun berriak asko dira: Hegoaldeko hiztunen erdia baino gehiago ziren 2011rako 16-24 adinekoen artean. 2013ko azken inkesta soziolinguistikoa- ren arabera, adin tarte horretako hiztunen artean %52 ziren euskaldun berri Autonomia Erkidegoan, eta %54 Nafarroan. Iparraldeko datuen arabera, %38,6 ziren euskaldun berri adin tarte hori zuten hiztunen artean (Eusko Jaurlaritza, 2013). Euskara Batua izan da horietako gehienek euskalkia.

Euskaldun berriekin batera, Euskara Batua hots bihurtzerakoan, ezjakintasunagatik edo bestela, beren jatorrizko euskalkia erabili ez zuten hiztunak ere asko izan ziren, eta dira. Halako hiztunen ahoskerak izan dira maiz Euskara Batuaren ahoskeratzat hartu direnak: horiek egituratu dute euskara batuaren fonologiatzat hartu ohi den eredu askotan. Beren euskalkia erabiltzen ez zutenen artean asko irakasle ziren edo dira lanbidez, guraso eta aitona-amonak izateaz edo direnez gain. Beraz, eredu transmititzaile ere izan dira.

Irakaskuntzarekin jarraituz, gurearen moduko egoera soziolinguistikoe- tan, hizkuntza idatziaren estandartzea erlatiboki berria denean, hiztunek beraien hizkera egoera berrira moldatzeko idatzizkoa irakurtzea izan ohi da

ohikoena. Moldaketa horretan, euskalkiari edo dialektoari dagozkion bilakabide eta erregelak saihestu egiten dira nagusiki. Egun, irakasle askok idatzizkoa irakurriz jarraitzen dute, 1960. hamarkadan Euskara Batua sortu berri zenean lehenengo irakasleek egin zuten gisara.

Bereziki azpimarragarria da irakasleek duten garrantzia estandaritze orekatua lortzeko bidean. Euskara bigarren hizkuntza duten ikasle gehienek ez dute harreman zuzenik izango euskalkien ahoskerarekin, irakasleek eskolan ezaugarri dialektalak saihestu egiten badituzte. Arazoa zaildu egiten zaigu gaurko hizkuntz irakasle asko euskaldun berriak direla kontuan hartzen baldin badugu.

Euskal ahoskeraren estandarizazio prozesuaren helburuetako bat hiztun guztiek aldakortasun estilistikorako bidea ezagut dezaten izanik, gai izan behar genuke ahoskera zaindurako arauak lagunarteko mailetan euskalkietako formekin nola harmonizatu irakasteko. Euskaldun berriek besteongandik, irakasleengandik gutxienez, ikasi behar lukete aldakortasuna. Euskaldun berriari, euskalkirik etxetik ez dakarrenari, ez litzaioke estandar zurrun maila-bakarreko bat eman behar soilik. Horrek lekarke euskaradun berria hiztun oso ez izatea, estilo bakarreko hiztuna bailitzateke. Eskolatik kanpoko erabileran ondorio larriak etor litezke eta, ziurrenik, izan ditu honezkero euskararen kasuan (Soziolinguistika Klusterra, 2012) komunikazio-egoeratarako egokitze estrategietan baliabide linguistiko eta estilistikorik gabe uzten baitu hiztuna (Giles et al., 1991).

Gainera, hiztunen arteko euskaldun berrien kopuru erlatiboak direnak izanik aldagarritasun disfuntzionalak sortzeko arrisku handia dago. Esan nahi baita, euskaldun berriek erregistro maila zaindua ikasten badute soilik beste aukeren berririk gabe, maila zaindu hori hizkuntzaren egokiera guzti-guztietarako erabiliko dutela, eta egoera horrek hizkuntzaren ahoskera unibertsoa desitxuratuko duela<sup>7</sup>.

Euskaldun berriei buruzkoa osatze aldera, aipatu behar da hizkuntzaren une historiko honetan, neurri batean edo bestean denok garela euskaldun

---

<sup>7</sup> Gauza bera esan daiteke kontrako egoeraz ere, alegia maila zainduenetan ere etxeko hizkera erabiltzeaz.

berri hizkuntz erabilera esparruren batean, hizkuntza bera ari garelako erabiltzen lehen aldiz zenbait eduki adierazteko. Euskararen zenbait egoera, funtzio eta estilo aski berriak direnez, euskara ere berria da eremu horietan. Orain ari da sortzen egokiera berri horietarako hizkera. Hain zuzen ere, hizkuntzaren alor berri horiek dira ahoskera zaindua erabiltzeko aukera gehien dutenak: zientzia hizkera eta berau erabiltzeko egokierak, hala nola hitzaldiak, eskolak, eztabaida zientifikoak, eta abar. Esparru horiei dagokie, halaber, mailegu berri askoren erabilera, hizkuntzan ahoskera berritasunak sartzeko bide izan ohi dena, adibidez, *genoma* hitza, zein *semasiologia*<sup>8</sup>.

Gauzak horrela, ahoskera araupetzeak euskaldun berriak kontuan hartzea ekarri du eta euskaldun berriek eta hizkuntzaren erabilera berriek ahoskera kontuan hartzea.

### 3. EBAZ arauak nola ulertu behar liratekeen

#### 3.1. EBAZ arauen helburu eta irizpide orokorrak

- a) Euskara batuak hartutako bideari jarraiki, helburua ez da euskararen aldaera bat lehenestea besteak baztertzeko, ezta adituek asmatutako euskalkien gainetiko aldaera (aldiera supradialektal) artifizial bat proposatzea.
- b) Nahiz estandartze prozesu orok dakarren aldaeren gutxieneko murriztea ukazina izan, ahoskera estandarrak ez du aldakortasun geolinguistikoak sortutako aberastasun dialektala ordezkatu edo desagerrarazi behar. Helburua da euskarari erregistro formala eskatzen duten egoeretan baliabide funtzionalak eskaintzea. Nolabait esan, EBAZ Batuan idatzia (edo idatziko litzatekeena) ahoskatzeko da funtsean.

---

<sup>8</sup> Garrantzitsua da ideia honen jabe izatea, izan ere, euskara batuaren ahoskera zaindua erabiltzeko egokierak ez dagozkio jende guztiari etengabe. Gauzak horrela kokatuta, alegia formen erabilera esparru mugatua eta markatua aintzat hartzen denean, kritika zein desadostasun asko baretu egiten dira.



- c) Ahoskera estandartzeko proposamenak hizkuntzaren batasuna du helburu: EBAZen zenbait arauk, hizkera desberdinen artean eta, batik batik, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkien artean gero eta handiagoa den haustura dialektala leuntzea dute xede nagusi eta (ahal balitz bidenabar) soziolinguistikoa<sup>9</sup>.
- d) Estandarrak malgua behar du: batuaren aukera linguistikoak hizkerekin lotu nahi dira aldagarritasun ardatz estilistiko eta soziologikoak (ikus 2.4) emankor izan daitezen euskaraz. Ez da ahoskera bakar bat bilatzen, bateratu bat baizik, erreferentzia gune bakarrekoa.
- e) EBAZek hitzun ororen *erreferentzia* izan behar du; hitzun batzuek erabiliko dute hizkera-maila jakin batzuetan bakarrik. Gainerako hitzun guztien ezagutza pasiboak bermatuko du aldaera zainduaren errealitatea eta sendotuko du hitzunengan euskalki desberdinekiko bateragarritasuna (lotura).
- f) EBAZ arauen bertuterik handienetakoa da esplizituki agertzen dela estandarraren erabilera zaindurako direla arauok. Arauok hizkera batuaren ahoskera zaindua eskatzen duten egokieretara mugatzeak nahi-taezko egiten du aldagarritasun estilistikoa eta geografikoa aintzat hartzea arauak azaltzeko orduan, ahoskera zaindua hizkuntzaren egitura osoan txertatuko bada. Aldagarritasun hori arauen adierazpe-nean agertzen diren iruzkin zenbaitek iradokitzen zuten. Batzuetan aldagarritasun dialektala islatzen da, hala nola III.1. mugatzen duen III.2. arauan, edo VIII.1. eta VIII.2. «j» letrari buruzkoetan. Hizkera-mailaren araberako aldagarritasunak ere badu bere lekua, esaterako, II.a eta II.b arauetan<sup>10</sup>. Egia da aldagarritasuna ez dela berdin adierazten arau guztietan eta batzuetan ez dela ezer esaten alde horretatik.

<sup>9</sup> Nabarmen da mota honetakoa *j*-ren ahoskera palatala (y edo [j, j], palatal ez txetxekaria) ar-tamendatzen duen VIII. araua. Gauza bera esan liteke *g*-ren ahoskera ahostuna gomendatzeaz.

<sup>10</sup> Ikus adierazpen osorako [http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0087.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf) (= Euskaltzaindia, 1998).

Ez da ulertu behar haatik aukera bakarra ematen denik, baldin eta hizkuntzak berez aldaera gehiago eskaintzen baditu<sup>11</sup>.

- g) Hitzunen muga fonemikoak aintzat hartzen dira, hizkera formala euskalkien benetako ezaugarri fonetikoaren begirunetik abiatzen dela aintzat hartuz. Horregatik, euskalkien ahoskeraren hesiak ez bortxatzea zaindu da: hau da, ez zaio inori fonemarik gehituko ez debekatuko EBAZen izenean: /h/ duenak badu, ez duenak ez du; berdin /y/ edo «ü» rekin, definizioz delako *fonema* berariaz egin daitekeen hotsa. Harelere, onartu behar da gauzak ez direla erabat aseptiko, eta esandakoa inbentarioen arteko desberdintasun oso-oso zahar eta onartuei dago kiela: arauak hobesten dutela euskalki hedatuenean fonema aurkako tasunak egitea (funtsean txistukariak eta albokari bustia); gainera ez da onartzen /R/ (frantseseko *Rome*), ezta /ʒ/ (gaztelaniazko *Zaragoza*) ere, nahiz horiek honezkero euskaradun askoren fonema inbentarioko unitateak izan, lehena Iparraldean, bigarrena Hegoaldean. Alegia oraindik bizirik dauden euskaren jatorrizko sistema fonemikoaren alde egiten da. Horrek esan nahi du «z» edo /s/-rik ez duenak, «ll» /ʎ/-rik ez duenak, «tt» /c/-rik ez duenak, «rr»/r/-rik ez duenak ez duela /h/ ez duenaren tratua bera... Beste arrazoi batzuek medio, /ʒ/ txe-txekari ahostuna ere lekuri gabe gelditzen da EBAZen (hedadura erlatiboki urrikoa delako /j, j/ren ondoan «j»letraren ordain gisa adibidez) ez bada frantsesetikako maileguetan (adib., *gara[ʒ]a*). Beraz, batzuetan hautua erabat da «politikoa», alegia hizkeren arteko batasuna gainjartzen zaio irizpide fonologiko garbiari. Eransketa litzateke gomendagarri fonologiaren arabera hizkera zaindurako *-ia-* elkarketetan (*mendiya*, *mendixa*, etab.), baina euskalki desberdinetan eransketaren gauzatze fonetiko desberdinak gertatzen direnez eta, gainera, ez

<sup>11</sup> Arauen adierazmoldeen homogeneotasunik eza bere ibilbide akademikoaren historiari dator funtsean (1993-94 Batzordetik 1997-98 Lantaldere eta hortik Euskara Batua Batzordera eta, azkenik Osokora). Sor litezkeen gaizki-ulertuak saihesteko Ahoskera lantaldearen errendapen txostena (Oñederra, 1998) EBAZ arauen osagarri gisa hartu behar litzateke. Egia da baina Euskaltzaindiak argitaratu zituen bezala argitaratu zituela eta egia da EBAZ arauak bakarrik direla erakunde osoarenak.

denez euskalki guztietan gertatzen, batasunaren izenean ez zen ahoskera hori gomendatu hizkera zaindurako<sup>12</sup>.

### 3.2. Estandarraren artifizialtasuna edo batasunak zenbat axola duen

Artifizialtasun kritiken aurrean gogoeta bat egin nahi genuke. Hautu linguistikoak (fonologikoak) badu osagai kulturala eta borondate politikoa, estandartzearen beraren inspirazio eta zio dena (1968koaren bidetik) eta arau banakoetan ere islatzen dena: euskalki eta hizkera desberdinen batasunaren auzia (ik. 3.1.c). Hitzun banakoaren neurri bateko edo besteko artifizialtasun sentipena saihetsezina da, besteren aukerak bere egitean. Ez dago gaizki ere: hori da estandarraren bereizgarri, definizioz hitzunaren etxekotik, arduragabetik desberdin izan behar baitu. Erabilera aktibo zein pasiboak eta denborak leundu egiten dute hizkera baten artifizialtasuna, azken batean arrotasuna ohiturarik ezak sortzen baitu.

Artifizialtasunari hesia jarri zitzaion erabakitzean arauen ondoriozko formak inorentzat nonbaiten litekeen ahoskera izatea. Besteak beste *-logia* termino askotako hitz-atalarekin sortzen da arazoa, Iparralde (/ʒ/) vs. Hegoalde (/x/) zatiketaren aurrean. Kontuan hartu zen, batetik, zatiketa gaztelaniazko *-logía* (/x/) eta frantsesezko *-logie* (/ʒ/) kanpoko aukeren araberakoa dela; bestetik eta garrantzitsuago dena, /x/ ez dagoela Iparraldeko hitzunen fonemen artean, ezta /ʒ/ Hegoaldeko askorengan: alegia ez dute balio ez batak ez besteak ahoskera batzeko. Urrutixago (alemanez, esaterako) euskaradun guztiek duten /g/ etimologikoa bizirik badago, zergatik ez proposatu hori euskararen hizkera zaindurako? Kontua ez baita, ez behintzat funtsean, zer egin *logika* hitzarekin elkarrizketa batean edo Hegoalden *almeja* nola ahoskatu behar dugun, baizik *genoma* edo *semasiologia* lehen aldiz entzuten dituenak nola entzuten dituen. Ez baitzaio arrotz gertatuko lehen aldi horietan irakasleek ahostunaz ebakitzen baditu.

<sup>12</sup> Eransketak *fortitio*ak dira eta bilakabide fonologikoen tipologia funtzionalaren arabera, hizkera zaindua da *fortitio*en gertaleku naturalena (Donegan/Stampe, 1979, 141).

### 3.3. Arau motak

EBAZ arauen artean lau mota bereiz daitezke aldagarritasunari ematen dioten aukeraren arabera. Gainera, arau bakar batek osagai desberdinak izan ditzake aldagarritasunari dagokionez. Horregatik arau bakarra sailkapen honen leku desberdinetan ager daiteke. Hemen aipamen laburrak egingo dira testua gehiegi ez luzatzeko. Ikus hemen sailkatzen diren arauen adierazpen osorako [www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0087.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf) edo Euskaltzaindia (1998)<sup>13</sup>.

a. Mota honetako arauak artamendatutako aukera edozein hizkera-mailetan da onena:

I, bost bokal nagusiei berez dagokiena; V, kontsonantei dagokiena; V.2, gaztelaniatikako maileguetako *z*-ri dagokiona; V.4, frantsesetikako maileguetako *r*-ari dagokiona; IX.1, jatorrizko hitzetako *x*-ri dagokiona; X, *eginez* *gero* > *eginezker*o bezalakoak biltzen dituen.

b.1. Beste arauotan ahoskera zaindurako artamendatutakoak gainerako hizkera mailetan ere erabil litezke:

IV, bokal-h-bokal bilkurei dagokiena; V.1, *ge* eta *gi* bilkurei dagokiena; V.2, *s-z* bereizkuntzari dagokiona; VII. *ll* edo *il* albokari egiteari dagokiona; VIII. «j» sabaikari ahoskatzeari dagokiona; X. *z* ondoko kontsonanteen ahoskerari dagokiona; XI. *zz* kontsonante bilkurari dagokiona; XII. kontsonante ondoko *z* eta *s*-ri dagokiena.

b.2. Arauek ahoskera zaindurako artamendatutakoarekin batera, etxeke edo ikasitako euskalkiaren bestelako aukerak gogoratu edo irakatsi egin behar lirateke beste hizkera-mailetarako<sup>14</sup>:

II, bokal bilkurei dagokiena II.a eta II.b azpiatalek osatua; V.3, bokalar-tean mututu daitezkeen kontsonantei dagokiena; IX.2. maileguetako *x*-ri dagokiona.

<sup>13</sup> Gogoratu 2.3.ean esana EBAZ hasierako «Atarikoak» ideien garrantziaz.

<sup>14</sup> Hauek noski b.1 dira bestelako aukerarik ez duenarentzat edo eman ez zaionarentzat. Atal honetakoek emango diote hizkuntz irakasleari lan handiena.

c. Arauek ez dute aukera bakar bat lehenesten. Euskalkien arabera ahoskera desberdinak onartzen dira Batuaren maila zaindurako<sup>15</sup>:

I. arauak *ü* bokalari dagokion zatia; III, hiato (III.1.) eta diptongoei (II.2.) dagokienak; VI. hasperenari dagokiona; VII, (des)palatalizazioari dagokiona; XII, hitz hasierako *z* kontsonante ondoan gertatzeari dagokiona; XIII, *ez* hitzaren ahoskerari dagokiona.

Euskalki barreneko aldagarritasun funtzionala (egiteko desberdinetarako ahoskera desberdina) *b* motako arauetan dago eta euskalkien artekoa, *c* motakoetan. Euskara irakastea ahoskera horrela azaldu behar litzateke (bereziki kalean euskara gutxi aurkituko duten ikasleekin). Azpimarratu nahi genuke halere arauak ez direla banaka irakatsi behar. Banaka analizatzea hizkuntzalari eta irakasleon zeregina da, baina ikasleei ez zaizkie erregela gramatikalak bezala irakatsi behar, arauak betetzen dituzten hitzak esaldi osoetan txertaturik baizik. Era berean, ez dugu uste bokal eta kontsonanteen ahoskera azentu eta doinuetatik aparte landu behar litzatekeenik. Euskal ikasleari ez zaizkio arauak irakatsi behar, arau horien arabera ahoskatzen baizik.

#### 4. Prosodia

Prosodia kontsonante eta bokal ezaugarriekin batera ahoskatzen den beste hori da: azentu gorabeherak, doinu aldaketak, silabakatzea, lastertasuna, eta abar. Juan Goytisoloren hitzak itzuliaz, hitzen musika<sup>16</sup>. Dena delako, eta, besteak beste, ezin zenba daitekeelako bokalak eta kontsonanteak zenbat ditzakegun moduan, prosodia da hizkuntzalariarentzat hizketaren ezaugarri harrapagaitzena, deskribatzen eta sailkatzen zailena. Hortik estandarra

<sup>15</sup> Ereku geografiko zabalen desberdintasunekin gertatzen da hori: euskalki palatalizatzaile vs. despalatalizatzaileak, frantsesarekiko elebitasuna vs. gaztelaniarekikoa.

<sup>16</sup> Javier Valenzuelaren elkarrizketa, *Babelia* (2003.II.15). Mesedegarriago litzaiguke agian *kantaz* hitz egitea *musikaz* baino, bokal eta kontsonanteen (kantaren «letraren») ezaugarri zenbait ere prosodiari baitagozkio.

arautzean ere bihurrien gertatzea eta irakasteko zailena, iheskorrena, kontrolagaitzena.

Oro har (ez euskaraz bakarrik) ahoskerari ez zaio hizkuntz eskoletan leku handirik egiten. Azterketetan ere hizkuntzaren beste osagaiei baino garrantzi txikiagoa ematen zaio, batere ematen bazaio. Hiztun berriei, ordea, ziurtasunik eza sortzen die eta hiztun ez-osotzat nabarmentzen ditu.

Dirudenez haurtzaroan bertan bermatzen da prosodiaren lehentasuna, lehen hitzetako hotsak ere egitura prosodikoetan txertatzen baitira. Donegan eta Stampe-ren (1979, 142) ustez, ahoskeraren eragile garrantzitsua da. Izan ere, hizketaren alderdi prosodikoek neurri handi batean baldintzatzen dute bokal eta kontsonanteen ahoskera.

Esate baterako, ondoko kate segmentalak fonemikoki bera izanik, ahoskera ezberdinak sor litezke hitzak egitura prosodiko desberdinetan txertatuz: *etórri extenák* vs. *Etórri dirà, baña éz denák*. Funtsean, *ez* eta *denak* bakoitzak azentu nagusi bat izateak ematen dien beregaintasun prosodikoak kontsonanteen arteko asimilazioa ekiditen du. Era berean, *erakuts daiteke* esan edo *erakustaiteke* esan estu dago lotua ahoskeraren ezaugarri prosodikoekin, funtsean hitz bilkura horren azentua bakarra izatearekin eta azentu horren indar erlatiboarekin (indar handiagoak silaben arteko gertutasuna areagotuz).

Oro har hizketa-jarioa ohargarritasun gorabeheretz osatuta dago: bokal-kontsonanteak, ozentasun gailur-ibarrak silabaka, azentua-azenturik eza, doinuaren igotze-jaisteak, etab.

In the phonological structuring of language, we find antagonistic structural principles at nearly all levels of analysis (consonant–vowel sequences, syllable structure, foot structure, etc.). They are paradigmatically the result of opposite tendencies, creating a dissimilate order with maximally alternating perceptual cues in the sequencing of elements. (Hurch, 2006: 720).

Kontraste egitura horien zehaztasunak hizkuntzak eta dialektoek desberdin antola ditzakete. Horregatik, uste dugu batuaren ahoskera euskalkiekin lotzean oso kontuan hartu behar dela alderdi prosodikoen eta ez-prosodikoen arteko banaezintasun hori.

#### 4.1. Egungo egoera

Prosodia da ziurrenik errazen itxuraldatzen dena, euskara zaharren bat etxetik dakiten hiztunek Batua erabiltzen dutenean, hotsetarako letra oinarri hartzearekin batera. Halaber, prosodia berri horretan egoten da maiz Batua lehen hizkuntz eredia izan dutenen ahoskeraren ezaugarri nabarmenena (bai euskara heldutako bigarren hizkuntza izan dutenena, bai halako eneredua izan dutenena euskaraz jabetzean). Izan ere, horrela irakatsi izan da eta irakasten da hizkuntza, halakoa izan baita batuarekin lotu den ahoskera.


#### 4.2. Prosodia berriaren ezaugarriak

Askok ozen arbuiatzen duten prosodia berri horren ezaugarri garrantzitsu batzuk ondokoak direla esango genuke:

- a. Azentuaren leku finkoa (azken aurrekorako joeraz)
- b. Hizka banatzea azentua
- c. Homogeneotasuna (ziurrenik Iparralde/Hegoalde isoglosarekin)

Hala uste izan badugu ere (Alberdi, 2014; Oñederra 1998b), arazoa ez da ziurrenik azken aurreko azentua, edo ez hori bakarrik behintzat: behe-ragoko adibideetako *hemén*, *lastér*, *maitasúnaren* hitzetan azentua, azken aurreko silaban egon gabe ere, desegoki gertatzen da. Euskararen ohiko prosodien aldaerazle garrantzitsuena azentua hizka kokatzea delakoan gaude: *hemén zegóen*; *igánde batéan*; *lastér egóngo gára*; *nire adiskideak*, *nire konplizeak*, *artístak díra*<sup>17</sup>; *maitasúnaren gáia*; *éskolaz kanpóko mundúak*; *erlóju guztiak aldátu bēār ditúgu* vs. *Erlóju guztiák aldátu bēèàr ditugù*. Alegia, azkenari erreparatuz:

<sup>17</sup> Hizkako azentu hori zatikakoa izan daiteke eta hizketaldien amaiera aldera indartzen dela dirudi. Hemen txartzat ematen den ereduaren konponbidea ez da bakarra, esaterako: *artísták dirà*, *ártístak dirà*, etab.

  
 erlóju guztiák aldátu bēār ditúgu  
 erlóju guztiák aldátu bēār ditúgu

Halakoetan hitz bakoitza kokatu da azentu nagusi baten pean, ez esaldi (*phrase*, sintagma) osoa euskarari legokiokkeen bezala. Hizkuntza buru-azken eta komunztadura sistema konplexuak dituztenetan erritmoaren bereizgarri izan ohi da esaldi osoak edo, esaldi luzeetan, sintagmak azentu bakarraren azpian biltzea (Donegan & Stampe, 1996; Oñederra, 2015).

  
 erlóju guztiák      aldátu bēār ditugù

Prosodia berriaren arazoak konpontzeko, berriz ere eskatuko dugu (1998an bezalaxe) azentuak esalditan eta ez hitzetan irakastea. Azentua ez denez hizketaren osagai segmentala, oker litzateke segmentuekin lotzea (zein bokal edo silabatan dagoen ohartaraztea zuzenean ikasleari). Horretaz gain, azentuaren banaketarako hizkuntzak erabiltzen duen unitatea ez bada hitza, hizka irakasteak ere ez dirudi egokien. Azenturik egokiena ere hitz zerrendetan irakasten bada, esaldien prosodia ez da egokia izango. Azken batean, azentuaren egiteko garrantzitsuenetako bat erritmoaren euskarri izatean datza, baina bai fonologi-fonetiketan oro har, bai euskararen azterketetan azentua berez eta bereiz aztertu izan da, erritmoa oso gutxitan azaldu delarik lan linguistikoetan<sup>18</sup>.

#### 4.3. Proposatzen den eredu askotarikoa, euskalkiak

EBAZ arauetan bokalen eta kontsonanteen ahoskera bat baino gehiago sartzan diren bezala, prosodiak ere askotarikoa izan behar duela uste dugu<sup>19</sup>. Ederki asko dakigu honek zailtasun handiak dakartzala, lehenengoa, irakas-

<sup>18</sup> Honetan salbuespen dira Donegan eta Stamperen ikerketa sinkroniko eta diakroniko bide-erakitzaileak (Donegan & Stampe, 1978, 1996 eta tipologiazko guztiak).

<sup>19</sup> Ik., bestelako proposamen baterako, Hualde (2011).



kuntzaren aldetik formula bakar eta itxi bat ez izateak arauemaile eta har-tzaileoi sortzen digun deserosotasuna. Baina iruditzen zaigu hala izan behar duela: oro har, zuberotarrak, hizkera zaindua erabiltzea egokitzen zaionean, prosodia zuberotarrean ahoskatu behar lituzke gramatika batu estandartua-ren bidez egituratutako, hiztegiko aukerez osatutako eta kode formaleko fonema eta hots bilkuretan mamitutako esaldiak (jarri, *zuberotar*-en lekuan, *bizkaitar*, *goierritar*, *nafar*, etab.).

Proposamen honetan nolabaiteko kontraesana ikus lezake bakarren batek. Neurri batean behintzat konbentzior kodetutako forma segmentala (EBAZ), ez datorrena beti eta guztiz bat euskalki bakoitzaren aukerekin, nahi dugu berezko prosodia askorekin bateratu, jakinda eta aitortuz prosodia dela aukera segmentalen eragile nagusia. Komeni zaigu ikustea kontraesanak non sortuko lirartekeen, alegia EBAZen proposatutakotik zer ez den ondo kokatzen hizkeraren baten eredu prosodikoetan. Euskararen hitz azentuaren ahultasun, malgutasun eta esaldiaren menpekotasunagatik, gauza ezaguna da erraz dela edozein doinu kantatzea hitz berekin. Ez dirudi beraz, azentuak arazoak ekarriko lituzkeenik. Izatekotan, silaba kopuru desberdinak izan daitezke arazo. Hor leudeke, egotekotan, arazoak, garbi baitago *j* palatal ahoskatu beharrak ez duela arazo prosodikorik sortzen (ohiturarik ezak ekar dezakeen prosodiaren berregituratze orokorra ekiditen asmatzen bada behintzat). Arazo prosodiko posibleak, *a priori*:

- *Nahi* eta *zahar* silaba bakarrean ahoskatzen ohitu denak (*nai* eta *zar*), bina silabatan (*na.i* edo *za.ar*) esan nahi baditu hizkera zainduaren izenean;
- *Burua* atzikia ahoskatu gabe bi silabatan (*burú*) ahoskatzeko ohitura duenak, hiru silaba (*bu.ru.a*) erabili behar baditu hizkera zainduan;
- *Ari* silaba bakarrean ahoskatzen ohitu denak (*ai*), bi silabatan eta bokal arteko kontsonanteaz (*ari*) esan behar badu hizkera zainduan.

Horiek dira bereziki zaindu, aztertu beharko ditugunak irakasle eta hizkuntzalarion esparrua hedatuz. Arazo hauei irtenbidea bilatzean, antzezleei, musikariei, kantariei eta kidekoei ireki behar zaizkie ateak.

Aurreko atalean azentuaren irakaskuntza eraginkorra izan dadin, esalditan, eta ez hitzak banaka hartuz, ikastea gomendatu da. Hemen, euskalki desberdinen ezaugarri prosodiko nagusiak gordetzeaz ari garela, irakaskera bera proposatzen dugu. Izan ere, tokietako prosodiak ikasteko askoz hobea da esaldiak «kantatzen» ikastea, hitzez hitz edo, are okerrago, morfemaz morfema, atzizki atzizki edo erro-atzizkika aritzea baino.

## 5. Proposatzen den eredia

Jakin badakigu alderdi teorikotik proposatzen denak, ezertarako balio izango badu, maila praktikoan, alderdi didaktikotik osatu behar dela nahi-taez. *Osatze* hitza erabiltzen bada ere hemen, ez dugu atal hori bigarrenka-ritzat hartzen, araua bera bezain garrantzitsutzat baizik. Araua arrakastatsu izango bada, irakaskuntzak benetan eraginkor izan behar du; horrela baka-rrik lor liteke, hizkera zainduaren estandartzearekin batera, hizkuntzaren ahozko erabilera maila guztiak behar bezala egituratzea.

### 5.1. Hizkera-konstelazioa

Dударик gabe eta definizioz, estandartze bilakabide batek (eta halakoa da EBAZ) ezinbestean ahultzen ditu euskalkien bereizgarriak, kode estanda-rrak prestigioa eta, beraz, eredugarritasuna hartzen dituen neurrian. Ahul-tze horri hesia jarri nahi izan zitzaion EBAZ arauetan gorago (2.4) aipatu aniztasun eta malgutasunaren bidez. Aukera desberdinak onartuz, gainera, ebakera zaindua hiztunentzat sinesgarriago, onargarriago, benetakoago, hurbilago gertatzea bilatzen zen, Milroyk (1994: 20) kontsentsu arau dei-tzen dituenen antzera. Azken batean, euskalkiak biziko badira, beharrezko da ez ahanzte eta, Batuak erregistroak izango baditu, euskalkiek bizi behar dute.


Alde horretatik, gogoan izan behar da EBAZ arauak artamendatutako guztiak euskalkiren batean edo bestean gertatzen diren ahoskerak direla. Aukera ezberdinen artean bat hautatzeko, irizpide fonologikoak eta, sozio-logikoak ere erabili ziren. Forma zaindu bezala aukera bi eskaintzen dituzten

arauetarako, kontuz neurtu zen zein euskalki bereizgarrik zuen aski eremu handia (c motako arauak, 3.3).

Oraingo erronka da zein hizkera mailatan eta nola berreskuratu gainerako euskalki-ezaugarriak, maila zainduenetatik kanpo gelditu zirenak. Ez da zeregin erraza. Izan ere hizkera mailen banaketa ez da sinplea. Ez daude bi maila banandu eta berezi. Zaindua eta arduragabea etenik gabeko *continuum* baten ertzak dira. Tartean, batetik besterainoko maila eta aldaerak, erlazio gradual ez-diskretuan daude, zenbatzen eta hesitzen gaitz (edo ezinezko) gertatzen diren mailetan. Hori aintzat hartzea oso garrantzitsua da ahoskera irakaskuntza praktikora eramateko orduan.

Dena den, zailtasun teorikoek ez dakarte nahitaez zailtasun handiagoa praktikan. Ahoskera Batzordeak, noski, teoriatik eskaintzen ditu gogoetak. Horien garapena, haatik, irakaskuntzak eta erabilerak ekarri behar dute. Araugintzatik ezin da gehiago egin, ez litzateke egin behar. Arauek ezin dituzte bete aldagarritasun saihetsezinaren zuloak, ezta hizketa biziaren konplexutasuna erraztu. Bokal-kontsonanteen elkar moldaketak baldintza prosodikoen jarioari egokitzen zaizkio, hitz bakoitzak hiztunari dakarkion arreta mailari, egoera sozial edo subjektiboak ematen dion barne egoerari, eta abarri.

Arau-emaileak eta erabiltzaileak bidea elkarri begira egitean legoke gako, betiere hizkerak osatzen duten konstelazio osoa gogoan izanik. Hara hona nola irudikatzen dugun euskararen ahoskeren egitura osoa:



Gauza izan behar genuke bakoitzaren etxeko euskaratik erabilera zaindueneraino etengabeko *continuum* bat eraikitzeko. Hitztun banakoaren jato-

rriak baldintzatuko luke zein lerrotan dagoen eta lerroaren zein puntutan kokatzen den bere hasiera zein bukaera. Euskara bigarren hizkuntza duenaren lerroa ez da ziurrenik euskaldun zaharrarena bezain urruti iritsiko «etxe-kotasunean».

Beste muturrari gagozkiola, inoiz mikrofono aurreko hizketa egiten ez duenaren lerroa EBAZen biribilera iritsi gabe geldituko da ziurrenik. Esaterako, herrikoentzat emandako hitzaldi batek ez ditu, nahitaez, euskaldun guztientzako Lehendakariarenak bete behar lituzkeen adina ezaugarri hartu behar EBAZetik. Gaiaren, egokieraren, irakurri/ez-irakurri estiloaren, hiztunaren nolakotasunek zeresan handia dute lerroko kokalekuak finkatze honetan.

Beti ere, EBAZ erreferentzia da, norabidea, etxeagoatik formalagora goazela. Alderantzizko norabidean, berriz, hizkera maila laxatu ahala, erreferentzia etxekoa izango da. *B* motako arauetan (3.3.) adierazten den aldagarritasuna lerro hauen mailakako dinamikan gauzatuko litzateke.

EBAZak bat baino gehiago izango dira noski, ezinezko baita ahoskera bakar beti berdin bat. Euskalkien koloreez gainera, ahozkoaren bestelako aldagarritasun eragile guztiak adierazten ditu plural horrek. Aldagarritasun hori ezinbestekoa da forma zaindua ere benetako hizkera izango bada.

Hizkuntza irakatsi eta erabiltzean ahalegin berezia egin behar genuke, euskalkien presentzia handiagoa edo txikiagoa hizketaren maila sozial edo estilistiko desberdinekin parekatzeko. Horretarako, aldagarritasunaren inguruko ideiak garbi izateaz gainera, aldagarritasun hori nola gauzatu eta irakatsi asmatu beharko da. Gorago esan bezala (2.2) euskararen historia-gatik kaleak, leku batzuetan batez ere, ez du asko laguntzen.

Guk, orain apenas dauden aldaera horiek finkatu egin behar ditugu, lefroetan kokatzeko. Finkatzeak noski irristakor eta malgu izan behar du hiztuna continuum batean mugiarazi nahi bada. Baina, nola gizarteratu arau malgu bat? Ahoskera ez da ikasten aditz formak edo kasu atzizkiak bezala. Lan honen hasieran ere adierazi da zaila dela berez. Nola bateratu, gainera, estandar berri bat aldeztu aurretik zeuden hizkerekin modu sistematiko eta zentzudun batean, batak bestea ordezkatu gabe erabat? Nola gorpuztu estandarren eta euskalkien arteko banaketa osagarria?

1996-1998 bitartean jardun zuen Ahoskera Lantaldearen ondorioetako bat izan zen ahoskeraren irakaskuntza gertuago dagoela kantatzen irakastetik, edo antzerki tekniketarik, gramatikarik edo hiztegitik baino (Oñederra 1998a). Hori gogoan hartuta bildu beharko dira alor desberdinetako profesionalen eskarmentu eta gogoak.

## 5.2. Jarrera osoak irakatsi

Aipaturiko zailtasun guztien ondoan, bada gure aldeko zerbait, erraztasun bat: ahoskera gauza «naturala» da. Ez da, alegia, konbentzionala gramatika eta hiztegia konbentzional diren neurri eta zentzuan. Horien erregela eta formak buruz ikasi behar dira. Ahoskeraren estandartzeak behar bezala funtzionatzeko, ordea, aski da funtsean hiztunak ideia ulertzea, gakoa harapatzea. Horretarako jakinaren gaineko arauetara indar handiegia ematen dienari (arauemaileoi, irakasleei, ikasleei) hiztun arruntaren askatasuna berreskuratzen utzi behar zaio, horretarako baimena eman.

Egoera zainduetarako erreferentzia da nahita eta buruz ikasi behar litzaitekeen bakarra. Hortik abiatuta eta hori beste askoren arteko maila bat dela aintzat hartuta, gainerakoak egoeraren arabera gorputza laxatzearekin letozke. Ahoskera gorputz kontua da neurri handi batean; gure gogo linguistikoa, gramatikalki antolatu eta lexikoki bete, gure belarriek entzun eta ahoak ebaki ditzakeen uhin bihurtzea, hori da ahoskatzea.

Garbi dago, noski, buruz ikasi beharreko erreferentzia abstraktu hori ere, erabili behar duenak benetako ahoskera gisa bereganatu behar duela, gainerako hiztunekin eta gainerako hizkerekkin gutxieneko zillor-hestea gorde nahi bada. Iruditzen zaigu, hori egiteko, letrak oinarri eta unitate nagusizat ez hartzeaz gogoratu behar genukeela, eta esaldien doinua ez galtzeaz<sup>20</sup>. Horregatik proposatu dugu goragoko ataletan esaldiak baliatzea ahoskeraren irakaskuntzan.

<sup>20</sup> EBAZ arauen alde onenetakoa malgutasuna den bezala (ik. 2.2.f), txarrenetakoa da azalpena Ba-tuaren letra banakoetan oinarritu izana. Horrek hizkuntzaren fonologiari dagozkion erregulartasunen adierazpena errazten badu ere, idatzia ahozkoaren ondoko dela ulertzea zailtzen du.

Konpondu nahi diren arazoen datuak ikusita eta aipatutako irizpide teoriakoak aintzat hartuta, ahoskera esaldika eta esalditan irakastearen alde gaude: hori litzateke gure aldarri garbia. *Ez dakit* [estakit] ahoskatzen arauz ikas daiteke eta buruz gogoratu, baina horrek bakarrik ez du ahoskatzen irakasten. Horrela hitz eta morfemen formak ikasten dira. Haatik, hitz egiterakoan, hiztun jatorrak ez ditu doinu eta azentuak hitz edo morfema kateetan jartzen, alderantziz, esaldiak txertatzen ditu azentuz eta doinuz osaturiko eredu erritmikoetan. Beraz, eragiketa bakarrean, bide batez, irakatsiko litzateke esaldi-doinua (*intonazioa*). Esaldietan erabilia ikasi behar lirateke, ezaugarri prosodikoekin batera, bokal-kontsonantei dagozkien EBAZ arauak, ez banaka, adibide zerrenda gehituaz arau bakoitzaren formulazioari.

Arauen betetze neurriaren eta aukera desberdinen bidez bereziko lirateke maila estilistiko desberdinetako testu irakurriak (esaterako, saiakera zati bat eta elkarrizketa arin bat), irakurria eta buruz ikasitakoa, buruz ikasitakoa eta hizkera librekoa, etab. Zenbat eta gehiago urrutiratu erabilera maila formalenetatik gutxiago bete behar lirateke EBAZ arauak, gradualki txertatuz tokian tokiko ahoskera hautuak. Zenbat eta arau gehiago estuago bete, gertuago ahoskera zaindutik.

*Naturala* delako, berezko du, eredu berritik abiatuta, ostera aldaerak sortzea. Batzuetan aldaera horiek izango dira lehendik dagoen formaren azaleratzea berriaren ondoan: esate baterako, *filologia* esatean [ɣ] ahostuna eta [x] ahoskabea biak agertzea hiztun beraren hizketan. Halakoek arauzale estuegiak izutzen badituzte ere, ezinbesteko dira hizketa bizian eta hizketa bizirik gabeko hizkuntzarik ez dago. Euskararen bizitzaren aro hau egokitu zaigu, hizkuntzaren beste aro egonkorrago baterako aitzinsolasa izango ahal da gure eztabaida.

## Bibliografia

Alberdi, A., 2014, *Ahoskera*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Amorrortu, E., 2012, «Talde estrategikoen euskararekiko jarrerak: gazte euskaldunak, erdaldunak eta euskaldun berriak», in *Marcos interpretativos de la realidad*

*social contemporánea / Egungo gizarte errealitatea interpretatzeko bideak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 43-56.

Auer, P., 2005, «Europe's sociolinguistic unity, or: A typology of European dialect/standard constellations», in N. Delbecque, J. Van der Auwera & D. Geeraerts (arg.) *Perspectives on Variation. Sociolinguistic, Historical, Comparative*, Berlin/New York: Mouton de Gruyter, 7-42.

——— & H. Spiekerman, 2011, «Demotisation of the standard variety or desandardisation? The changing status of German in late modernity (with special reference to south-western Germany)», in T. Kristiansen & N. Coupland (arg.), *Standard Languages and Language Standards in a Changing Europe*, 161-176.

Bereziartua, G., 2014, «Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo», *Doktoretza-tesia*, UPV/EHU.

Camino, I., 2005, «Euskal Soziolinguistikaren atarian», in P. Etxeberria & H. Knörr (arg.), *Nerekin yao nun: Txillardegiri omenaldia*, IKER-17, Bilbo: Euskaltzaindia, 157-187.

Donegan, P. & D. Stampe, 1978, «The syllable in phonological and prosodic structure», in A. Bell / J. B. Hooper (arg.), *Syllables and Segments*, North Holland, 25-34.

———, 1996, «Rhythm in Holistic Typology», *Workshop on Typology and Naturalness* mintegian aurkeztutako hitzaldia, SLEren 24. Biltzarrean aurkeztua, Klagenfurt, 1996.IX.5.

Elordui, A., (2016), «Elebakartasunetik heteroglosiara: *Gaztea*, bernakulizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan», *Uztaro* 97, 31-52.

——— & I. Zabala, 2009, «Euskara Batuaren garapen lexiko-diskurtsiboa: batasunetik aniztasun funtzionalerantz», in R. Etxepare, R. Gómez & J. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre*, ASJU 43 (2009) 231-246.

Euskaltzaindia, 1968, «Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria», *Euskera* 13 (1968) 250.

———, 1998, «Euskara batuaren ahoskera zaindua», *Euskera*, 43 (1998) 485-490 ([http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0087.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf)).

———, 2004, «*Adierazpena*, euskalkien erabileraz», *Euskera*, 49 (2004) 426-429 ([http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0137.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0137.pdf)).

Eusko Jaurlaritza, 2013, *V. Inkesta Soziolinguistikoa*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Gaminde, I., G. Aurrekoetxea, A. Etxebarria, U. Garay, A. Romero, 2014, *Ahoskera Lantzeko Argibideak eta Jarduerak. Laguntzarako materiala: Teoria eta Praktika*, Bilbo: UPV/EHU.

Giddens, A., 1991, *Modernity and self-identity. Self and Society in the Later Modern Age*, Cambridge: Polity.

Giles, H., J. Coupland, N. Coupland, 1991, *Contexts of Accommodation*. New York : Cambridge University Press.

Grondelaers, S. & R. van Hout, D. Speelman, 2011, «A perceptual typology of standard language situations in the Low Countries», in T. Kristiansen, & N. Coupland (arg.), *Standard Languages and Language Standards in a changing Europe*.

Hualde, J. I., 2011, «Hitz-mailako prosodiaren azterketa eta tipologia: Zenbait ondorio euskararen hezkuntzarako», in G. Aurrekoetxea & I. Gaminde (arg.), *Prosodiaz eta hezkuntzaz I. jardunaldiak*, Bilbo: UPV/EHU, 11-27.

Hurch, B., 2006, «Dissimilation», in K. Brown (arg.), *Encyclopedia of Language & Linguistics*, Philadelphia: Elsevier, 719-722.

Kristiansen, T., 2009, «The macro-social meanings of late-modern Danish accents», *Acta Linguistica Hafniensia* 41 (2009) 167-192.

——— & N. Coupland (arg.), 2011, *Standard Languages and Language Standards in a changing Europe*, Oslo: Novus Press.

Lantto, H., 2015, *Code-switching in Greater Bilbao: A bilingual variety of Colloquial Basque*, Doktoretza-tesia, Helsinkiko Unibertsitatea, Helsinki.

Milroy, J., 1994, «The notion of “standard language” and its applicability to the study of Early Modern English pronunciation», in D. Stein & I. Tieken-Boon van Ostade (arg.), *Towards a Standard English: 1600-1800*, Berlin-New York: Mouton de Gruyter, 19-29.

——— & L. Milroy, 2012 [1985], *Authority in Language: Investigating Standard English*, Londres: Routledge.

Oñederra, M. L., 1994a, «Ahoskera araupetzeaz», *Euskera* 39 (1994) 1523-1526, 1589-1605.



- , 1994b, «Abiaburu zehatz batzuk», *Euskera* 39 (1994) 1533-1542.
- , 1998a, «Ahoskera lantaldearen errendapen txostena», *Euskera* 43 (1998) 265-274.
- , 1998b, «Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak», *Euskera*, 43 (1998) 439-449.
- , 2015, «Tipologia eta hizkuntzaren erritmoa: Stampe eta Doneganen ideien inguruan», in M.-J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Bilbo: UPV/EHU, 491-499.
- Rindal, U., 2014, «Perceptions of Norwegian accented English among teachers», *SLeren* 47. Biltzarrean aurkeztua, Poznań 2014.IX.11.
- Tieken-Boon van Ostade, I. 2012, «The codification of English in England», in Raymond Hickey (arg.), *Standards of English. Codified Varieties around the World*, Cambridge: Cambridge University Press, 34-54.
- Van Hout, R., 2014, «Planning Dutch in the Netherlands and Flanders: standardisation, regional languages, multilingualism», *Language Planning. Theory and practice in dialog* mintegian aurkeztua, Center for Multilingualism in Society across the Lifespan, Osloko Unibertsitatea, 2014.X.13.
- Soziolinguistika klusterra, 2012, *Hizkuntzen kale-erabileraren VI. neurketa*. Andoain: Soziolinguistika klusterra.
- Zuazo, K., 2000, *Euskararen sendabelarrak*, Irun: Alberdania.
- , 2005, *Euskara Batua. Ezina ekinez egina*, Donostia: Elkar.



# Beste ikerketak

*Euskera*. 2015, 60, 2. Bilbo  
ISSN 0210-1564



**J. M. Etxeitaren *Jaioterri Maitia* (1910):  
Ardibasotik Ardibasorako joan-etorria**

***Jaioterri Maitia* (1910) de J. M. Etxeita:  
Viaje de ida y vuelta a Ardibaso**

***Jaioterri Maitia* (1910) de J. M. Etxeita :  
Voyage aller et retour à Ardibaso**

***Jaioterri Maitia* (1910) by J. M. Etxeita:  
Outgoing trip and return to Ardibaso**

TOLEDO LEZETA, Ana M.  
Euskaltzaindia. Deustuko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2015-12-13  
Noiz onartua: 2016-04-16

*Euskera*. 2015, 60, 2. 535-563. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Ardibasoko artzain-lagunen abentura kontatzen du J.M. Etxeitak *Jaioterri Maitian*. Ez-kontza-baimenaren ukazioak Mexikora eramango ditu artzainetako bi eta, aurrerago, bizimodua hobetu nahiak, bide berbera hartzeraz bultzatuko ditu gainerakoak. Han bizitako eragozpenak gaindituz helburuak lortzean, jaioterrira itzuliko dira. Kontatutako istorioak bizitzako aro batetik beste baterako aldaketa irudikatzen du.

**Hitz-gakoak:** ipuin harrigarria, ezohiko gertaera, frogak, laguntzailea, ereduzkoa, iraganbide-erritua.

*Jaioterri Maitia* de J. M. Etxeita narra las peripecias de un grupo de pastores de Ardibaso. Los padres de una de las pastoras le niegan su consentimiento para contraer matrimonio, lo que desemboca en el reencuentro en México de los dos pastores afectados. Más tarde se irán incorporando el resto de componentes del grupo de origen. Tras superar los obstáculos que se les presentan, regresan al lugar de procedencia, habiendo logrado satisfacer sus deseos. En definitiva, relata un rito de paso.

**Palabras clave:** cuento tradicional, intervención sobrenatural, pruebas, ayudante, ejemplarizante, rito de paso.

*Jaioterri Maitia* de J. M. Etxeita raconte les péripéties d'un groupe de bergers d'Ardibaso. Les parents de l'une des bergères lui refusent leur consentement pour contracter un mariage ce qui débouche sur les retrouvailles au Mexique de deux bergers concernés. Ils seront rejoints plus tard par les autres membres du groupe d'origine. Après avoir vaincu les obstacles qui se présentaient, ils retournent chez eux après avoir réussi à satisfaire leurs désirs. En définitive il s'agit d'un rite de passage.

**Mots-clés:** conte traditionnel, intervention surnaturelle, épreuves, aide, exemple, rite de passage.

*Jaioterri Maitia* by J. M. Etxeita retells the adventures of a group of shepherds from Ardibaso. The parents of one of the shepherdesses refuse her permission to marry, which leads to the two protagonists meeting up in Mexico. Later on the other members of the original group gradually join them. After overcoming the various obstacles they face, they return to their place of origin, having satisfied their aims. In short, it relates a rite of passage.

**Keywords:** traditional tale, supernatural intervention, tests, helper, model, rite of passage.

Euskararen militante moduan burututako eleberri bezala aurkezten du Juan Manuel Etxeitek *Jaioterri Maitia*. Gehitzen dion «berbaurre» laburra- ren bukaeran dioenez: «al dabenak al daben euskera garbijenaz argitaratzen badoguz irakurgeti ta ipuin onak, beteko dogu euskera maitia garbitzeko ta zabaltzeko daukagun egipidia»<sup>1</sup>. Horra hor bete nahi lukeen helburua. Halaber, xede moralizatzailea duen kontakizuna da, «irakurgeti ta ipuin onak» horrek aurreratu legez.

Gauza jakina da euskal kontakizunak letretan egindako ibilbide histori- koa ahula dela. 2004. urteraino ezezaguna izan den Lazarragak XVI. men- dean idatzitako eskuizkribuaren zati den artzain-kontakizunaren ostean, egun esku artean daukagun dokumentazioaren arabera, isiltasuna XIX. mende arte.

XIX.eko argitalpenek erakusten dutenez, XVIII. mendeko Neoklasizis- moak literaturari eskatutako erabilgarritasunaren bereizgarriari eutsiz, jorra- gai estimatua izatera iritsiko den alegiaren barrutitik helduko zaio berriro kontakizunari. *Ipuin onak* (1804) izenburupean plazaratzen du Bizenta Anto- nia Mogelek, Esopo alegiagilearengandik euskaratutako alegiekin eta osaba zuen Juan Antonio Mogelek moldatutako multzotik hartutakoekin osatu- tako liburua. Liburuaren izenburuak iragarritakoa gisa honetan laburbil daiteke: «ipuin» izenak, kontakizunaren esparrura igortzen du, «on» nola- kotasun adjektiboak, bere aldetik, ipuinon ezaugarri didaktikora.

Etxeita ere ildo didaktikoan kokatzen da, aipatu hitzaurrean euskara gar- bitu eta zabaltzeko eginkizunerako «irakurgeti ta ipuin onak» kaleratzea gal- degiten duenean. Haren iragan hurbilak ibilitako bidea zen, hiru mende luzetako idorraldiari amaiera jarritz, ostera ere, kontakizunak idazten hasi zirenean. Etxeitek ez du hautsiko argia ikusia zuten kontakizun urriek adie- razitako mundu-ikuskerarekin, aitzitik, bete-betean bat egingo du.

Honela bada, euskal kontakizun argitaratuaren hastapenetan gaude. J. I. Ferrerasen esanetan,

---

<sup>1</sup> Etxeita, J. M.: *Jaioterri Maitia* (1910). In Sarriugarte, I. (Ed.): *Jaioterri Maitia*, Bilbo: Labayru Ikastegia, 1988, 43. Aipu guztiak edizio horretatik egingo dira.

en un novelar, sin una producción de novelas, sin un grupo de novelistas, sin una industria editorial y sin un público, no nacen, no pueden nacer títulos de excepción, obras importantes<sup>2</sup>.

Eleberri bikainak sortzeko nahitaezkoztat jotako baldintza guztiak falta zaizkio euskal eleberrigintzari, gutxienez, XX. mendearen erdi ingurua ondo pasa arte: ekoizpena oso urria da, eleberrigile-talde bati buruz hitz egitea neurrigabea, argitalpen-industria bat eta publiko-irakurle bat, amets hutsak.

Euskararen iraupena kolokan sumatzen dute. Kontakizunei erantsitako aitzinsolas gehienek hizkuntzaren beharrezanekin zurrizten dute lantegiari ekiteko zioa. Bidenabar euskaldunaren portaera arautzeko bitarteko ere bihurtu zituzten. Hizkuntza indartzeko lanabes moduan aurkeztutakoa, euskaldunaren jokabidea zedarrizteko ere erabiltzen dute, ereduzkoztat daukaten balore-sistema gordetzen eta urratzen dutenen artean, sariak eta zigorrrak banatuz. Hala egingo du Etxeitak ere, garaikide zituen kontakizunen egileen asmoekin bat eginaz.

Baina, gatozen *Jaioterri Maitia* aztertzeraz. Iturri desberdinetako ekarriez baliatuz ondurik, idazleak sustatu nahi zituen «irakurgeti onen» artean berrera daiteke. Nolaketan adjektibo bakarra egozteaz, «on» litzateke aukerakoa; izan ere, hainbat kontakizun-motetako osagaiak bereganatuz, hobesteko eta gaitzesteko diren jarraibideak erakusteko eran antolatzen ditu.

Badu zorrik artzain-literaturaren generoarekin. Artzainak ditu pertsonaia nagusi. Ehiztari eta nekazarien artean, artzaina da denborarik eta egokierarik handiena duena kantuan aritzeko. Etxeitaren eskutik bizitza hartzen duten artzainek, artzaintza lanbide dutenean ez ezik, nekazaritzan dihardutenean ere, artzain-kantak kantatzea dute jostaketa nagusi. Hori bai, nekazari diren garaian, artzain zirenean eguneroko gozamen-eragile zutena, igandearratsaldetara murrizten dute.

Artzainen musikazaletasuna literatur genero horren oinarrietan bertan dago. Margolaritzak berak ere hala atzeman du, ezaugarri bereizgarri legez,

<sup>2</sup> Ferreras, J. I., 1973, *Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)*, Madrid: Taurus Ediciones, 307.



musika-tresna atxiki dionean margotutako artzainari. Alboka da *Jaioterri Maitiako* artzainen musika-tresna.

Kontakizun berean bertsoa eta hitz laua batu ohi ditu artzain-liburuak. Artzainen bertsoetako gai nagusia maitasuna izanagatik, berez, ez da bakarra. Bertso hauetako ahotsen kopurua ere aldakorra da: kantua bakarriketa moduan emateaz gain, elkarriketa ere bihur daiteke. Etxeitak ere bertsoa eta hitz-laua erabiltzen ditu. Eleberriraten dituen bertsoak aipatu aldaeretara zabaltzen dira: gai desberdinak, dela bakar batek, nahiz taldekideek kantatuak, dela biren artean kantatuak taldekideek erantzuten dutela...

Artzainak behe-mailako gizarte-klasekoak ziren eta Erdi Arotik Virgilioren *Bucólicas* izana zen mota horretako idazlanik nabarmenena. Estilo apalaz baliatzea eskatzen zuen aldetik, apaindura errazaz hornitzen zenez, erretorikak halakotzat jotako figuretan aurkitzen zituen berbaldia dotoretzeko bitartekoak. *Jaioterri Maitiako* artzainak ere, behe-mailako gizarte-klasekoak dira, biziko duten istorioan lortutako ondasunek besterik dakarkien arte.

Sei artzain aurkezten ditu Etxeitak bigarren kapituluan, bakoitzaren adina eta ardurapean zuen artaldearen kopurua zehaztuz. Artzain horiek dira, Ardibasoko Jule, Tomas, Amele, Sabas eta, Agaton eta Martin anaiak. Azken kapituluan, artzainok elkarrekin jarraituko dute, hildako Agatonen anaia Martinen hutsunea, Agatonen emazte Genarek betez. Martin idi batek hil zuen gertaera erabakigarriak hasi baino lehen.

*Jaioterri Maitiako* artzainek alboka jo eta artzain-abestiak abesten dituzte:

Sabasek jotzen eban ederto alboka-soñuba, ta beti soñu jotzen juaten zan ardiakaz mendirutz zein etxerutz. Agaton-korkotzek erantzuten eutsan urrunetik beste alboka bategaz, ta zantzoka ta barreka, gogaldi onakaz, juaten ziran euren artaldiak eruatera bakotxa bere tokira. Sarri batu oi ziran artzañok, alboka-soñuban jantzalditxu batzuk egitera (47).

Albokarijok jotzen ebenian soñu ezaugarri bat, artalde guztijak asten ziran etxerutz juaten; eta artzañak abesauten ebezan, artzain-abestijak esaten eutsezan abesti batzuk (49).

Horiek horrela, Ardibasoko artzainek alboka-soinuaz eta artzain-abestiez egu-  
nero gozaten dute, besteren artean, artzainaren bizimoduaz diharduten Sabasen  
aititak sortutako abestiak abestuz, abenturarako deia heltzen zaien arte. Dei horri  
erantzunez, ohikotasunetik aldendu eta, gaineratzen zaizkien eragozpenak gain-  
dituta jaioterrira bueltatzen direnean, artzain-abestiak abesten daude:

Abesauten ebezan, lenagoko eurak asmauriko koplak; eta ganera,  
Agatonek oraintsu asmauriko urrengo dagozanak (226).

Kontakizunak aurrenik jasotzen duen artzain-kantaren eta azkenaren  
artean beste bertso batzuk tartekatzen dira, direla Sabasek Ardibasotik  
agurtzeko ondutakoak, direla Agatonek, beren arteko harremanen gora-  
beherak kontatuz, ezkontza-hitza emana zion Marte gazta-saltzaileari para-  
tzen dizkionak, direla Sabas eta Jule Ameriketatik Ardibasora itzultzean  
kantatutako «Etorrerako agurrak», direla Tomasek, Agaton eta beren sen-  
diekin Ardibasorantz dakartzan itsasontzian, asmatu-rikoko koplak.

Sabasek Ardibasotik agurtzeko kantaturikoak, agurra eragin duen zioa-  
rekin ireki eta ixten dira. Tartean agur esaten die artzain-lagunei, ardiei,  
inguruari, bizimoduari (alboka jotzea eta artzain kanta gozoak berariaz ai-  
patuz), herritarrei...

Agatonek mamitutako koplek, Marteren ezkontza-kontuak dituzte kon-  
tagai. Nola ezkontza zerratuta zeukatenean, Ameriketatik etorri zitzaion  
lehengusua bereganatu nahian, luzaroan eduki zuen ezkongai-  
a baztertuta Martek eta, nola bazterketa-aldi horretan Agaton Genarerekin ezkondu  
zen, lehengusuak senitartekoen arteko ezkontza desegokit-  
zat jotzen zuelako, Marterekin ezkontzea arbu-  
iatzen zuen bitartean.

«Etorrerako agurrak», aurrekoetako bakarrizketa elkarriketarengatik  
ordezkatz-  
du; izan ere, Sabas eta Julek kantaturikoei, Sabasek eta Julek  
bakarka eta artzainek erantzun gisa kantaturikoak batzen zaizkie. Sabasek  
bakarka kantatutakoetan, Ameriketara joateko arrazoiek-  
in abiatu eta, Ju-  
lerekin topo egitea nola izan zen azalduko du. Gero, Julerekin batera, beren  
ezkontza arteko jazoerarik garrantzizkoenak kontatuko ditu.

Tomasek moldaturiko koplek ahalik eta arinen sorterrira heltzeko gogoaz  
dihardute.

Artzain literatur generoan dute jatorria pertsonaia nagusien lanbide, soinu-tresna jotze eta abestiek eratutako giro alai eta idilikoak, naturaren ikuspegi geldia eta baketsua adierazteak... Formaren ikuspuntutik, berriz, ber-soaz eta hitz-lauaz baliatzeak, estilo apala erabiltzeak...

Bestalde, gogorazi daiteke, artzain-kontakizunak ez zirela Errenazimentuan fosilduta geratu, beste zentzu eta izendapenekin jarraipena izan zutelako. Tonu idilikoko baserri edo nekazari giroko eleberria artzain eleberriaren oihartzun litzateke.

Artzain literaturaz ez ezik, abentura-eleberriaz ere elikatzen da Etxeita. Nahiz eta zenbait artzainen Ameriketarako joanaldiak isildu, itzulera guztiak kontatzen ditu. Beti arriskutsuak diren joan-etorri hauei, bahiketa, gudu, atxiloketa eta abar gehitzen zaizkie. Ataka gaiztoak bizi dituzte, azkenean, beti onik irteten badira ere. Arrisku eta misteriorik ez da falta. Pertsonaien kontakizun eta artzain-kanten txertaketak jazoeren kontaketa-aren haria etenagatik, ekintza da nagusi *Jaioterri Maitian*.

Eleberri historikoaren ukituren bat ere atzeman dakioko, gertaerak zoru historikoaren argitan behatzera gerturatu ere ez egin arren. Mexikoko Veracruz-en 1728. urteko ekainaren 24an datatzen du Basterretxe'tar Agaton-ek Basarte'tar Tomasi igortzen dion gutuna. Ia bi mendetako aldea dago istorioa idazten eta, bertan kontatutakoak, jazo ziren urtaldien artean: mende bat eta beste baten hiru laurdenak. Ez dago beste datarik, ordea. Gudu bat ere aipatzen da; horixe, aipamena baino ez, ez baita, ez zeintzuk osatzen duten alderdi bakoitza azaltzen, ez zerk aurka jartzen dituen, ez lehiak hartzen duen zabalera, ez noizko gudua den... Datu bakar bat ere ez. Hortaz, kontatzen dituen gertakizunak berauen idazketaren orainaldiarekiko urrun samar dauden alderditik soil-soilik letorkioke eleberri historikoaren ukitua: idazketaren eta kontagai diren ekintzen garaiak banantzen dituen denbora-tarte luzearengatik, hain juxtu.

Hitz batez, istorioa ez da kokatzen denboraren ardatzean. Ez da bakarrik kontatzen diren gertaeren garaia ez dela batere aztertzen, ez orduko Euskal Herriko edo Mexikoko giroaz ez dela inolako hausnarketarik egiten, baizik eta istorioa denbora mugagabe batean garatzen dela. Data daraman gutuna jasotzen du, ez horregatik, gertaerak data horrekiko harremanean harilka-

tzeko. Kontatutako istorioak zenbateko iraupena izan dezakeen sumatu ahal izateko aukerarik ere ez du eskaintzen. Testuinguru horretan, atentzioa ematen du, nola denbora mugagabe batean burututako jazoerez diharduen kontalariak, sarritan, jakinarazten duen egindako elipsiari dagokion iraupen zehatza. Elipsira jo duela agertzeaz gain, zenbat denbora barneratzen duen ere zehazten du. Pertsonaia jakinak gauzatutako ekintza bat hurrengotik zelango bitarteak bereizten duen zedarritzeko lanari gogotsu heldu izanagatik, denbora-erreferentzia hauek ez dute ahalmenik denboraren ardatzean mugariak jartzeko: elipsiak markatzeko baino ez dute balio.

Artzain-lagunen ezkontzen gorabehera, artzainon diru-aurrezte, sortzerri-min eta hauetako baten korkoxetik at gelditzen den ezerk ez du erakartzen kontalariaren interesa. Irabaziez arduratzea ezinbestekotzat ere jo daiteke, jaioterri itzultzea amets dutenei buruz ari den heinean, baita igande arratsaldetan batzen zirenean artzain-abestiak abesten zituztela errepikatzea ere, zeukaten jaioterri-min sakonaren adierazgarri eta, azkenik, korkoxen gaineko pasadizoak zama horren aringarri, baina, horrenbesteraino bildu du gune horietara arreta, istorioaren amaieran garrantzizko bihurtuko zaizkion beste kontu batzuen aurrekarietzat ez duela gorde tokirik eta, magialaria bezala, faltan botatzen duena kapelatik atera beharrean dela, bere kontaktuzunaren logika bera uneren batean hautsiz. Esaterako, Tomasek eta Amelek hiru urteko alaba zutela esan ondotik, hurrengo agerreran, izen berezi batez jabetzeaz bestalde, ezkontzera doala eransten du. Ardibasoko artzainon alaba Justek, jaioterri-mina duelako ezkontza-tratuan Euskal Herrirako etorren maiztasuna ere hitzartu nahi du, ez Euskal Herrian munduratutakoa, ez inoiz Euskal Herria zapal dutakoa izan ezin daitekeenean. Jule, Veracruzeko ospitalean gaixo zeuden euskaldunak artatzera bidali zutenean, Tomasekin eta Amelerekin aurkitu zen. Hauek esan ziotenez, zortzi hilabete zeramatzaten ezkondurik. Ez haurdunadirik, ez haurrik aipatzen diote. Beraz, Justek ezin izan Euskal Herria jaioleku.

Teknikei dagokienez, koordinatu narratiboen erabileraren ikuspuntutik, ipuinetik eleberritik baino hurrago legoke *Jaioterri Maitia*. Pertsonaien ekintzak leku-denborazko koordinatu zehaztugabeetan garatzen dira: ezer gutxi xehatzen da gertalekua, batere ez, denbora. «Bein-batian» (52, 98, 105, 113, 152) erako adierazpenari, antzeko mugagabetasun-maila erakusten

duten esamoldeak batzen zaizkio: «Luzaro ibilli ziran» (65), «Urtiak juan, urtiak etorri» (66), «illunabarrian juan zan baten» (68), «egunak, astiak eta illebetiak juanaz» (72), «Zapatu asko igaro ziran» (90). Elipsiaren iraupena neurtzen duenean ere, ez du balio denboraren ardatzean mugarriak ezartzeko. Gainera, matazaren gorabeherak gailentzen zaizkio pertsonaien azterketari. Are gehiago: ipuinak, heroien abentura kontatzen duen ipuin tradizionalak behintzat, oso bereak dituen ezaugarri baliatzen da, hala nola jazoera harrigarri<sup>3</sup>. Gertagaitzak diren gertaerak metatzen ditu eta kointzidentziak pilatzen. Horrek ez du esan nahi errealitatean oinarritzen ez denik, baizik eta bizimodu arruntekoak diren gaiez aritzeko osagai harrigarrietara jo duela. Propp-ek *Morfología del cuentore*n segidan eman zuen «Las transformaciones de los cuentos maravillosos» en esan bezala,

El cuento maravilloso, (...) es relativamente pobre en elementos que pertenezcan a la vida real. (...). No podemos resolver el problema de la relación entre el cuento y la vida corriente más que a condición de no olvidar la diferencia entre el realismo artístico y la existencia de elementos que provienen de la vida real (161).

«Bizkaiko euskeraz iratziriko Irakurgetia» ipini zuen izenburuaren azpian. «Irakurgeti» hitzarekin egun eleberri deitzen duguna izendatzen zuten. Luzerari begira eleberri legez aurkeztu bada ere, ez horrenbeste, istorioa testura eramateko moduaren aldetik, erantsiko nuke.

Heroiek denbora mugagabe batean bizi dituzten abenturek aldaketak ekarriko dizkiete: emigratu, familia sortu, irabaziaz hobetu eta itzuli. Dena den, familia osatzeari dagokionez, senar-emazteek eratzen duten guneaz soilik dihardu; izan ere, Sabas eta Jule seme-alaben guraso zirela ez du ezaugarritzen Euskal Herriratu arte. Aipamen bakarra da, zeren eta ordu arte

<sup>3</sup> Gisa honetan mugatzen du V. Propp-ek ipuin harrigarria: «Se puede llamar cuento maravilloso desde el punto de vista morfológico a todo desarrollo que partiendo de una fechoría (A) o de una carencia (a) y pasando por las funciones intermediarias culmina en el matrimonio (W) o en otras funciones utilizadas como desenlace. La función terminal puede ser la recompensa (F), la captura del objeto buscado o de un modo general la reparación del mal (K), los auxilios y la salvación durante la persecución (Rs), etc.» Propp, V., 1977, *Morfología del cuento*, Madrid: editorial Fundamentos, 4. argitalpena, 107.

ezkutuan gordetako datuak hala jarraituko du aurrerantzean ere: une horretan baino ez ditu ahotan hartzen. Antzera jokatzan du gainontzeko artzainekin ere. Tomasek eta Amelek, Justez gain, beste ondorengorik ere bazutela, lehen eta azkeneko aldiz, bueltatzera doazenean adieraziko du. Gauza bera gertatzen da Agatonen eta Genareren seme-alabekin.

Tomas eta Amele, Agaton eta Genare senar-emazteek itzulerarako presakuntzei ekiten dietenean, magialariak kapelatik aterako lituzkeen bezala ateratzen ditu kontalariak bikote horien seme-alabak.

Mexikon dauzkaten etxaguntzen etorkizuna ziurtatu beharrean dira herriratu baino lehen. Eginkizunari aurre egiteko, ordurako Ameriketako ibilerak amaituta, berriro Ardibaso bizileku zuen Sabasi idazten dioten gutunak eskaera bat jasotzen du: joan daitezela Mexikora Tomasen anaia Silbester eta Juleren neba Baleren etxaguntzen ardura hartzera. Eskaera betez, Mexikorako bidean jarri ziren estreinakoz izen bereziz izendatzen dituen bi gazteak. Urtebetera, jada bere egitekoez jabetuta zeudenean, Sabasen gutuna dator, esanez, guraso eta senideek gura zutela, Ardibasora itzultzeko zirenak bidaia hasi aurretik, Baleren Agatonen alaba Aurerekin ezkontzea eta Silbesterrekin ezkontzeko Ardibasotik bidaliko zutela Juleren ahizpa Miren. Hortxe jakinarazten du Agatonek eta Genarek Aure izeneko alaba bat behintzat bazeukatela. Baita Julek Miren izeneko ahizpa bat ere. Ezkontza hauen eta Justerenaren ostean, «Tomas ta Agaton euren emazte ta seme-alabakaz ontziratu ziran» (208). Horra seme-alaben agerrera bakarra, aurrerantzean ez baitute besterik izango, ez ontzian bizi izan zituzten gorabeheretan, ez gorabehera horietako bat dela eta, Londresen egiten duten egonaldian, ezta Ardibasoratu ondorengo kontuetan ere. Mexikon irabazi dituzten ondasunen kudeaketa erabakitzeke eretian, magialari bihurtzeko premia du: orduraino zeharo ezezagun edo izen bereziaren eramaile ez ziren pertsonaiak aurkezten ditu.

Ezohiko gertaeren maiztasunak, ustekabeko jazoeren metaketak, kointzidentzien pilaketak, bat-batean pertsonaia berriei sarrera emateak eta abarrek garamatza ipuinetik eleberritik baino hurbilago atzematera. Baita eredu zirkotasun-balioa duen eredu narratiboa izateak ere, ipuin tradizionalako hartzaileari irabazi moralak eskuratzen zaizkion bezala, *Jaioterri Maitiakoari*

ere helarazten baitzaizkio. Nahiz Etxeitaren eleberriaren morfologiak, nahiz eraketarekin jarraibideak hobesteak seinalatzen duten ildo da. Horrengatik guztiarengatik, hain zuzen ere, iraganbide-erritua oinarri izan dezakeen istorio moduan irakurriko da gaurko saio honetan.

## 1. Iniziazio-erritua

Iniziazioa klan-sistemaren erakunderik bereizgarrienetakoa da. Erritua pubertarora iristean ospatzen zen. Gaztea tribuko partaide egiten zuen ospakizunak eta komunitateko benetako kide bihurtzean, ezkontzeko eskubi-dea beretzen zuen. Horra errituaren eginkizun soziala.

Iniziazioaren zikloa ipuin harrigarriaren oinarri zaharrena da<sup>4</sup>.

Gizabanakook mamitzen ditugun aldaketa-prozesuei lotuta daude iraganbide-errituak. Gizabanakoa bizitzako aro desberdinak igarotzera laguntzen zuten osagai sinbolikoak ziren iniziazio-errituak antzinako gizarteetan: ezaguna zenetik atera eta ezezaguna zenaren atarian barneratu, beste egoera bat lortzeko. Ezaguna zuena atzean laga eta ezezaguna duen barrutian sartzean, hasten du heroiak bidaia.

Artzainen sentimenduen iratzartzearekin abiatzen da berariaz mataza dena:

Urtiak jua, urtiak etorri, ezagutu zan Jule ta Sabasek alkarri eutsen maitetasuna, ta baita Amele ta Tomasek be. Ganera esaten zan Agaton-korkotx be, Beterriko neska gaztai-saltzalle bategaz ebillela ezkontza asmuetan (66).

Abenturarako deia jaso dute Ardibasoko artzainek. Sabasekin ezkontzeko baimena ukatuko diote Juleri gurasoek. Oztopoa Sabasen gizarte-klasean dakusate: otseina da. Bestalde, Julek badu eskaintza hoberik: Karlos indianoa. Julek, gurasoen ezezkoari men egitearekin batera Karlosekin ere ez dela ezkonduko gaineratzen die, ekandu txarrak dituela argudiatuz:

<sup>4</sup> «el ciclo de la iniciación es la base más antigua del cuento maravilloso». Propp, V., 1981, *Las raíces históricas del cuento*, Madrid: editorial Fundamentos, 3. argitalpena, 524.

Ama, ni enaz ezkonduko Sabasegaz bere, aitamok nai ezpozube;  
baña Karlosegaz bez, ekandu txarrak daukazalako (77).

Gisa honetan, ohikotasunetik bereizi eta frogen aldira igarotzen dira Jule eta Sabas.

Ipuin tradizionalaren korapiloak heroia-aren ezbehar bat eta etxetik irtetea aurkezten du. Gurasoen etxea utzi eta, gaixo-zain joan zen Beterriko gaixo-etxe batera 22 urteko Jule gaztea. Egun batean gaixo-etxeak pairatutako sutearengatik, gaixo-etxea desagertzearekin, gaixo-zainak ere urrundu ziren. Gaixo-zainak aldendu zirenean, alboka jotzeko eta artzain-abestiak kantatzeko gogoia amaitu zitzaizkion Sabasi. Sei hilabetera Mexikoko Veracruzera emigratzeko aukeraz baliatuz, harako bidea hartu zuen, bihotza, zeukan bezala hilik edukita, ez zuelako adorerik Ardibason segitzeko. Agurrerako moldatu zuen bertsoan, lehen ahapaldiko azken bi bertso-lerroetan, «Urrunera narube / Neure naigabiak» (79) aitortu ondoren, azken ahapaldia, Jule agurtzeko gordetzen du, zergatik jarri zen gaixo-zain galdetuz eta betiko maitasuna aginduz.

Bihotza hilik zeukan. Errituan ere, haurra hil eta gizon berri moduan pizten zela uste zen.

Beterriko gaixotegia errez gero, Juleren arrastoa galdua zuen Sabasek, bi urte etxaguntza batean lanean zeramatzanean, Mexiko hiriko ospitalean aurkituko du. Lantoki zuen etxaguntzakoak harrapatu zituen gaixotasunak Sabas ere kutsatu eta, Mexiko hiriko ospitalera bidali zuten. Hantxe zegoen Jule eta berehala ezagutu zuen Sabasek, nahiz eta gaixotasunak ekarritako itxuraldaketarengatik gehiago kostatu zitzaion Juleri Sabas ezagutzea: Ardibason zeudenean ez zeukan bizarra, gaixotasunak sorrarazitako haragi-galtzea, zurbiltasuna... begietaratzen ditu.

Batez ere, ahozko ipuin tradizionalak oso berea duen ezohiko eta gerta-gaitza den jazoera erabiltzen du kontalariak. Ardibasoko artzainek bizi dituzten abenturetan zailtasunak agerrera egiten duenean, kointzidentzia, zoria eta batik-bat Jainkoa izango dituzte lagun.

Pertsonaioi suertatzen zaizkien arrisku-une guztietatik onik ateratzeko ezohiko gertaeraren eragina hain nabarmena izanik, azkenean, naturaz



gaindiko indarren jarduna saihetsezin bihurtzen zaio kontalariari, Jainkoari edo mirariari toki egiteak erakusten duenez: «laurak, mirariz antzera, aurkitzen ziran batera atzerrijan» (136).

Izadiaren eta, salbuespenen batean ezik, logikaren arauak zaintzen badi-tu ere, pertsonaien gobernu kointzidentzien pilaketan, zoriaren edo Jaungoikoaren borondatearen baitan uzteak normala dena urratzen du. Ezohiko gertaeretan espezializatzen da kontalaria. Sabas eta Jule ere ohartzen dira ezohiko jazoera batek elkartu dituenaz eta, nola zori, patu eta abarrek ez duten lekurik beren mundu-ikuskeran, biek Jaungoikoaren erabakia sumatzen dute. Jaungoikoari egozten diote Mexiko hiriko ospitalean topo egin izana. Sabasek dioenez, «Nik Jule, Madriden zengozala uste neban; eta, ona emen nora ekarri zaituzan Jaungoikuak beti maite izan zaituzan gizasemea-ri bere gexua osatutera!» (82). Eta Julek, berriz, «Nok esango eban emen batera aurkituko giñala? Jaungoikoaren lan miragarriak dira onek gertae-rok!» (82). Ospitalean zeudela «artu eben bijak alkarregaz ezkontzeko bu-rubidia, Juleren gurasuaren baimena lortuten bazan» (83). Beste behin ere, ordea, ezezkoarekin erantzungo diote gurasoek Julek idatzitako gutunak galdatzen zuen ezkontza-baimenari. Eroapenez itxarotea da errepikatu den eragozpenari aurre egiteko gazteek hartzen duten jarrera.

Eroapenez baimena itxaroten jarraitzeak ez du, haatik, ekintza balioga-betzen, oztopoa gaintitzen lagun diezaiokeen laguntzailearen bila Sabasek emandako urratsak agerrarazi bezala. Ardibason ugazaba zuenaren semea-rengana jotzen du, esanez, irabazi onak dituela, mila eta bost ehun ogerle-koren jabe dela, Julerekin ezkondu nahi lukeela eta, mesedez, ahalegindu zedila haren gurasoen oniritzia lortzen. Dirudienez, lehengo ugazabaren semeak bete zuen eskaria; izan ere, Julek gurasoengandik jasotako gutun berriaren arabera, begi onez ikusten dituzte Sabasen irabaziak eta aurrezpe-nak, baina Jule Ardibasora itzultzera, haiei eskuan muin egitera eta barka-zioa eskatzera baldintzatzen dute ezkontza-baimena, gurasoen nahien aurka gaixo-zain joateagatik egindako hutsa ordaintzeko.

Gogoz kontra bada ere, onartzen dute Juleri ezarritako betekizuna. Beste froga bat; izan ere, bakoitzak bere aldetik Ameriketara egin bidaiak eraku-tsia, Sabasek eta Julek badute eskarmenturik itsasoak sorrarazten dituen

arriskueta. Kontalariak haranzkoaren gorabeherak isildu dituen arren, pertsonaiok bizi izan dituzte eta agintzen dioten joan-etorrian Juleri gainera etor dakizkiokeen galbide, kalte eta arriskuak beldurtzen ditu. Aurreikusi bezala gertatzen da: itsasoratu eta seigarren egunean hasi ziren haize eta ekaitzek eragindako kalteak konpontzeko Habanan hartu zuten aterpe. Hamabost egunetara irten eta, ekaitz erraldoiak mastak puskatu eta, itsasontzia noraezean uzten du. Ur eta janariaren errazionamendua, harik eta hamabost egunetara Lisboara zihoan ontzi batek jaso eta, «itxasketan eguraldi txar asko artuaz» (106), lurreratzen diren arte.

Oztopoak amaitu eta, itxura batean, nahia eskuratua zutenean, traba berriak galarazten du. Jule ezkontza-baimenarekin Ardibasotik iristean, Sabas giltzapean dute, guda gogorraren erdian lantoki zuen etxaguntza hartu zuten soldaduei aurre egin zielako, nagusiaren ondasunak babesteko. Jule joango da atxilotuta daukaten lekura eta, gatibuak bere eginbidea bete baino ez duela egin argudiatuz, preso askatzea eskatuko dio agintariari. Bi mutil hil izanagatik, Sabas hiltzeko agindua edozein unetan hel daitekeela eta, Mexikon dagoen goragoko agintariarengana lehenbailehen jotzea aholkatzen dio solaskideak. Mexikoko Apolinar izeneko agintariarekin bildu aurretik Sabasen ugazabarekin batuko da. Hiru bider ukatu diotela Sabasen askatasuna jakinaraziko dio ugazabak, baina, Jule agintariarekin elkarriketatzen denean, honen emazte Juste izango du laguntzaile. Zortea beste behin ere! Agintariaren emazteak Julek bere buruari ahots goraz euskaraz esandakoa ulertuko du. Justek aitortzen dionez, euskaldunak zituen gurasoak eta beti maitatu ditu euskal herritarrak. Horregatik, aginduko dio: «Egingo dot al dodana zeure alde» (109). Agintariak emaztearen hitzak bere egin ondotik, bi hilabeteren buruan askatzea hitzematzen dio, nahiz eta aurretik gerra bukatu izanak Sabasen gatibualdia laburtu zuen.

Gainditu dute elkarrekin ezkontzeko jasandako azken frogak: «Hainbeste naibage ta gora-bera igaro ta gero, eldu ziran, euren maitetasun zintzuaz, eldu biar eben tokira; alkar maitetuaz, alkarregaz bizitera» (111).

Ezkontzarekin ez zaie bukatu frogen garaia, ordea. Ezkontzeko zeukaten behaztopa-harriak jaioterritik urrutiratu ditu. Zoriontsu ziren Ardibasoko artzainok, Juleren gurasoek ezkontza-baimena ukatzean, zoriona galdu zu-

ten arte. Ohiko bizimodutik bereiziz eta zailtasunei aurre eginez bilatzen zutena aurkitu badute ere, lorpenarekin herriratzea dute, haatik, eginkizun. Gizarte-klaseak eragozten zion ezkontzak atera zuen Sabas Ardibasotik eta honekin ezkontzeko ezezkoak Jule; orain, berriz, garaipenarekin bueltatzeko tenorean daude. Itzuleraren ataria igarotzeko eretia da.

Abenturarako deiari erantzunez, atari bat iragan zuten, irteerarena, iniziazio-prozesuan sartzeko. Iniziazio-prozesuan frogei nagusitu ostean, itzuleraren atarian barneratzeko unea da. Irteera eta iniziazio-prozesua mingariak izan dira. Halakoa izango da itzulerarena ere.

Etorrerarako hartu zuten «Loyola» ontzian, eguraldi oneko egunak arztain eta euskal abestiez gozatuz, ekaitz egunak, ostera, ikaraturik, ematen zituztela, ezohiko gertaera berri batek asaldatuko ditu: ontziko bidaiari bati urre gorritan lapurtutako mila ogerlekoak Sabasen ohe azpian agertu dira. Giltzaperatu zutenean, Jaungoikoaren laguntza eskatu zuen. Julek, gatibu zeukaten senarrarekin batera egotea galdegin eta gero, biek laguntzaile berarengana jo zuten, Jaungoikoarengana. Ezohiko beste jazoera batek konponduko du arazoa: ontziko bidaiari batek lapurreta aitortzen du. Kontalariaren arabera, Jaungoikoaren laguntza jadetsi zuten Sabas eta Julek:

Bai Jaungoikuak ezaban nai izan errueza katigu egon zeitian (169).

Itzuleraren atarian barruratu zirenetik jasandako frogak goituta, Sabasek gogotsu besarkatu zituen Juleren gurasoak. Baita hauekin bizitzen geratu ere, eurentzako etxea egin arte.

Sabasen gurasoei buruzko zertzeladak kontakizunaren hastapenetako zeharkako aipamen soil batera mugatzen dira, pertsonaia nagusiak aurkeztean adierazitako «Goiketxeak euken seme bakar bat» (46) baino ez. Horren bazterrean lagatako etxera nekez itzul zitezkeen Sabas eta Jule, baina, aldi berean, garbi dago kontalariak egin hautua: Juleren jatorrizko etxera bihurtzen dira. Hala gertatzen da beti ipuin tradizioaletan, senarra emaztearen leinuan sartzten da eta horregatik harreman matriarkalaren isla moduan behatu izan da ipuin tradizionala.

Ardibason hasitako bidaia Ardibason bukatu da, zailtasun guztiak menderatu eta gero. Elkarrekin ezkontzea jomuga, egunerokotasuna bertan

behera utziz, bikoteak bizitako abentura amaitu denez, buelta daitezke berriro ohikotasunera, abiapuntukoarekiko desberdina den egunerokotasunera, egin duten bidean berenganatutako irabaziei esker. Julek eta Sabasek badute gura zutena, Sabasek oztopo zuen gizarte-mailak sorrarazi dizkien ibilerak azkentzean. Ardibatoratu eta, bigarren egunerako, artzainekin artzain-abestiak abesten daude «euren antxiñako artzain aldirian abesauten ebezan lez» (173), Sabasek asmatutako etorrera agurreko bertsoekin itxiz saioa. Ardibasotik urrutiratu zituen bidaiaren aurretik artzaintza ogibide eta zaletasun zutenek, jada ez dute ogibide, zaletasun huts baino, Sabas eta Julek «zeuken lan-arazorik eta euren atsegin ezitsubena izaten zan, auzoko artaldia goizaro mendiratu ta illuntzian etxeratzia; beste etxietako artzañakaz artzain-abestijak abesauteko goguz» (179).

Propp-en azterketak erakutsi zuenez, ipuin harrigarri tradizionalak igarobide-errituak adierazten dituzte. Ipuin hauetako heroia iniziatu gaiarekin bat dator eta bere borroka inimizio-frogen metafora da. Froga hauei nagusitzean heroiak altxor bat eskuratzen du (inimizio-ezaguera), balentria aintzat hartzea eta, familia sortzeko eskubidea. Noraezean Ameriketara emigratzean igaro zuen Sabasek errituetako sarbidea eta, han, lehen behaztopa-harriak gaindituta familia eratzea lortu ostean, Ameriketatik Ardibatorako etorreran jasandako azken froga garaituta, bere komunitatearen aitopena jasoko du.

Ardibasoko beste bi artzain ere jarri ziren Mexikorako bidean: Tomas eta Amele. Ardibasotik Mexikora joanak zirela kontatu gabe zeukanean, bat-batean, beste ohiz kanpoko gertaera batez baliatuz jakinarazten du kontalariak.

Veracruzzen zabaldu zen izurrite ikaragarria zela eta, hango ospitale batera bidali zuten Jule. Hiru hilabetera, Julek lantoki zuen ospitalera senar-emazte euskaldun batzuk eraman zituztela eta, hauek artatzeko eskatu ziotenean, nor izango senar-emazte euskaldunak eta, Tomas eta Amele izan. Gaixo zeuden arren, ez zitzaion gertatu Sabasekin bezala: berehala ezagutu zituen. Amelek Juleri esaten dionez bizimodua aurrera ateratzea izan dute atzerriratzeko zio:

Tomasenian ziran bost nebarreba, ta Tomasentzat ezeguan ezkontzari apur bat baño; nire aldetik, nebiarentzat zan etxaguntzia, ta

niretzat ezkontzari apurtxu bat. Ezkeunkan basetxe bat non bizi, ta gengoan geure aitamak elikatuten gendubezala geuk lanetan lagundubaz; baña nire nebia ezkondu ezkeru, ezin bizi izan giñeitezan etxe atan. Orregatik, Amerikatara gizadija biralduten ebiltzan salerosliak agertu ziranian (...) artu genduban ona etorteko burubidia (96).

Hilzorian egotera iritsi ziren Jule eta Amele sendatu ondoren, Takigapo etxaguntzan otsein moduan lanean hasi ziren Tomas eta Amele, baina, zergatik ez zekitela, ugazaba haserre zeukaten. Horretan, ugazabaren bi semeetako bat zauriturik aurkitu zuten, berba egiteko ere gauza ez zela. Tomas, Amele eta zauritutakoaren anaia giltzaperatu zituztenean, Tomas eta Amelek Jaungoikoaren laguntza eskatu zuten: «Sarri egiten eutsezan eskarijak Jaungoikuari zelanbait argitu eien gertaera guztijen edestija» (131). Tomas eta Amele preso zeuzkaten presondegian bisitatu eta gero, Sabasek Takigapo etxaguntzara jo zuen, zaurituaren gurasoei, besteren artean esatera, sortutako auzian Jaungoikoak bitartekaritza egingo zuelakoan zegoela:

baña uste dot Jaungoikua jarriko dala bitartez auzi orretan, bako txari bere sarija edo zeatzia emoteko (131).

Sabas igarleak igarriko du. Berrero, ezohiko jazoera bat tarteko helduko da laguntza: seme zaurituak hitz egiteko ahalmena berreskuratuz, anaiak jipoitu zuela aitortzen du. Horra hor, Sabasen usteari eta, Tomas eta Amelearen eskaerari erantzuna.

Gertatuak gertatuta, Takigapo etxaguntzan jarraitzerik ez zutela bere eginda zeukaten Tomasek eta Amelek, nagusia jakinaren gainean jarri aurretik, atzera ere, laguntza jasotzen dute: dirudienez, Sabasi hil berri zaio langile bat eta honen lekua betetzea eskaintzen die, berrogei ogerleko soldatarekin Tomasi, eta, hogeikoarekin, Ameleri. Besterik ere egiten du Sabasek: Ameriketara joateko agindu zizkioten lur eta etxeak eskuratu ezinik zebilen Tomasi, hauek bereganatzen lagundu. Non emango lurrok eta, Sabasen etxaguntzatik hurbil samar: beste behin ere, zortea lagun. Horiek horrela, aurreratuta zeukan diruarekin alogereko izatea utzi ahal izan zuen Tomasek eta eragozpenak gaintituz, oreka beretu. Jai egun guztietan, bi bikoteak biltzen ziren «ta guztiz gogotsu abesauten ebezan Ardibason gazetetan abesau oi ebezan artzain-abestijak» (136).

Oraindik, ordea, Tomas eta Amelerentzat ez da amaitu frogen aldia. Lapur batzuk Tomas bahitu eta, berreskuratze saria galdegiten diote Ameleri.

Sabas Ameriketatik Ardibasorantz zekarren itsasontzian atxilotu zuteanean, honen emazte Julek harekin batera atxiloketa pairatzea aukeratu bezala, Amelek ere, diru-ordainketa egiteko hitzartutako elkartzegunean itxarongo du Tomasengana eraman dezatela erregutzeko bahitzaileei. Eskaria onartu ziotenez, bahituta zeukaten tokian batuko dira senar-emazteak. Lapurrek Ameleri galdetzen diotenean, «Zegaitik azartu zara, gau illunian etorten ezagututen eztozuzan gizonakaz?», honek, «Il zein bizi, senarra alikarriñen ikusi nai izan dodalako; orain ondo nago ilteko be, senarragaz» (187) ihardetsiko du.

Larrialdia igarotakoan gogoratuko dira galeraz. Tomasen hitzetan, «Geure ekinialako lanakaz urte batzuketan irabazi doguna, eruan deuskube» (187). «Artu eruapena» da ezbeharrari aurre egiteko modua. Baina, Sabas eta Jule eroapena hartzeari lotu zitzaizkionean, Sabasek laguntza eskatu eta erdietsi legez, Tomas eta Amelek ere laguntza jasoko dute, Mexikoko epailearen jardunagatik. Epaileak, lapurren berri zuenak Auzitegira jotzeko jakinarazi zuen. Hala egin zuen Tomasek, baita soldaduak bahituta eduki zuten lekura gidatzeko prest azaldu ere. Lapurrek atxilotuta, dirua bihurtzeaz gain, sakelako urrezko erloju bat oparitu zioten Tomasi bide-erakusle izateagatik.

Kontalariak aurkeztutako sei artzainetatik bostek izango dute atzerria bizileku, bosgarrena ere, Agaton korkox, Ameriketara joango baita. Esan bezala, seigarrena, Martin besobakar, Ardibasoko artzainen abenturak hasi aurretik hil zen, idi baten erasoaren kariaz.

Sabas, Jule, Tomas eta Amele Mexikon jai egunetan biltzen zirenean artzain abestiak abesteko «utsune andi bat ikusten eben: Agaton-korkotx alboka soñuba jotzen, izaten zan gaztetan bosgarren artzain-laguna, ta aren utsunia eguan euren artian» (137). Sabasek dioenez, «irabaziko jubek biziteko biar daben gaña, baña ona baletoz, uste juat gehiago irabaziko leukie-la» (137). Tomasek arreba Genareri, Agaton korkoxen emazteari, zuzendutako gonbitari abegi ona egin zioten hauek, zeren eta «diru gutxi aurreratuten eben, eta urrunera jua bihar izan arren, irabazbide obiaki poztu ebazan» (139).

Diruarekin ala gabe, itzultzeko asmo sendoarekin abiatzen da Agaton: Ardibason nahi luke betiko atsedean hartu. Negarrez agurtu senitartekoak eta «Ijeldo» ontzian itsasoratzen da emaztearekin batera. Bidaiek arriskutsu izaten segitzen dute: izu-ikararik gutxitan ateratzen dira. Hasteko, Bermeoko txalupa bat hondoratu izanak, Santanderren gelditzera behartu zituen hondoratutako txalupakoak lurreratzeko eta beren ontziak jasandako kalteak konpontzeko. Atzera itsasoratu zirenean, beste ontzi batek jo eta, kalte berriei aurre egiteko A Coruña dute hurrengo geltoki. Zailtasun hauek igaro eta, ostera ere, bidaia jarraitzeko direnean, Genare, Agatonen emaztea, «Osasunaz eltzen bagozak, beste bein orraitiaño enaiubek arrapauko itxasuok. Jakin izan banesuban olako galbidiak dagozala, ni etorri? Bai zera!» (143) esatera daraman kinka larrian sartzan dituen ekaitzak harrapatzen ditu.

Ardibasoko bost artzainak Ameriketara batu behingoz eta, hurrengo igandean bertan, «Agaton eta Sabasek antxina lez alboka soñuba jotzen iardubela, ta toki atan abesau ebezan gogotsu Ardibason gaztetan abesauten ebezan artzain-abestijak» (146).

Tomas eta Amelek bueltatzea erabakitzen dutenerako, Agaton eta Genarek ere, diru-egarri handiagorik ez eta, prest daude hauekin batera etortzeko. Ardibason ondo bizi izateko beste baliabide daukatenean, Sabas eta Julek bezala, herriratzea dute jomuga.

Aurretik itzuli ziren bi artzain-lagunen bidaia gorabeheratsuen parekoa jasango dute. Egun politak izango dituzte «Oiz-mendi» itsasontzian, ekaitzak estutasunak dakartzkien arte. Ekaitzaren osteko lasaitasun-egunak beste itsasontzi batek jo zituenean bukatu ziren. «Oiz mendi» arin hondatu zenez, beste ontzia dute aterpe. Jaso zituen ontziak elikagai gutxiegi eta, lehen egunetik bertatik, janariaren errazionamendua, Ingalaterrako itsasbaterrean sartu ziren arte. Londresen iragandako hogeit eta hiru egunen buruan, Bilborako ontzia eta hemendik zaldi-gurdian Ardibasora. Ardibaso izan zuten beti Lurbira honetako zeru. Azkenik zeruratu dira. Berrero, eguero euren abestiak abesten dihardute Ardibason.

Artzainok tokiko heroiak dira, noski; ez unibertsalak. Kontatutako istorioak banakoaren helburuetara biltzen du arreta, biktima hobengabeei eta gizartean gauza handirik ez daukatenei egin dakizkien ordainetara. Garai-

Gaiak diruarenganako atxikimendu gehiegizkoak dakartzan kalteak azpimarratzen ditu, eta Etxebeste eta Alkorta aktoreak goresten zituen be-

ren lanean eta besteen gaintik ezartzen La Voiz de Españako Aramburu kazetariak (1966-IX-10). Joshe Leon bezala sinatzen zuen beste kazetari batek (Unidad de la Tarde, 1966-IX-10), laudorioz betetzen zituen ere Etxebeste, Pérez lapurraren paperean lana ongi burutzen zuelako, hala nola Alkorta, bankariaren pertsonaia eta kontzientziaren ahotsa antzetzten zituen, ama eta alaba kaxkarin eta diru xahutzaile amorratuak erortzen baitziren lapurren eskutan eta hauek eramaten baitzuten diru guztia infernura.

Page 11 EL DIARIO VASCO San Sebastián, 9 de septiembre de 1966

**ESPECTACULOS** • **ESPECTACULOS** • **ESPECTACULOS** • **ESPECTACULOS** • **ESPECTACULOS**

**TEATRO PRINCIPAL**  
HOY, 9 de septiembre de 1966  
12.00 de la tarde y 8 de la noche

**FIESTAS EUSKARAS**  
**TEATRO VASCO**

Organizado y patrocinado por el C.A.T., a cargo del Claustro de Actores de la REVUELA DE LA LENGUA Y DEL CLAMORION VASCO, del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

Comedia publicística estrenada en el escenario teatral euskaldun organizado por "ADORA" y dirigida por PIERRE LAMAZOU.

**INPERNUKO DIRUA**  
(LOCALIDADES EN YAQUERLA)

A las 7.30 y a las 9.30 de la noche. Anual y gratuito por suscripción.

**ANTZOKI ZAARREAN**  
1966ko, Irailak 9  
Aurrizaleak 7,30'ra eta pasako 11'ra

**EUZKO JAIEATAN**  
**EUSKAL ANTZERKIA**

Monografía C.A.T. de teatro de Antzerkiaz: EUSKAL ANTZERKIA TALDEAK, teatro euskaldun. PIERRE LAMAZOU, antzerkialari euskaldun. ZAMAL, antzerkialari euskaldun. Antzerkiaren errealismo, literatura eta teatro, literatura, literatura eta teatro.

**PARA DIVERTIRSE A VOSTRO PARA PROPORCIONAR A VOSTRO CALABAZAS SIN FIN PARA HACERSE VOSTRO SUS PRODUCCIONES!**

**¡ILEGAL!**

**EL ARTE DE NO CASARSE**

Concha Velasco con la colaboración de ALFREDO LAMBA y JUAN MARIN.

**MUSICA**

**La conferencia de Bello Puro**

Se celebró en la noche del 8 de septiembre en el teatro principal de San Sebastián la conferencia de Bello Puro, organizada por el Centro de Atracción y Turismo de San Sebastián.

El conferenciante fue el Sr. Bello Puro, quien habló sobre el arte de no casarse, un tema que despertó gran interés en el público asistente.

**¡Últimos días de proyección!**  
SUPERANDO TODOS LOS RECORDS INTENSIFICANDO A TODOS LOS NIVELES COLAS DE LA MEJOR PELICULA DE LA TEMPORADA!

**COMO UN TRUENO**  
JEAN CABRE - LUI PALMIER

La película más extraordinaria de la historia del cine.

**CINE SAVOY**  
MANANA, SABADO, 1.30, 18.00, 20.00 HORAS DE TENDENCIAS. (Cine de Películas de Cine)

**Se ruedan dos películas a la vez**

En el teatro principal se están rodando dos películas a la vez. Se trata de obras de gran calidad que serán estrenadas en los próximos días.

**REX MANANA**  
**ESTRENO EXTRAORDINARIO**

**NEW ZYRUSKA**  
**UNA INCOMPARABLE**  
**ADAPTACION**  
**DE UNO DE LOS MEJORES**  
**DE LOS MEJORES**

**CENIZAS Y DIAMANTES**

Gran película de aventuras y acción.

**I FESTIVAL DE JAZZ**  
Organizado por el Centro de Atracción y Turismo

**Sábado, 10, Plaza de la Trinidad, 7,30 de la tarde**  
**FESTIVAL AFICIONADOS**, con la participación de los conjuntos

QUARTET R.C.B. de Francia  
THE ORIGINAL BIKERLADERS, de Francia  
MICKY BAKER, americano

**Domingo, 11, Museo de San Telmo, 7,30 de la tarde**  
**FESTIVAL PROFESIONALES**, con la participación de los famosos conjuntos

MIDDLE BROTHERS, de Francia  
JIM SAND JONES, de Francia

**CON LA PARTICIPACION DE UN CONJUNTO DE BARCELONA, ZARAGOZA Y SAN SEBASTIAN**

**Premio al Mejor Solista y Premio de la Popularidad Otorgado por el Público**  
**VALIOSOS REGALOS DE LA CASA RADIO ORTEGA-PHILIPS Y CASA TRIVIT**

**PROGRAMAS DE RADIO Y TV**

**RESEÑA DE RADIO**  
Programa de radio con noticias y entrevistas.

**RESEÑA DE TV**  
Programa de televisión con películas y programas especiales.

Unidad de la tarde. 1966-IX-9

Euskera. 2015, 60, 2. 585-616. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Anton Luku zuzendari, obra hau Garazin berriro taularatu da 2013an, ia mende erdi geroago, bere funtsezko balioak argi uzten dituelarik.

Ezaguna da ere ETAk 1968ko abuztuaren bian hil zuela Meliton Manzanasko torturatuaren ezaguna eta askok sufritua. Biharamunean Gobernuak Gipuzkoarako *Estado de excepción* delakoa dekretatu zuen eta makina batek pasatu beharra izan zuten polizia-etxetik eta kartzelatik, tartean Joseba Arregik.

Urte honetan, famatua ere Pariseko maiatzeko mugimenduagatik, Telesforo Monzonekin batera **Matalas** obraren zuzendari izandako Roger Idiartek kontatzen du nola joan zirenean Baionako teatroko administratzailearengana antzokia alokatzera, honek esan zien ea nola espero zuten sala betetzea, teatro frantsesak lortzen ez zuenez gero. Hala eta guztiz ere euskal teatroak bete egin zuela antzokia. Daniel Landartek esaten digunez, *Etxahun*, *Bordaxuri*, *Matalas...* pastoral berrietako beste pertsonaia ospetsu anitzetan gertatzen zen bezalaxe (*Etxahun* 1962, *Santxo Azkarra* 1963, *El Señor de Iruri* 1966, *Chiquito de Cambo* 1967...) asmo didaktiko argi eta garbi batekin saiatzeko da birsortzen eta asmatzen historia irudimenaren laguntzaz eta anakronismo poetikoz beteaz.

*Matalas* antzerkia Etxeberriak (2008:188) Larzabalen antzerkien artean gailurtzat jotzen du, eta harreraz mintzo dela honakoa: *Batzuek erran zuten Matalas Larzabal zela. Hierarkiari aurre egiten zion apaiza, agintariak zalantzan ematen zituen apaiza, herriaren alde egiten zuen apaiza eta sakrifizioaren egiteko prest zena helburuak merezi bazuen...*

Bost edizio ezberdin izan zituen Hegoaldean *Matalas*-ek (Antzerti 1984, Elkar 1992, Azpeiti 1997, eta Hiria 2010 eta Egan 2015) ez dena gau erdiko ahuntzaren eztula, antzerki batentzat, Susa aldizkarian lehenak ere Mikel Antzaren komentarioa merezi izan zuelarik.

Eugenio Arotzenak kontatzen digunez (2006:108) 1968ko otsailaren 28an hasi zituen harremanak Piarres Larzabalekin eta handik hogeita egunera Oiartzungo Estankoa bezala ezagutu ostatuan izan zuten afaritxoan aurkeztu zuten idatzia *Lartaunen historia* antzerkia. Tartean Eugenio eta Piarresekin batera Xabier Lete eta Juanito Iñarra zeuden. Urte bukaerarako obra prestatua zeukaten Intxixukoek, baina 1969 urte osoa pasatu omen zuten

baimenaren zain, baimena iritsi zitzaionarik Ignacio Albelaiz (sic) eskaera egileari 1970ko urtarrilaren 13an *Lartaun* konpainiari.

Otsailaren 21ean antzeztu zuten frontoian Arozenaren zuzendaritzapean 26 antzezleri oiartzuarrek obra, hala nola Xabier Lete eta Maria Lourdes Iriondo kantari ezagunek, arrakasta handiz, *Lartaunen historia*, non tratatzen ziren euskaldunen eta erromatarren borrokak. Herriko festetan (Abuztuak 8an) berriro antzeztu zen eta ondoko baldintza honen pean eman ziren baimena alkateak, alegia, behar ziotela bi mila pezeta ordaindu herriko *Hospital-Asilo* deitzen zenari.

Oiartzun, Urnieta, Zarautz, Hernani, Usurbil... Hamar herri ezberdinetan antzeztua izan zen *Lartaun*. Zarautzen antzeztuar zeudela gobernadore zibilaren agindu zorrotza iritsi zitzaion, non esaten zien Piarres Larzabalen antzerkirik gehiago ez antzezteko, non eta talde guztia kartzelatzea nahi ez bazuten. Larzabalek Hernanin ikusi zuenean obra, berak idatzitako *Pastoral gisakoa*, oiartzuar erara, honakoa esan zuen: *Hau ez da nire antzerkia*.



Halere, ez bat bakarrik baizik eta beste bi ere idatzi zituen oiartzuarrentzat: *Aralar* eta *Orria* 778. Eta bilatu behar zuten zentsura nolazpait pasatzeko modua eta Eugenio Arozenak antzerkia berea balitz bezala aurkeztu zuen baimenerako. Hona bere hitzak zuzen-zuzenean:

Piarres Larzabalek *Lartaun* antzerki lana idatzi zuen Oiartzuarrentzat eta taularatu ondoren izan zuen arrakasta ikusi-ta pentsatu genuen egoki izango zela beste antzeko lan bat idaztea eta baita azkar idatzi ere. Lan hau «Aralar» izan zan, (gutxi gora behera 1971. urteko uztaila izan zen) baina garai haiek ziren, ziren bezalakoak eta gobernu espainolak Larzabal «Index»en sartu zuen eta izena bera ere aipatzea anatema bihurtu zen. Horrela *Aralar* antzerkia gustatu zigunez baimena Gobernu Espainiarrari eskatu behar zenez nirea bailitz bezela baimenak eskatu ziran. Horregaitik baten batek nire izeneko «Aralar» antzerkirik agertzen bada edo ikusiko balu, hau Piarres Larzabalena da» pentsatu zazue kondairan hartu beharra izan genuen bidezidorra izan zela.

Zentsuraren sailkapena hauxe zen: 18 urtetik gorakoentzat, eta zenbait kapitulutan ez soilik aldaketak baizik eta ezabatze osoak sufritu zituen. Hogeita hamar aldiz jokatu zen, (ekainean Ataunen eta irailean Oñatin, adibidez) eta Tolosako teatro zaletuen lehiaketa elebidunean lehen saria irabazi zuen (1973-IV-25) hamahiru talde ezberdinen artean.

Sunbillan ere antzeztu zen *Diario de Navarra* egunkariko kronikagileak honelaxe titulatzan zuelarik: «*Aralar*» *Pastural tankerako antzerkia*. Gaia oso ospetsua zen, Francisco Navarro Villosladak idatzitako *Amaya o los vascos en el siglo VIII* nobelaren gainean eratua, baina aski modu librean.





Mikel Forkadak burutu kartela Aralar antzerkiarentzat

Bordaxuri 1971n debekatu zuten bezala, 1973an Pio Barojaren *Altzateko Jauna* antzezteko Xabier Letek egin eskariari ezezkoa eman zion zentsurak, baina halaz ere jarraitu zuten Intxixuko taldekoek fermuki eta 1974-1975 urteetan *Orria 778* aurkeztu zuten. Hemen frankoak, mahometanoak eta baskoiak agertzen ziren borrokan, eta Eugenio Arotzenak esaten digunez arrakasta handiz:

*Orria 778* edo *Altabizkarko kantua* 52ren bat aldiz antzeztu zen 47 herritan, besteren artean lau hiriburuetan, baita Zaragozako Ikastetxe Nagusian ere. Batez beste 450 ikusle izatera iritxi zen. 1975. urteko udazkenara arte *Orria 778* antzerki lanarekin jarraitu genuen beste berri bati ekin genion artean.



Orria 778

1975eko apirilaren bostean Goaz taldeak *Senperen gertatua* antzeztu zuen Lukax Dorronsorearen zuzendaritzapean. Franco 1936tik gobernatzen ari den diktadorearen heriotza urtea da eta epe berri bati hasiera emango zaio. Zentsura desagertzeko bidean da, baina honek ez du suposatzen Larzabalen antzerkiak gehiago antzeztuko direnik, zeren eta Eusko Jaurlaritzaz sortzen denetik (1977), eta honen Kultur Kontseilaritzapean Antzerki Zerbitzua, mendea bukatu arte soilki Larzabalen hiru antzerki antzeztuko dira Hego Euskal Herrian.

Debako III. Antzerki astean, 1989an Ostibarreko taldeak *Suediako neskatxa* jokatu zuen. Hurrengo urtean, hau da, 1990ean, Goaz talde debarrak *Ihautiriak* eman zuen eta XII. Antzerki astean Azpeitian 1998an Bordaxuri taldeak *Bordaxuri* taularatu zuen.

Lukax Dorronsoro Goaz taldeko zuzendariak adierazten duenez, 76tik zuten antzezlan hau eskuartean, multikopiaz ezkutuan zabalduriko kopia hain zuzen, eta 1989an eutsi zioten testu moldaketari eta euskara batuan

ezartzeari. Eta *Ihauteriak* tituluak ez du zerikustekorik garai bateko antzerki ohikoarekin, baizik eta satira, fartsa bat da, delako ihauterietan egiten diren modukoa; gaia, ordea, muga du.

Frantxua Cousteau taldeko zuzendariak zioen: «Bordaxuri Euskal herriko antzerki zahar bat da, Hazparnen kokatua, duela 50 urte inguru idatzia. Guk gaukotu egin dugu. Baserri bateko aita-semeen arteko ika-mikak jorratzen ditu, seriosa halaz ere. Maule eta Miarritzeko emanaldietan gazteak ere hurbildu dira eta pozik gara horrekin, obra ezagutzen duelako jin baita jendea. Deliberatu genuelarik *Bordaxuri* emaitza 'hori zaharkitua da 'erran ziguten batzuk. Emaitza ikusita garbi dago halako istorio bat kontatzen ahal dela, baserri batean kokaturik ere, ez baitigu inortxok ere erran itxura zaharkitua duenik» (ARGIA, 1998-IV-12)



*Goaz, Debako teatro taldea, Ihauteriak (1990-VII-21)*

Beraz, kezkaturik zebilen zuzendaria obraren zaharkitzearekin, baina geroago Anton Lukuk 2013an egin *Inpernuko dirua* antzerkiaren adaptazio eta moldaketa berrian funtsezkoena mantentzen da, eta horrek oinarri Larzabalen testuan dauka.

Honaino gure lantxoia, berriro deitoratuz 1984an eskatu genuen Antzertiteka edo Arte Eszenikoen Dokumentazio Zentroa oraindik ez edukitzea eta informazioa osagabe batekin lan egin behar izana, gure historia eta literatura era duinean ikertzeko.

Bukatzeko bada, Daniel Landarten hitzak erabiliko ditut euskal literatura eta bereziki teatrogintzako gailur izan zen Pierre Larzabalez:

Pertsonalki ezagutu dudan Piarres Larzabal gizon ona zen, biziki ona. Ausarta. Osoa. Balentrialaria. Zerbait buruan hartuz geroz, bururaino eramaten zuena. Irriz ezin ase eta denbora berean arras serioa. Errotik jendakina. Apez apala. Otoizlaria. Beti zerbitzu egitera ekarria. Iratzeder poetak erran lezake: emana. Bai, bere izaite guztia besteei ematen zien. Horiek horrela, «ttankako» bat bazuela?! Baina «ttankakorik» ez balu ukan, ez zen Larzabal izanen.

## Bibliografia

### Edizioak

- 1934 *Irri eta nigar*. GURE HERRIA.
- 1937 *Merkatutik*. GURE HERRIA.
- 1952 *Okilomendi Jaun Mera*. EGAN.
- 1953 *Etxahun*. GURE HERRIA.
- 1960 *Muthil berri*. GURE HERRIA 1960.
- 1962 ZAVALA, Antonio (ed.), *Bordaxuri*. Auspoa 11, Tolosa.
- Iru ziren*. Auspoa 14, Tolosa.
- Herriko bozak edo nor alkate*. Auspoa 21, Tolosa.
- 1964 *Senperen gertatua* (Itz.: L. Villasante). Auspoa 34, Tolosa.
- 1965 *Hilla esposatu* (Itz.: M. Lekuona). Auspoa 44, Tolosa.
- 1983 ANTZERTI ZERBITZUA, [Orria 778 edo] *Altabizkarko kanta*. Antzerti 64. Donostia.

- 1984 *Mugari tiro*. EGAN.
- 1984 *Sarako lorea*. EGAN.
- 1985 *Suediako neskatxa*. EGAN.
- 1985 *Berterretx*. EGAN.
1987. *Ihauteriak*. EGAN.
- 1989 *Aralar*. EGAN.
- 1984 ANTZERTI ZERBITZUA, *Matalas*, 1. ed. Antzerti 69. Donostia.
- 1992-1997 XARRITTON, Piarres (ed.), *Idazlanak*. (I-VII), Elkar, Donostia.
- 1997 *Pierre Larzabal Carrere (1915-1988) Azpeitiko antzerki topaketak, Oroituz. Heriotzaren hamargarren urtemugan*.
- 2010 AURKENERENA, Joxeba (ed.) *Larzabalen antzerki kaierak*. Hiria, Donostia.
- 2015 *Matalas*. EGAN.

Internet: ik.: [Klasikoen kriseilua & Armiarma.eus](http://Klasikoen_kriseilua_&_Armiarma.eus)

### Liburu eta artikulak

Aresti, Gabriel, «*Euskal teatro berri baten beharra: euskal komedia*». *Artikuluak, Hitzaldiak, Gutunak*. Susa, Zarautz 1986.

Arotzena, Eugenio, *Euskal Antzerkia Oiartzunen*. Mugarri, 2006.

Etxeberria, Ixabel, *Piarres Larzabalen antzerkigintza 1950-1982: euskarazko antzerki identitarioaren paradigmak, eranskinak*. UB /BU, 2008.

———, «Piarres Larzabal (1915-1988) eta antzerki identitarioa», *OIHENART* 25, 2010, 199-215.

Labaien, Antonio, *Teatro éuskaro. Notas para una historia del arte dramático vasco, eta Teatro éuskaro. Entrevistas, Reseñas, Crónica. Catálogo de obras dramáticas*. Auñamendi, Zarauz 1965.

Landart, Daniel, «Piarres Larzabal». *EGAN* 2008-4. 61-66.

Mendiguren, Xabier, «Piarres Larzabalen idazlanak». *ARGIA* 1991-07-07.

Michelena, Luis, *Historia de la literatura vasca*. Minotauro, Madrid 1960.

Sudupe, Pako, *50eko hamarkadako euskal literatura. III. Antzerkia eta hamarkadaren ikuspegi orokorra*. Utriusque Vasconiae. Donostia, 2011.

Urkizu, Patri, *Euskal teatroaren historia*. Kriselu, Donostia 1975.

———, «Euskal antzertia iparraldean (1867-1939)», *Eskual Antzertia. Le théâtre Basque*. Ed. P. Bidart & Tx. Peillen Université de Pau, Bayonne 1987, 39-52.

——— (ed.), *Piarres Lafitte, Euskal Literaturaz*. Erein, Donostia, 1990.

——— «Jean Baptiste Chaho: Barde baten izaitia», *HEGATS* 5, 1991, 29-37.

———, «Anacronismo, panfleto y poesía en el teatro histórico vasco del post-franquismo», *El teatro Histórico 1975-1998. Textos y representaciones*. Visor, Madrid, 1999, 595-605.

———, & Intxaurrendieta Patxi, *Senpereko Kantu Xaharra. Oxtikenekoak*. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2001.

———, *Teatro vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones*, UNED, Madrid, 2009.

———, «Euskal Antzertia Erbestean (1937-1959)», *Arte eszenikoak erbestean*. Koor. Iñaki Betiz & Mari Karmen Gil, Saturraran, Donostia 2009, 349-367.

Xarritton, Piarres, «Piarres Larzabal antzerkigile», *Piarres Larzabal, Matalas*, Antzerti 69, Donostia, 1984, 7-10.

——— (ed.), *Piarres Larzabalen oroitzapenak*, Elkar, Donostia, 1998.

Zenbaiten artean, *Literatura Terminoen Hiztegia*. Euskaltzaindia, Bilbao 2008.

# **Malenkoniaren aurkako nostalgia: betiereko itzuleraren gorputz errepresentazio artistikoa konponbide gisa. Jon Mirande eta Balthazar Klossowski paristarren lanetan oinarritutako hurbilpen konparatiboa<sup>1</sup>**

**Nostalgia para combatir la melancolía: La representación corporal artística del eterno retorno como solución. Aproximación comparativa en base a los trabajos de los autores parisinos Jon Mirande y Balthazar Klossowski**

**Nostalgie pour combattre la mélancolie : la représentation corporelle artistique de l'éternel retour comme solution. Approche comparative basée sur les travaux des auteurs parisiens Jon Mirande et Balthazar Klossowski**

**Nostalgia in the fight against melancholy: artistic corporal representation of the eternal return as a solution. Comparative approach based on the work of the Parisian authors Jon Mirande and Balthazar Klossowski**

ELIZALDE ESTENAGA, Amaia  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) - Université Bordeaux-Montaigne

Noiz jasoa: 2015-10-20  
Noiz onartua: 2016-04-22

---

<sup>1</sup> Artikulu hau Eusko Jaurlaritzak babestutako Euskal Herriko Unibertsitatearen Tesiak Euskaraz egiteko Doktorego aurreko Ikertzaileak prestatzeko kontratazio-pean eta IT 806-13 ikertaldearen barnean idatzi da.

Artikulu honen helburua da memoria eta nostalgiaren rola aztertzea heriotzak eta denboraren joanak dakarten malenkonia saihesteko baliabide gisa. Mircea Eliade antropologoak *Le mythe de l'éternel retour: Archétypes et répétition* (1949) lanean proposatzen duenaren araber, antzinateko gizakiak arazoarentzako konponbide kolektiboa aurkitu zuen betiereko itzuleraren mitoan eta denbora zikliko mitikoan sinetsiz. Gizaki modernoak, ordea, denboraren ikuskera lineal historizista hartzearen ondorioz, beste estrategia batzuk garatu behar izan zituen denbora konkretua deuseztatze bidean. Artearen kritikaren arloko hurbilpen antropologiko eta konparatiboaren bidez, zenbait artelan aztertu ostean, arteak arazo hau konpontzeko baliabide gisa zein toki hartu duen aztertuko dugu, XX. mendean zehar sortutako gorputz errepresentazio artistiko zenbaitetan oinarrituz.

**Hitz gakoak:** artea eta literatura, antropologia, betiereko itzulera, memoria, malenkonia, nostalgia.

El objetivo de este artículo es analizar el rol de la memoria y la nostalgia, como recurso para evitar la melancolía que traen la muerte y el paso del tiempo. En base a lo que propone Mircea Eliade en su trabajo *Le mythe de l'éternel retour: Archétypes et répétition* (1949) creyendo en el mito del tiempo cíclico y volviendo al mito de que en la antigüedad las personas encontraban soluciones colectivas a sus problemas. El ser humano moderno, sin embargo, como consecuencia de optar por una visión lineal historicista del tiempo, tuvo que desarrollar otras estrategias con el fin de eliminar el tiempo concreto. Analizando unos objetos artísticos, desde una aproximación antropológica y comparativa del campo de la crítica del Arte, estudiaremos que lugar ha ocupado el Arte mismo en el siglo XX como recurso para solucionar este problema. Utilizando para ello, algunas representaciones artísticas corporales creadas en el siglo XX.

**Palabras clave:** arte y literatura, Antropología, vuelta a lo de siempre, memoria, melancolía, nostalgia.

L'objectif de cet article est d'analyser le rôle de la mémoire et de la nostalgie, comme moyen d'éviter la mélancolie provoquée par la mort et le temps qui passe. Comme le propose Mircea Eliade dans son oeuvre *Le mythe de l'éternel retour : Archétypes et répétition* (1949) croyant au mythe L'objectif de cet article est d'analyser le rôle de la mémoire et de la nostalgie, comme moyen d'éviter la mélancolie provoquée par la mort et le temps qui passe. Comme le propose Mircea Eliade dans son oeuvre *Le mythe de l'éternel retour : Archétypes et répétition* (1949) croyant au mythe

**Mots-clés :** Art et littérature, anthropologie, retour éternel, mémoire, mélancolie, nostalgie.

The goal of this article is to analyze the role of the memory and the nostalgia as a resource to avoid the melancholia that comes from death and from the passage of time. As Mircea Eliade proposes in his work *Le mythe de l'éternel retour: Archétypes et répétition* (1949), believing in the myth of the cyclic time and returning to the myth that refers to old times where



people found collective solutions to their problems. The modern human, however, as a result of choosing a historical and a lineal vision of time, had to develop other strategies in order to eliminate the specific time. Analyzing some artistic objects, from an anthropological comparative approach to Art Critic, we will study the place that Art has occupied during the 20th century as a resource to solve this problem. In this regard, we will use some corporal artistic representations created in the 20th century.

**Keywords:** art and literature, anthropology, returning to the eternal, memory, melancholia, nostalgia.

## Sarrera

Artikulu hau Gdansk-eko Unibertsitateko *4th International Interdisciplinary Memory Conference* «*Memory, melancholy and nostalgia*»-n aurkeztutako hitzaldiaren harira sortu da. Gure helburua da frogatzea XX mendeko gizakiak artean aurkitu zuela heriotzak eta denboraren joanak dakarten malenkonia saihesteko baliabide eta lekua. Horretarako, memoria, malenkonia eta nostalgiarekiko hurbilpena artearen –literatura barne– eta antropologiaren ikuspegitik egingo dugu.

Gaiari buruz Mircea Eliadek proposatutako teoriari jarraituz, ikusiko dugu antzinatetik nostalgia lagungarri izan zaiola gizakiari, memoria eta irudimena nahastuz, heriotzak eta denboraren joanak dakarten malenkonia saihesteko tresna gisa. Ondoren, frogatzen saiatuko gara nola XX. mendean zehar denbora konkretua deuseztatzen saiatzeko jarrera honek –«portaera mitiko» deituko dugunak– artean lekua aurkitu zuen, nahiz eta ez zuen –kasu gehienetan– antzina izandako dimentsio sozial kolektiborik. Azkenik, gure tesia adibidez jantzen duten XX. mendeko gorputz errepresentazio artistiko zenbait aurkeztuko ditugu. Propaganda nazional-sozialistaren iruditeriatik hasi –mendebaldean gailendu diren zibilizazioek sortutako «portaera mitikoaren» azkenetariko arte adierazpen kolektiboa– eta, ondoren, Jon Mirande (1925-1972) idazle paristar euskaldunaren eta Balthazar Klossowski (1908-2001) –«Balthus» bezala ezagunagoa–, margolari paristar poloniarren lanen hurbiltze konparatiboa egingo dugu.

Bi autoreen kasuan, eurek sortutako neskato nerabeen gorputz errepresentazio artistikoak jadanik ikerketagai izan dira, Balthus-enak bereziki. Mirandek sortutako neskato nerabearen gorputz errepresentazioaren gaia jorratzen duten bi artikulu daude, bereziki interesgarriak, Joseba Sarrionandiaren «*Haur besoetakoa* eta beste ninfula batzu» (1993) eta Aurelia Arko txaren «*La mirada malévol de la luna en La ahijada* de Jon Mirande (1925-1972)» (2000). Puntu honi dagokionez, gure helburua da lan honen bidez bi egileen errepresentazioen ikuspegi berri eta gaur egun gailendutakoengandik ezberdin bat ematea.

## 1. Heriotza eta denboraren joana malenkoniaren iturri gisa

Malenkonia Antzinako Grezian medikuntzari lotutako termino zientifikoa zen. Gaur egun badu oraindik esanahi zientifikorik, baina bere lekua egin du baita ere arte iturri edo gai bezala. Besteak beste, *American Heritage Dictionary of the English Language*, –Ologies & -isms (2008) eta *Diccionario de la Real Academia Española* (2012) hiztegietatik eskuratutako definizioak aztertu ondoren eta medikuntzari lotutakoak alde batera utzita, hau da lan honetarako osatu eta aukeratu duguna: «Iraupen luzeko tristura edo depresio sakona».

Gizakiak arrazoi ezberdinengatik senti dezake malenkonia, baina horietako bat gailentzen zaie gainontzeko guztiei. David Hicks eta Margaret A. Gwinn antropologoek *Cultural Anthropology* (1995) lanean ematen duten azalpenak garbi erakusten du hori:

Perhaps the greatest of all human misfortunes is death. Men and women may avoid other trials-sickness, accidents, social failures –for a long time, hoping their run of luck continues unabated, but their intellects oblige them to accept the inevitability of death. They know for certain that whether death befalls tomorrow or in 60 years» time, it is an inevitable part of life, so it may be this certainty that prompts humanity's endless speculation about what, if anything, follows death.

Such universal interest suggests how earlier human beings might have come to imagine the existence of some kind of life after the death of the body, and why many contemporary people continue to believe in an afterlife. There is no evidence to suggest that modern-day people are ceasing to think about death and its possible aftermath, or that twentieth-century science is succeeding in explaining this mystery to their complete satisfaction. So human beings continue responding to what might almost be called a religious instinct. One way to interpret the universality of religion, therefore, is to view it as an attempt to deny the dismal possibility of our own permanent extinction. (Hicks eta A. Gwinn 1995: 341)

Gizateriaren sorreratik bertatik izan dira heriotza eta denboraren joana gizakiaren buruhauste nagusi. Honi modu eraikitzailean erantzunez, malen-

konia saiheste bidean, konponbide ezberdinak garatu ditu, oro har, denbora konkretuaren deuseztatzean oinarritzen direnak. Ez gara heriotza eta denboraren joana egiazki saihestu ahalko lituzketen konponbideez ari, arazoari aurre egiteko irudimenezko erantzunez baizik.

## 2. Portaera mitikoa: memoria, nostalgia eta irudimena

Goiko aipuan David Hicks-ek eta Margaret A. Gwinn-ek «erlijio sena» aipatzen badute ere, erraz defenda daiteke erlijioa gizakiak garatutako baliabideetariko bat dela heriotza nahiz denboraren joanaren ideiak saiheste-ko.

Mircea Eliadek *Cosmos and history. The Myth of the Eternal Return* (1959) eta *Myth and Reality* (1963)<sup>2</sup> lanetan «portaera mitiko» esaten dio antzinatetik gizakiak denbora konkretua deuseztatzeke duen joerari. Ideia hau ulertu ahal izateko, garrantzitsua da mitoaren ideiari ematen dion esanahia kontuan hartzea:

Myth narrates a sacred history; it relates an event that took place in a primordial Time, the fabled time of the «beginnings». In other words, myth tells how, through the deeds of Supernatural Beings, a reality came into existence, be it the whole of reality, the Cosmos, or only a fragment of reality-an island, a species of plant, a particular kind of human behaviour, an institution. Myth, then, is always an account of a «creation»; it relates how something was produced, began to *be*. Myth tells only of that which really happened, which manifested itself completely. The actors in myths are Supernatural Beings. They are known primarily by what they did in the transcendent times of the «beginnings». (Eliade 1963: 5-6)

Antropologoak aurkezten duen teoriaren arabera, gizaki arkaikoaren filosofiak, hastapen idealizatu edo *in illo tempore* baterako betiereko itzuleran –esan nahi baita, kaos-a nahiz honen osteko kreazioa, kosmogoniaren so-

<sup>2</sup> Lan honen lehen bertsioa ingelesez bertsioa erabili da itzulita zeuden testuen kasuan. Gainontze-koetan originala mantendu da.

rrera– eta errepikapen nahiz arketipoetan oinarrituta, denboraren ikuspegi lineala ukatzen zuen, guztiz jarrera anti-historizista erakutsiz:

[...] archaic societies—societies which, although they are conscious of a certain form of «history», make every effort to disregard it. In studying these traditional societies, one characteristic has especially struck us: it is their revolt against concrete, historical time, their nostalgia for a periodical return to the mythical time of the beginning of things, to the «Great Time». (Eliade 1959:11)

Gizaki arkaikoak, betiereko itzuleraren mitoa gaurkotzen zuen errepikapen, arketipo eta erritu erregeneratzaile ezberdinen bitartez. Helburua iragan denbora ezabatu eta historia deuseztatzea zen *in illo tempore* baterako itzulerara etengabe itzuliz egintza kosmogonikoaren errepikapenaren bidez (Eliade 1959: 81).

Idealizatutako hastapen edo *in illo tempore* horietarako betiereko itzulerak memoria, irudimen eta nostalgia nahasketa bat suposatzen du, izan ere, irudimenaren bidez berreraikitako iragan oroitzen kokatutako leku idealizatuz ari baikara. Eliadek iradokitzen duen bezala estrategia hau infantila iruditu dakiguke, baina gizakiari lagungarri gertatu zitzaion erabateko etsipen eta malenkonian ez murgiltzeko (Eliade 1959: 152). XVII. mendean geroztik, ordea, aurrerapen —*progresu*— eta denbora linealaren ideiak gailendu ziren, denboraren ziklikotasunarenaren kaltetan. Ondorioz, denbora konkretuaren deuseztapenak utzi egin zion heriotzaren eta denboraren joanaren ideiek zekarten malenkoniaren kontrako irtenbide kolektibo izateari. Hala ere, Eliadek dioen bezala, horrek ez du esan nahi «portaera mitikoa», denbora konkretua deuseztatzeko beharra, desagertu zenik:

We must wait until our own century to see the beginnings of certain new creations against this historical linearism and a certain revival of interest in the theory of cycles; so it is that, in political economy, we are witnessing the rehabilitation of the notions of cycle, fluctuation, periodic oscillation; that in philosophy the myth of eternal return is revived by Nietzsche; or that, in the philosophy of history, a Spengler or a Toynbee concern themselves with the problem of periodicity. (Eliade 1959:146)

Are gehiago, haren iritziz ez litzateke harritzekoa izango, etorkizunean, momentu batetik aurrera, bizirauteko beharrak bultzatuta, gizakia errepikapen, arketipoen eta denboraren ziklikotasunaren ideietan oinarritutako portaera anti-historiko horri berriz ere lotzea. Bere garaiari buruz hitz egitean, hain zuzen ere, Eliadek aipatzen du kolektiboak eta homogeenak ez badira ere «some forms of mythical behavior still survive in our day. This does not mean that they represent “survivals” of an archaic mentality. But certain aspects and functions of mythical thought are constituents of the human being» (Eliade 1959: 181-182).

Kontuan izanik XX. mendeko gizakiak zailtasun berbera zuela heriotzaren eta denboraren joanaren ideiei aurre egiteko eta gizaki arkaikoaren bizi filosofia baztertu egin zuela, sortzen den galdera da zein baliabide garatu ote zituen denbora konkretua deuseztatzeko eta, beraz, heriotzak eta denboraren joanaren ideiak zekarten malenkonia saihesteko.

### 3. Betiereko itzulera gorputz errepresentazio artistiko gisa

«Portaera mitiko»-ak eta arteak harreman zuzena dute maila ezberdinetan eta guk horietako biri erreparatuko diegu:

- 1) Irudiaren maila: betiereko itzuleraren mitoaren errepresentazio zuzenari dagokio, XIX. mendeko erromantizismoan maiz egin bezala, pertsonen, herrialdeen edo gizateriaren *in illo tempore* idealizatua berre-raikiz. Bestela esanda, idealizatutako haurtzaro indibidual nahiz kolektiboaren irudikapen zuzena ala sinbolikoa.
- 2) Sorkuntza eta harrera maila: artelan baten sortze nahiz harrerak denbora beste denbora baten gisara uler litezke, denbora konkretutik bereziak eta sortaileak nahiz hartzaileak sorkuntza edo kreaio berri baten partaide egiten dituztenak. Zentzu honetan, artelanaren sorkuntza nahiz harrera erritualak, irudikatutakoa edo kontenplatutakoa dena delakoa delarik ere, denbora konkretua deuseztatzen du, betiereko itzuleraren mitoa gaurkotuz. Honi buruz ari denean, Eliadek literaturan jartzen du arreta gehien:

But it is especially the «escape from Time» brought about by reading—most effectively by novel reading—that connects the function of literature with that of mythologies. To be sure, the time that one «lives» when reading a novel is not the time that a member that of a traditional society recovers when he listens to a myth. But in both cases alike, one «escapes» from historical and personal time and is submerged in a time that is fabulous and trans-historical. The reader is confronted with a strange, imaginary time, whose rhythms vary indefinitely, for each narrative has its own time which is peculiar to it and to it alone. The novel does not have access to the primordial time of myths but, in so far as he tells a credible story, the novelist employs a time that is seemingly historical yet is condensed or prolonged, a time, then, that has at its command all the freedoms of imaginary worlds.

More strongly than any of the other arts, we feel in literature a revolt against historical time, the desire to attain to other temporal rhythms than that in which we are condemned to live and work. One wonders whether the day will come when this desire to transcend one's own time—personal, historical time—and be submerged in a «strange» time, whether static or imaginary, will be completely rooted out. As long as it persists, we can say that modern man preserves at least some residues of «mythological behavior». (Eliade 1963: 192-193)

Eliadek ezarritako oinarri horretatik abiatu bagara ere, ezinbestekoa iruditzen zaigu ikuspegi hori zabaltzea, izan ere, batetik, guk defendatzen dugu edozein arte adierazpidek aukera eskaintzen diola gizakiari «portaera mitikoa» garatu eta heriotzaren nahiz denboraren joanaren ideiek dakarten malenkonia saihesteko beharra asetzeko. Bestetik, Eliade artelanaren harreaz soilik mintzatzen bada ere, arrazoipen hori arte sorkuntzarentzat balio-kidea dela esan genezake, sorkuntza prozesuak balio bera hartzen duela, alegia.

Gorputz errepresentazio artistikoei erreparatuko diegunez gero, aintzat hartu beharra dago, *Antropología de la producción artística* (1995) lanean Lourdes Méndez-ek dioen bezala, mendebaldeko arte sortzaileek euren lanen kopuru garrantzitsu bat eskaini diotela mota honetako errepresentazioei (Méndez 1995: 143) eta giza gorputza eraikuntza kulturala dela:

Todas las sociedades han intentado explicar en sus cosmogonías cómo ha aparecido el ser humano sobre la tierra, cómo y de qué materiales ha sido creado, quien le ha dado la vida; todas han distinguido entre los «verdaderos» humanos –es decir ellos– y los «otros»; y todas han manipulado y transformado el cuerpo humano. En este sentido, el cuerpo humano es un cuerpo cultural, producto de los deseos, creencias y expectativas de la sociedad en la que se inscribe. (Méndez 1995: 146)

Identitatea gorputz errepresentazioen bidez sinbolizatzen den arren erre-presentaziook anitzak dira eta ez dute beti balio eta esanahi bera (Méndez 1995: 147). Errepresentazio hauetariko bat betiereko itzuleraren mitoarena da, kaosera, kreatora, egintza kosmogonikora edo hastapeneko *in illo tempore* idealizatu eta desiraturako itzulerarena. Errepresentazio hauek sorkuntza indibidual nahiz kolektiboak izan daitezke eta baita hauen balioa ere. Adibide gisa propaganda nazionalsozialistak eraikitako gorputz erre-presentazio artistiko kolektiboak aztertuko ditugu. Honetarako, Leni Riefens-tahl-ek zuzendutako *Olympia* (1936) filmaz baliatuko gara, 1936ko Berlingo Joko Olinpikoen harira sortua.

Joan M. Marinek «La estética parda. El arte y la estética bajo el nacionalsozialismo» (2010: 91-105) artikuluan dioen bezala, alemaniar nazionalsozialistek «ontasun» eta «edertasun»aren arteko lotura ezarri zuten, bai eta edertasun fisikoak alemaniar jendartearen nagusitasuna erakutsi behar zuela baieztatu ere (Marin 2010: 97). Naziek on eta edertzat zuten horren erro historikoa oso agerikoa da *Olympian*: Antzinako Greziar zibilizazioa. Filmaren hasieran greziar irudiak diruditen gorputz atletiko eta eskultorikodun jendeak ageri dira tenplu eta bestelako greziar eraikinen artean. Ondoren korrikalari batek piztutako zuzi bat hartu, Berlinerantz lasterka hasi eta bertan entregatzen du.







Horrek sinbolizatzen duena da alemaniar nazionalsozialisten aldarrikapena Antzinako Greziar kulturaren oinordeko gisa. Are gehiago, Antzinako greziarrek denboraren ziklikotasunean sinesten zuten eta hori izan zen, hain zuzen ere, nazionalsozialistek bere egindako filosofia, garaiko herrialde mendebaldar

gehienetan gailentzen ziren aurrerapenaren eta denbora linealaren ideien kontra. Idei hauek guztiak filman agertzen diren gorputz errepresentazio artistikoetan islatzen direla kontuan hartuta, euren balio sinbolikoaz ohartzeko gara eta, ondorioz, baita betiereko itzuleraren mitoaren gaurkotzearen adibide garbia direnaz ere, *in illo tempore* baterako itzulera nostalgikoa sinbolizatzen baitute, zeinetan gainera denbora ziklikoa baitzen. Marin-en hitzetan:

La concepción lineal del tiempo, de raigambre judeocristiana, con un principio y un final de la historia, permitió desarrollar a los ilustrados la noción de «progreso», según la cual, si nos esforzamos en el ejercicio de la racionalidad las condiciones de vida mejorarán de generación en generación. Esta idea, que sería desarrollada con diferentes matices tanto por la ideología liberal como por la marxista, fue desechada por la ideología fascista (por el nazismo en particular). En su lugar escogieron la concepción cíclica del tiempo eterno; y propugnaron el retorno a la edad de oro. Para la concepción progresista y revolucionaria, lo mejor está por llegar y hay que crearlo; para la concepción cíclico-reaccionaria, lo mejor está por llegar y hay que recuperarlo. La conquista racional del futuro frente al regreso emocional del pasado. Los nazis convirtieron la antigua Grecia en la cuna de su pasado mítico. (Marin 2010: 96)

Eliade ere «portaera mitiko»az mintzatzen da nazionalsozialismoaren ideologiaz ari denean, baina Marinek ez bezala ez du hori modu isolatu eta eskusibo gisa ulertzen. Kontrakoa, antropologoak hego-ekialdeko nahiz erdialdeko European jatorri duen testuinguru zabalago baten barruan kokatzen du fenomeno hau:

At the down of the modern World the «origin» enjoyed an almost magical prestige. To have a well-established «origin» meant, when all was said and done, to have the advantage of a noble origin. (...) All through Central and Southeastern Europe at the beginning of the nineteenth century the mirage of «noble origin» aroused nothing short of a passion for national history, especially for its earliest phases. (...) Such a passion for national historiography was, to be sure, a consequence of the awakening of nationalities in this part of Europe. Then too, it was soon transformed into an instrument of propaganda and political warfare. (...)

The passion of «noble origin» also explains the racist myth of «Aryanism» which periodically gains currency in the West, especially in Germany. The socio-political contexts of this myth are too well known to require discussion. What is of concern for our study is the fact that the «Aryan» represented at one the «primordial» Ancestor and the noble «hero», the latter laden with all the virtues that still haunted those who had not managed to reconcile themselves to the ideal of the societies that emerged from the revolutions of 1789 and 1848. The «Aryan» was the exemplary model that must be imitated in order to recover racial «purity», physical strength, nobility, the heroic «ethics» of the glorious and creative «beginnings». (Eliade 1963: 182-183)

Adibide hau lan honetan sartzeko arrazoia da, gorputzaren arte erreprezentazioei dagokionez, denboran nahiz espazioan gugandik gertuen dagoena dela. Datozen ataletan kolektibotik indibidualerantz egingo dugu eta euskal jatorriko Jon Mirande (1925-1972) idazle paristarrak eta poloniar jatorriko Balthazar Klossowski (1908-2001) margolari paristarrak sortutako gorputz erreprezentazio artistikoak aztertuko ditugu.

#### 4. Balthazar Klossowski (1908-2001) eta Jon Mirande (1925-1972)

Parisen jaio ziren bi autore garaikideak; lehenak poloniar margolari sendia zuen jatorri, bigarrenak landa-girokoa eta euskalduna. Biak etorkinen semeak ziren, nahiz eta maila soziokultural ezberdinekoak izan. Goiz ekin zioten arte ekoizpenari, Balthus bere margolanekin, Mirande idazlanekin eta biek egin zioten uko garaiko joerak jarraitzeari. Antzekotasun hauetaz gain, bada bereziki esanguratsua den kointzidentzia bat: biek ninfak irudikatu zituzten, nerabetasunean sartu berri diren neskatilen gorputz erreprezentazio artistikoak, eta biek dute Thérèse/Theresa deritzon bat. Orain arte aipatu ez den arren, ninfa hauen esanahi sinbolikoari dagokionez badaude kontuan hartzeko moduko antzekotasunak bi autoreen kasuan. Nahiz parekotasun horiek Mirandek eta Balthussek elkar ezagutu zutela frogatzen ez duten, azterketa osatu eta sakontzera bultzatzen gaituzte, bereziki *Haur be-soetakoaren* irakurketari dagokionez.

Balthusen neskabilen jarrerak oker interpretatuak izan dira maiz, irudi erotikoa eta probokatzailerik soilak bailiran, Miranderekin usu gertatu den bezala, bestalde. Margolan gehienetan irakurtzen, amesten edo, besterik gabe, euren pentsamenduetan murgildurik ageri dira, ondoko irudietan ikus daitezkeenez.

*Thérèse rêvant (1938)*



*Thérèse éveillée (1938)*



*Les beaux jours (1946)*



*Katia lisant (1974)*



Margolariak *Mémoires de Balthus* (2001) lanean dioenaren arabera, behin besterik ez zen deliberatuki probokatzailera izan, hain zuzen ere, *Leçon de guitare* (1934) margolanarekin:

(...) nous avons franchement ri à la définition que les auteurs du dictionnaire, le Robert je crois, avaient retenue: ma peinture était décrite comme étant «glauque»... (...) Le mot était-il pris plutôt dans son acception morale, c'est-à-dire pervers, louche, baignant dans un univers ambigu? C'était bien sûr dans cette direction que l'adjectif était employé. Ce contresens sur ma peinture me fit néanmoins sourire. J'observais secrètement qu'il ne m'était pas tout à fait désagréable d'être aussi perçu de cette manière. Les jeunes filles dont j'ai fait tant d'esquisses et de portraits et jusqu'à celui, volontairement scandaleux de *La leçon de guitare*, peuvent révéler une attitude compulsive et érotomaniaque. Je m'en suis toujours défendu, n'y voyant que des images angéliques et célestes. (Klossowski, 2001: 249)



Mirandek euskaraz eta hirugarren pertsonan idatzi zuen *Haur besoetakoa* eleberri polemikoa, 30 urteko gizon baten eta Theresa izeneko hamaika urteko neskatila baten arteko amodio istorioa. Gizona neskame batekin bizi da gurasoengandik oinordetzan jasotako etxe batean eta Isabela izeneko emakume burges batekin ezkontzekoa da. Umezurtz geratu berri den Theresa adopzioan hartzen du eta bat-batean, krisi eta errebelazio izpiritual bat edukitzen du: Theresarekin maitemindu eta ordura arte zorigaitzeko izan dela konturatzen da. Bere bizitzan zehar egindako guztia egin behar duelako egin du, hori zelako zuzenena. Ez dator bat bere gizartearen materialismo eta aurrerapen ideiekin, erabakitzen du ez dela Isabelarekin ezkonduko eta Gazteen Lurra deritzon betiereko gaztetasunaren eta hilezkortasunaren lurraldera joan nahi duela Theresarekin. Gizarteak, ordea, ez du horrelako maitasun harremanik onartzen eta lehengusu bat etxera joaten zaio gizonari hamar egunen buruan Theresa eramango dutela jakinarazteko. Azken irtenbide gisa, bikoteak itsasoan murgiltzea erabakitzen du erritualki euren gorputzen lotura egin ostean, betiko Gazteen Lurrean elkarrekin egongo diren itxaropenez. Azken momentuan, ordea, gizona ikaratu egiten da eta erabakitzen du ez dela hiltzeko momentu egokia. Theresa salbatzen ahalegintzen da baina azkenean itsasoak irentsi egiten du. Gizonak euren lagun bakarra zen margolaria bisitatzen du, bikotearen margolan bat egin nahi

zuen. Gizonak margolariari istorio guztia kontatzen dio eta joan egiten da. Eleberriaren amaieran margolaria pozik agertzen da bikotea dagoeneko elkarrekin egongo delako Gazteen Lurrean, baina bere buruagatik pena sentitzen du istorioaren hasieran gizona sentitzen zen modu berean sentitzen delako. Azkenik, bikotearen margolan bat egingo duela erabakitzen du.

Eleberriaren egitura biribila da, istorioa margolariagan errepikatuko dela baitirudi eta, are gehiago, nolabait aditzera ematen da eleberria bera dela hark sortutako margolana, istorioaren narratzailea margolaria bera dela iradokiz. Forma eta efektu honek betiereko itzulera gogorarazten du. Honetaz gain, lan honetarako gehien interesatzen zaiguna da Mirandek bere eleberrian irudikatutako gorputz errepresentazio artistikoez zerikusia handia dutela Balthus-enekin. Adibide gisa, istorioaren hasierako deskribapen bat:

Gizonak inguratu zituen begiak leiotik suaren aldera. Sutondoan, zitzailluan jarririk zegoen Theresa eta garrek haren itzal lerdana dantza erazten zuten ormaren gainean. **Irakurtzen ari zen**, aoa erdi zabalik eta begiak liburitik urbillegi, aur gazteek oi dutenaz. Noizetik noizera, txinpart batek besteak baino biziago urrez erraustatzen zituen haren ille-txorta barneko illun-nabarrean gorritzka ageri zirenak, eta noizetik noizera, gar luzeago batek haren aztal ezitia miazkatuz, aldera inguratzen zen aspera ito batekin. Ba zirudian bere gogo oro irakurtzen ari zen liburu lodi, azal gorrikoan zeukala, bainan gizonak begiratzen ziolarik, begiak eraiki zituen aurrak eta so egin zion aita besoetakoari irripar erabeti batekin. Irriparrea biurtu zion gizonak, ez zen ordea deusen esatera ausartu, eta Theresak bere liburu artu eta berriz ere irakurtzeari lotu zen, matraillak piska bat gorriturik, suaren beroaz agian. (Mirande, 1970: 36)

Gorputzaren arte errepresentazio honek antzekotasunak ditu bai *Katia lisant* bai *Les beaux jours*-ekin.

Bi artistek izan zituzten arazoak euren sorkuntza lanak pornografiarekin lotzen zituzten interpretazioak zirela-eta. Horri aurre eginez, eurek sortutako ninfen gorputz errepresentazio artistikoen esanahi sakon eta sinbolikoa azpimarratu zuten. Behin hori kontuan hartuta, bien arteko ezberdintasun handiena zera da, Balthusek bere lan gehienak arazo gehiegirik gabe jendaurrean erakutsi ahal izan zituela eta, Miranderen kasuan ordea, nahiz eta



eleberria 1959an amaitu zuen, ez zela 1970 arte argitaratu. Gorputzaren arte errepresentazioak adierazteko erabili zuten adierazpideak zerikusi handia izan lezake azken honetan, izan ere, margolaritza hizkuntza uniberttsala da, eta garai hartan oso euskal irakurle gutxi zegoen. 50eko hamarkadaren amaierako Espainiar Erregimen Frankista eta orduko euskaldunen gehien-goaren kristau morala kontuan izanda, ez zegoen Mirandek liburua argitaratzeko aukera handirik. Frantsesa edo beste hizkuntza bat hautatu ahal izango zukeen liburua idazteko, baina ez zuen hala egin. Hemen Balthus eta Miranderen arteko beste ezberdintasun bat agerian geratzen da: lehenak ez zuen poloniera ikasteko interesik agertu, baina bigarrenak euskara ikasi zuen eta abertzale sutsua zen.

## 5. Balthusen Thérèse

Esan beharra dago bere lanak publikoki aurkeztu ahal izan bazituen ere, Balthus-en margolanei buruzko hastapeneko gaizki-ulertuek hor dirautela gaur egun ere. 2013an Balthus-en zenbait lanekin New York-eko The Metropolitan Museum of Art-ek eskainitako «Balthus: cats and girls» erakusketaren harira *The guardian* aldizkari digitaleko «Bizarre Balthus show reveals artist's fixation with cats and young girls» (2013) artikuluan egindako hainbat aipamenek, margolanen izaera erotikoa nahiz pedofiliaren gaia jorratzen dute:

The girls are self-possessed and serious, and Balthus always denied any hint of paedophilia. But get real: these are erotic images of children. Some, especially the Thérèse portraits, show real invention and even a little humour that make them difficult to dismiss outright. Others, especially the mannered domestic scenes of his later career, are barely competent acts of voyeurism.

Balthus-ek bere memorietan eta Mirandek eleberrian bertan artea eta neskato nerabeak ulertzeko duten moduari arreta jarritz gero, beraiek sortutako gorputz errepresentazio artistikoen benetako esanahia zein den errazago asmatu dezakegu. Bestela, Balthus-ek dioen bezala «c'est rester au ras des choses matérielles que de croire à l'érotisme pervers de mes jeunes filles.

C'est ne rien comprendre des languissements adolescents, de leur innocence, c'est ignorer la vérité de l'enfance» (Klossowski, 2001: 165). Neskaitila hauek «portaera mitiko'ari erantzuten diote eta betiereko itzuleraren mito gaurkotzen duten gorputz errepresentazio artistiko nostalgikoak dira. Balthusek behin eta berriz azpimarratzen du arte sorkuntza denbora zati bat lapurtzeko modu bat dela, hilezkortasuna bahitu eta denbora gainditzeko baliabidea.

<sup>4</sup> Salcesek dioenez (2016: 544), Médiamétriek «Xiberoko Botzaren audientzia 1995 eta 2002 artean baino ez zuen neurtu; azken urte horretan irrati zuberotarra aintzat hartzeari utzi zion audientziak Ipar Euskal Herriko populazioaren ehuneko oso txikia osatzen zuelako.»

<sup>5</sup> Euskarazkoen artean, aintzat hartzekoa da saretik eta sarerako jaiotako *Zuzen* eta *Sustatu* atari berriemaileen jarduna ere (berauren trafikoari buruz, ikus Codesyntax, 2015 eta *Zuzen*, 2015).

2016a). Azpimarratzekoa da Hekimeneko hedabide nazionalek sare sozialetan duten jarraitzaile-kopurua: 2016ko martxo erdian, berbarako, @berria-k 42.000 jarraitzaile zituen Twitterren, @argia-k 24.000 eta @Hamai-kaTb-k 12.000. Azpimarratzekoa da, paperean eta Interneteko bisita-kopuruan baino alde txikiagoa dagoelako Twitterren EAEn, Nafarroan zein Ipar Euskal Herrian nagusi diren kazetekiko (@Diariovasco.com: 51.000; @elcorreo\_com: 78.000; @DiariodeNavarra: 58.000; @SO\_Paysbasque: 8.900).

## 2.2. EITB taldeko euskarazko hedabideen kontsumoa

Hekimen-eko hedabideek lortutako erreferentzialtasunaren adierazgarri da sare sozialetan daukaten jarraitzaile kopurua. Ikusi berri ditugu bertako hedabide batzuek 2016ko martxo erdialdean Twitterren zuten jarraitzaile kopurua; EITB taldeko euskarazko hedabideetara etorrira, @euskadi\_irratia-k 11.873 jarraitzaile zituen data berean, @gaztea-k 21.578 eta @eitbAlbisteak 10.431. Rebeka Garai EITBren Ikerketa eta Audientzia saileko arduradunaren arabera (komunikazio pertsonala, 2016-02-08), berriz, eitb.eus atariaren euskarazko bertsioak hilero batez beste 256.141 bisitari bakar izan zituen 2015ean.

2015eko *Euskarazko hedabideak* lanak erakusten duenez, bestalde, 133.000 lagunek esan zuten bezperan Euskadi Irratia entzun zutela, eta 112.000k Gaztea entzun zutela. Antzeko zifrak (apur bat altuagoak) eman zituen CIESen 2015eko abenduko neurketak: 149.000 entzule Euskadi Irratiak (bere historiako daturik onena) eta 119.000 Gazteak (*Deia*, 2015). CIESen datu horiek gogoan, hona Salcesen hausnarketa:

Hego Euskal Herriko kate nagusien artean euskarazko nazio mailako irratia dira euren publiko potentzialaren baitan entzule-kuotarik altuenak lortzen dituztenak, datu absolutuetan entzule kopururik handienak dituzten erdarazko irratiaren aurretik ere. Telebistaren eta prentsaren esparruetan, berriz, euskarazkoek euren balizko erabilzaileen artean duten arrakasta aski mugatuagoa da. (Salces, 2016: 571-572)



Prentsaren kasuan hala dela ikusi berri dugu. Fokua telebistan jarriz gero, HPSren 2015eko ikerketaren arabera bezperan 233.000 lagunek ikusi zuten ETB1 eta 25.500ek ETB3. Kantar Mediak ehunekotan eskaintzen dizkigu urte bereko datuak: «Telebistako audientziak Hego Euskal Herrian neur-tzen direnetik, 1992tik, batez besteko urte pobreena izan dute 2015. urtea ETB1ek eta ETB2k. Euskarazko kateak %1,9ko ikusle kuota izan du, aurre-ko urtean baino hamarreko bat gutxiago» (Urkizu, 2016c). Rebeke Garaik (komunikazio pertsonala, 2016-05-18) datu absolutuetara itzuli dizkigu ehuneko horiek: «Kantar Mediaren eguneroko audientzia metatuari dago-kionez, 2015eko batez besteko emaitzak EAEn hauexek dira: ETB1ek 263.000 ikusle eta ETB3k 95.000».

Ezin da ahaztu badirela euskarazko katearen kontsumoaren jaitsiera hein batean azal dezaketen faktore batzuk: azken urteotan digitalizazioarekin telebista-kateak asko ugaldtu izana, banda zabalaren hedapenarekin ikus-entzunezko kontsumoaren zati bat Internetera eta bertako askotariko ikus-entzunezko plataformetara mugitu izana edota EITB taldeak azken urteotan izaniko aurrekontu-murrizketak, adibidez.

Kontuak kontu, datu horiek guztiek euskarazko hedabideen panorama marrazten laguntzen dute, baita gogoetarako puntu zenbait azaleratu ere. Puntu horiek jorratuko ditugu hurrengo atalean.

### 3. Arretagune batzuk

Aipatu berri ditugun datu kuantitatiboetatik eta Salcesek (2016) eginiko ikerketa kualitatibotik (Euskal Herriko zazpi probintzietako 41 lagun elkar-ritzketatu eta euskarazko hedabideez duten iritzia eskatu zien) ondorio batzuk inferituko ditugu hurrengo lerroetan.

#### 3.1. Aldaketa soziolinguistikoak eta problematika berriak

Argi geratzen den kontuetako bat da euskarazko hedabideek *aingura lin-guistikoaren funtzioa* (Salces, 2016: 651) betetzen dutela inguru erdaldune-

tako euskaldunentzat, hauek euskararekin daukaten kontaktu bakarraren berme diren heinean. Hori dela eta, euskarazko hedabideekiko gutxieneko esposizioa ziurtatu beharra dago, bai kontaktu hori gal ez dadin, bai normaltasuna eta ohitura eraikitze aldera.

Bada beste faktore bat oso aintzat hartu beharrekoa, zerikusi zuzena daukana azken urteotan izaniko aldaketa soziolinguistikoekin:

Euskaldunen taldea 528.521 kide izatetik 714.136 lagun izatera igaro da 20 urteren bueltan, V. Inkesta Soziolinguistikoak erakusten digunez [16 urtez azpiko biztanleak aintzat hartu barik]. (...) biztanleen %20k baino gutxiagok euskaraz dakien eskualdeak gero eta gutxiago dira, EAEn bederen. Aitzitik, euskararen arnasguneek, hots, biztanleen %80 baino gehiago elebidun diren eremuek, 1981an baino herri gutxiago biltzen dituzte euren baitan. (...) 2006an EAEko euskaldunen gehiengoa (%60) dagoeneko ez baitzen euskaldunez soilik osatutako etxeetan bizi, etxe mistoetan baizik. (Salces, 2016: 31-32)

Etxe elebakarrak, beraz, geroz eta gutxiago dira, baina, aldi berean, geroz eta gehiago dira etxe mistoak (%60 EAEn), hots, euren baitan hartzen dituztenak euskaldunak eta euskaldun ez direnak. Honek bete-betean eragiten dio hedabideen kontsumoari; etxe horietan kide guztiak telebistari begira daudenean, adibidez, pentsatzekoa da ez dutela euskarazko telebista-katerik jarriko, euretariko batzuk ez direlako bertako edukia ulertzeko gai. Euskararen ezagutza hedatu ahala arazo hori berez konponduko da agian, baina ondo legoke bitartean denen ulermena bermatzeko formula posibleak aztertzea (azpтитuluak baliatzeko aukera, adibidez)<sup>6</sup>.

<sup>6</sup> Honen harira, Euskararen Erakunde Publikoak 2006an Ipar Euskal Herrian eginiko ikerketan atentzioa ematen duen datu bat ageri da: «Euskal Irratien entzuleen %75 baino ez zela euskalduna, Euskadi Irratiaren kasuan %69ra jaisten zela entzule euskaldunen proportzioa, eta Gaztea pizten zutenen %54k baino ez zekiela euskaraz» (Salces, 2016: 564).

### 3.2. Hedabideen ideologia: audientziaren pertzepzioa

Salcesek eginiko elkarrizketetan (2016) euskarazko hedabideen lerratzeko politiko agerikoa aipatzen da oro har, tokikoetan izan ezik. Gainerakoen artean gehien aipatu direnei erreparatuz, ETB EAJren eragin-eremuan kokatzen dute gehienek, eta *Berria* ezkerrekotzat eta abertzaletzat jotzen dute oro har.

### 3.3. Gazteak eta hedabideak

CIESen arabera (Salces, 2016n aipatua) oso baxua da euskarazko komunikabideak erabiltzen dituen gazteen proportzioa. *Gaztea* irratia da salbuespen. Paradoxikoa dirudi hein batean, populazio-segmentu hori baita euskara gehien dakiena. Ondorio berera iritsi ziren Egaña, Zuberogoitia eta Bidegain ere (2015) euskal gazteen informazio-kontsumoa aztertzean, eta iradoki zuten Mendebaldean oro har nagusi den joera batekin zerikusi zuzena izan dezakeela fenomeno horrek: gazteek informaziotik entretenimendurako jauzia eman izanarekin, alegia. Gai honek hurrengo puntura garamatza zuzenean.

### 3.4. Geroz eta kontsumo hedonistagoa

Mendebaldean gazteek informaziotik entretenimendurako jauzia eman dutela aipatu berri dugu. Lerrootara ekarri dugun hurrengo aipuak ere hori pentsarazten digu:

Hortaz, txarto sentiarazten dieten berri txarrak ikustea baino nahiago dute eduki sozialekin edo politikoekin inolako zerikusirik ez duten emankizunak ikustea, entretenimenduzkoak, alegia.

Batik bat entretenimenduzko erabilera egiten duten elkarrizketatuen ezaugarriei dagokienez, 35 urte edo gutxiago dituzte, emakumeak dira eta hedabideen kontsumo gehiena erdaraz egiten dute.

Ez da euskararekiko atxikimendu faltaren ondorio, taldekide gehienek erabiltzen baitute, eta, horrez gain, guztiek baitute hareki-

ko motibaziorik (sinbolikoa edo instrumentala izan). Gazte hauek erdarazkoetara jotzeak berriz ere behartzen gaitu hizkuntza bateko komunikabideek eskaintza anitza izateak duen garrantzia soslaia guztietako erabiltzaileek kontsumi ditzaten. (...) euskarazkoek (bereziki) fikzioan huts egiten dutela antzematen du hainbatek. (Salces, 2016: 323)

Egaña, Zuberogoitia eta Bidegain ere ondorio berera iritsi ziren euren ikerketan (2015): gauez, ikus-entzunezko edukiak gehien kontsumitzen diren momentuan, gazteek fikzioa eta entretenimendua gura dute, eta arlo horietan urria da euskarazko eskaintza. Arlo horiek garatzeko, gainera, diru asko behar da, eta hor euskarazkoek desabantaila handia daukate telebista-kate handiekiko; Astigarragak (2011) eginiko ikerketan, berbarako, ageri da batez beste EITBk Espainiako kate handiek baino sei bider aurrekontu txikiagoa daukala fikziozko telesailak ekoizteko.

Kinka horretan, logikoa dirudi Joselu Blanco EITBko programa eta programazio arduradunak Mondragon Unibertsitatearen Aretxabaletako campusean 2016ko otsailean emaniko hitzaldian esplizitaturiko apustuak: bere ustez, EITB albistegietan lehiatu ahal da batik bat, eta hortxe egingo du indar berezia. Berriro diogu: apustu logikoa da, baina Salcesek ateratako ondorio bat (2016: 650) datorkigu puntuan gogora: «Euskal hiztun komunitatearen erdigunetik kanpo inpaktua izatea euskarazko hedabideen sektoreak datozen urteotan izango duen erronkarik garrantzitsuenetarikoa izango da».

Gogoeta horren ildotik, horra erantzun errazik ez daukan galdera: hedabideen kontsumo militantea geroz eta urriagoa den garaiotan, gazteak informaziotik entretenimendura mudatzen ari diren garaiotan, zelan iritsi geroz eta soslai hedonistagoa duen audientziara?

### 3.5. Kirol egunkariaren falta eta monolaborantza

Aurreko atalean airean utzi dugun galderari helduta, Salcesen ikerketa-tik ondoriozta daiteke hutsune bat dagoela euskarazko hedabideen eskaintzan:

Kirol emanaldiak ikusteko/entzuteko edo prentsa espezializatua irakurtzeko ohitura ez duten solaskideen artean ere badago tankera horretako edukien falta nabarmentzen duenik. Arreta eman digu kirolari buruzko edukien falta baino gehiago kirol egunkari baten gabezia jartzen dela azentua. Ez da generikoki hitz egiten, zuzeneko alderaketak egiten dira inguruko hizkuntzetan arrakastatsuenak diren produktuekin. Gehienetan Espainiako *Marca* egunkariarekin egiten dira konparazioak.<sup>7</sup>

(...) beste pertzepzio bat azaltzen da, hain zuzen ere, euskarazko hedabideen monokultiboari dagokiona. Ikuspegi horren arabera, komunikabide mota bakoitzean komunikabide erreferentzial bakarra legoke euskaraz, eta horrek asko zailduko luke kontsumoa, hainbat arrazoi direla medio. (Salces, 2016: 385-386)

### 3.6. Euskaratik pentsaturiko audientzia-ikerketen beharra

Pernandoren egia da: jendearengana iritsi gura izanez gero, audientzia ezagutu beharra dago lehenengo eta behin. Euskaraz dihardutenek, ordea, telebistaren arloan dihardutenek batik bat, arazoa dute, Izagirrek (2004) seinalaturiko moduan, ikusleria-ehunekoak ematerakoan zaku berean sartu ohi baitira euskaldunak eta euskaraz ez dakitenak. Inkestek soilik populazio euskalduna aintzat hartuko balute, emaitzak desberdinak lirateke: *Herri txiki infernu handi* saioak, berbarako, %3,2ko ikusle kuota orokorra izan zuen 2016ko urtarrilean, baina euskaldunen artean %7,5ekoa (Urkizu, 2016b).

Datu horiek, alabaina, Hego Euskal Herriari dagozkio soilik. Horra beste arazo bat: ez dago euskararen lurralde osoa aintzat hartzen duen azterketa sistematikorik.<sup>8</sup> Arazo horretaz jabetuta, EUKOA egitasmoa, euskal komu-

<sup>7</sup> Antzekoa gertatzen da Ipar Euskal Herrian *L'Equipe* eta, bereziki, *Midi Olympique* egunkariekin.

<sup>8</sup> Rebeke Garai EITBren Ikerketa eta Audientzia saileko arduradunak jakinarazi digunez, «normalean Kantar-ek ematen dituen datuak EAEkoak dira eta batzuetan EAE + Nafarroakoak, baina normalean EAEkoak soilik. CIESeko kasuan, bai EAE baita Nafarroakoak. Kasu baten edo bestean beti agertzen da zein esparrutako datuak ematen diren» (komunikazio pertsonala, 2016-03-16). Ipar Euskal Herriari dagokionez, «Frantzia mailako neurketek nekez aintzat hartzen dituzte hiru herrialdeak datuen xeheketa-unitate gisa, Médiamétrie-ren Médialocales atalaren

nikabideen audientziak aztertzea xede zuen erakundearen proiektua, aurkeztu zen bere garaian (Williams et al, 2011), baina egitasmo hura ez zen gauzatu.

Aurrera begira, euskarazko komunikazio-eremua sendotzeko estrategiko deritzogu sektorearen eta administrazioen artean euskarazko hedabideen audientzia-neurketez arduratuko litzatekeen erakundea diseinatu eta eratzeari. Horri gagozkiola, oso aintzat hartzekoa da 2016ko urtarrilean Hekimenek, EHUK eta Deustu eta Mondragon unibertsitateek Euskal Hedabideen Behategia sustatzeko sinatutako akordioa; ez alferrik, hedabideen behategiaren beharra arrazoitzen hasita, honako hau da Hekimenek lehengo eta behin markatzen duen helburua: «Audientziak neurtuko litzatekeen tresna edo modu guretzako baliagarri bat diseinatzeko»<sup>9</sup>.

### 3.7. Esparru desberdinak (EAE, Nafarroa, Ipar Euskal Herria) eta tokikoen eta nazionalen arteko elkarlana

Euskararen lurralde osoko daturik ez izatea zatiketa juridiko-administratiboari zor zaio hein handi batean; zatiketa horrek kontsumo-moldeetan ere eragina dauka, Euskal Herriko hedabideen kontsumoaren argazkiak hiru esparru oso desberdinak erakusten baititu (EAERI dagokiona, Nafarroakoa eta Ipar Euskal Herrikoa).

Hiru errealitate horietako bakoitzak ezaugarri berezko eta propioak izanagatik, prentsari dagokionez elementu komun bat dute guztiak: Euskal Herrian eginiko egunkari ez abertzaleak dira hegemoniko (*El Correo*, *Diario Vasco*, *Diario de Navarra* eta *Sud Ouest*). Hegoaldekoen eragin-eremua pro-

---

baitako Pays Basque lagin espezifiko delarik ezagutzen dugun salbuespen bakarra. Tamalez, azken honek euskarazko bi irrati kateren (Irulegiko Irratiaren eta Gure Irratiaren) kontsumoaren berri baino ez digu ematen. Gaintontzean, kulturaren eta hizkuntzaren arloko erakunde publikoek eta bertako euskarazko hedabideek beraiek egindako txosten bakanek baino ez gaituzte datuz hornitzen» (Salces, 2016: 647).

<sup>9</sup> <http://www.hekimen.eus/behategia/>

bintzia da eta eremu zabalagoa hartzen du *Sud Ouest*-ek,<sup>10</sup> baina denek ere informazio lokala dute indargune, hortxe gailentzen zaizkio prentsa nazional euskaltzale/abertzaleari. Haatik, euskaraz tokiko prentsa joria dagoela kontuan izanik, kazeta nazional eta lokalen arteko elkarlanetik proiektu interesgarriak atera daitezkeela begitantzen zaigu. Arabako *Alea* astekaria, GEU Gasteiz elkarteak, *Goiena* eta *Berría* komunikazio-taldeek eta Arabako zenbait eragilek elkarrekin garatutako proiektua, adibide ona dela uste dugu.

Tokikoen eta nazionalen elkarlana ikus-entzunezkoetan ere posible izan daitekeela erakusten du Korrikaren 19ren hasiera-ekitaldia Urepeletik zuzenean eskaintzeko Kanaldudek, EITBk, *Ipar Euskal Herriko Hitza*-k, *Berría*-k, Euskal Irratiek, *Kazeta.eus*-ek, Tokikom-ek, *Herria*-k eta Hamaika Telebistak burututako elkarlanak (Landaluze, 2015). Gainera, Korrika horren amaiera-ekitaldian ere errepikatu zuten elkarlan-esperientzia ETBk, Hamaikak, *Berría*-k eta Tokikom-eko kateek (Urkizu, 2015), eta urteak dira EITB, Hamaika eta Goienaren arteko elkarlanari esker Durangoko Azokan *Azoka Telebista* eskaintzen dela.

Eskaintza aberastu eta produkzio erakargarriagoak osatze bidean ezinbesteko deritzogu ikus-entzunezkoen arloan elkarlan horretan sakontzeari, besteak beste Salcesek seinalatzen duen kontu honegatik:

(...) elementu bisualei lotutako espektakularizazioak kalitatearen kontzeptua definitzeko orduan duen garrantziari arreta handiagoa jarri beharko litzaiokeela deritzogu. Planteamendu horren arabera, telebisten kasuan kalitatearen inguruko pertzepzioak askoz modu gordinagoan islatuko luke komunikabide handien eta txikien arteko baliabide desoreka, eta gutxieneko estandarrak mundu mailako hedabide erraldoien ekoizpenek paratzen duten parametroen arabera zedarrutuko lirakeke, bereziki fikzioaren alorrean (Salces, 2016: 643).

Egaña, Zuberogoitia eta Bidegainek gazteekin eginiko ikerketan (2015) maiz atera zen kontu hori: gazteek ia ez dute euskarazko tokiko telebistarik

<sup>10</sup> *Sud-Ouest*-ek hainbat edizio dauzka, eta horietako bat Lapurdi eta Nafarroa Beherera mugatzen dena (Pays Basque), Zuberoako edizioa Biarnoarekin nahasita dago, baina Zuberoan, batez ere *La République des Pyrénées* irakurtzen da.

kontsumitzen, haien ustez berauen estetikak eta ikus-entzunezko hizkuntzaren erabilerak ez dituelako betetzen bete beharreko gutxienekoak («hain gaude ohituta 10 minutuan 500 plano ikusten ezen epe horretan 50 jartzen dizkigutenean guretzat hori mantsoegia baita», dio ikerketa horretan jasotako gazte baten lekukotzak).

Hori horrela izanik, galderak datoz burura: merezi du hain baliabide gutxirekin tokikoek 24 orduz emititzea, ala nazionalekin elkarlana landuta deskonexioen bidea esplora daiteke, egunean 20-30 minutu inguru ekoitziz eta gainerako denboran telebista nazionaleri lekua utziz? Tokian tokiko nodoak izango lituzkeen telebista nazional errotuagoa etor liteke hortik?

*Telebista nazional* eta *errotu* terminoak erabili ditugunez, bestalde, atentzia ematen duen beste kontu bat da Ipar Euskal Herriko euskaldunei oro har arrotz zaiela ETB, besteak beste erabiltzen dituen erreferentziak oso EAEkoak direlako (non eta ez diren zuzen-zuzenean espainolak<sup>11</sup>) eta *prime time* orduak ere desberdinak direlako. Kontuan hartu beharko luke hori EITBk, batez ere Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako biztanleak audientzia potentzial direla aintzat hartuta<sup>12</sup>. Izan ere, lehen aipaturiko arrotasun-sentipena gorabehera, Euskararen Erakunde Publikoaren 2007ko azterketaren arabera Euskadi Irratia hamargarren irrati entzunena da hiru probintzia horietan, eta Gaztea hamalagarrena; ikerketa horretan agerienez, Hego Lapurdin eta Nafarroa Beherean gainerako eskualdeetan baino

<sup>11</sup> 2016ko negu hondarreko adibide bat ekarriko dugu esanikoa ilustratzeko: TAOren tasen inguruko albistea ematen ari ziren *Gaur egun* albistegian, eta EAEko hiriburuetakoko prezioak Zamora eta beste zenbait hiri espainoletakoekin alderatu zituzten Miarritze edo Baionakoekin beharrez, inguru horietako audientzia potentziala uxatuz edota arrotz sentiaraziz. Irizpide berari jarraiki (eta FORTAko kide izateak dakartzan morrontzak tarteko), albiste izan ohi da Espainiako bazterrik urrunenean jazotako gertaera, baina ez ordea Paue edota Bordelekoa, hauek hurrago ditugun arren.

<sup>12</sup> Ezin ahaztu, era berean, zeintzuk diren EAEko ikusleen joerak (ez daukagu Euskal Herri osoko estatistikarik): 2016ko urtarrilean Tele5k %15,8ko ikusle-kuota lortu zuen (Espainian baino bi puntu gehiago); bigarren tokian zen Antena3, 4,9 puntu gutxiagorekin. Azpimarratzekoa da, halaber, la Sextak hartutako indarra: %8,6ko ikusle-kuota, Espainian baino 1,3 puntu gehiago (Urkizu, 2016b).



arrakasta handiagoa dute bi irratiek (Salces, 2016: 558-559an aipatua). Hona datu adierazgarri batzuk:

Ipar Euskal Herrian, astelehenetik ostiralera irrati-entzuleen %5ak sintonizatzen du Euskadi Irratia, eta beste %10 batek astean behin edo birritan. Eremu horretan, Nafarroa Beherean (%12) eta Lapurdiko hegoaldean (%10) ditu eguneroko entzule-proportzio handienak. Bestalde, Gazteak Euskadi Irratiak baino arrakasta gutxiago du Bidasoaren ipar ertzean. Izan ere, musika irratia entzuten dutenen kopurua %2koa da bertan, eta beste %5 batek astean behin edo birritan entzuten du. Iparraldearen baitan, Lapurdiko hegoaldean entzuten da gehien Gaztea, bertan irratia entzuten dutenen %6ak sintonizatzen baitu. (Salces, 2016: 560)

Irratien adibidea jarri dugu, baina telebistarentzat ere berdin-berdin balio du. Kontu honetan ez ezik, baina, arlo orokorrago batean ere hausnarketarako parada eskaintzen du EITBk, eta hurrengo puntuan helduko diogu gai horri.

### 3.8. EITB: eredia berriz pentsatzeko unea?

Euskarazko hedabideen diru-laguntza politika berbagai izan da azken bo-ladan. Jaurlaritzak Hekimen-eko hedabideetara bideratutako diru-kopurua, batetik, eztabaida-iturri da (ikus adibidez, Iraola, 2016). Kinka horretan, bada diru-laguntza horiek EITB taldera bideraturikoekin alderatu dituenik: «(...) hasi behar dugu hitz egiten hedabide publiko eta herri ekimeneko hedabideen finantzaketan dagoen desoreka ikaragarriaz. 2012an Eusko Jaurlaritzak 132 milioi jarri zituen EITBko aurrekontuan, herri ekimeneko dozenaka komunikabideren aurrekontuetan 5 milioi». (Letona, 2013)

Horren aurrean, ez zaigu iruditzen besteei emateko batari kentzea kon-ponbide egokia izan daitekeenik. Aukeran, hobe diru-laguntzak handitzeaz eta polo nagusi bien arteko balizko sinergiaz eta elkarlan posibleaz berba egitea. Ildo horretan, Tokikom-en gogoeta-taldeak (2013) bi solairuko etxearen metafora baliatu zuen elkarlan hori irudikatzeke (beheko solai-ruan tokikoak leudeke, saretuta, goian orokorrak, eta igogailua gora eta behera ibiliko litzateke, edukiak garraiatzen).

Urrats txikiren batzuk egin dira norabide horretan (tokikoetako kazetarien kolaborazioak Euskadi Irratian, Korrikako edota *Azoka Telebista*-ko esperientziak...), baina begitantzen zaigu hor dagoen potentzuala ez dela oraindik behar beste ustiatu. Joselu Blancoren ideia aipatu dugu lehen, zelan bere ustez ETB albistegietan lehiatu ahal den batik bat. Iruditzen zaigu erronka horri hobeto erantzun ahal zaiola tokikoekin elkarlanean, modu horretan Euskal Herriko txoko gehienetako lehen eskuko informazioa lortzeaz gain ETBk aukera izango lukeelako sare modura eratu eta gizartean gehiago errotzeko.

EITBk, nolana dela, aparteko gogoeta merezi du, bai irismen handiena duen euskarazko hedabide-taldea delako, bai berak daukalako aurrekonturik altuena; hurrengo lau urteetan, gainera, gora egingo du aurrekontu horrek, 2016-2019 aldirako kontratu-programa tarteko; edozelan ere, Aranbururen ustez (2016), «2016 eta 2019 artean diru-laguntzak gorakorrak izango diren arren, zifrak, zenbaki absolututan, 2003-2004ko aurrekontuak baino txikiagoak dira».

Zein izan behar da, baina, deskribatu berri dugun panorama honetan, EITBren funtzioa datozen urteetan? Izan ere, EITBren sorrera-legea 1982koa da, eta egungo kinka ez da ordukoa. Amezaga eta Aranaren arabera (2008) EITB, bere sorrera-legeak hala xedatuta, helburu birekin jaio zen: euskara eta euskal kultura sustatzea batetik, eta euskal gizartea informatzea eta kohesionatzea, bestetik. Alabaina, ETB2ren sorrerak, 1986an, aldaketa ekarri zuen:

Horrela, behin [ETBn] sartuta, gaztelera presentzia irabaziz joan zen, 1986ra arte. Urte horretan ordura arteko eredia (euskararen zentraltasun kuantitatibo eta kualitatiboa zuena alegia) hautsi eta kanal bikoizketara jotzea erabaki zen: bata, ETB1, euskara hutsez arituko zena; eta bestea, ETB2, gaztelera hutsezkoa (denbora tarte txiki batean euskarazko saioren batzuk aieratzen zituen arren, berehala elebakartu zen). (Amezaga eta Arana, 2008: 40)

Bi ikertzaileon ustez, ETB2 sortuz geroztik, erdarazko katearen zeregin esklusibotzat utzi zen bigarren xedea (euskal gizartea informatzea eta kohesionatzea), eta ETB1 euskal hitzunei produktuak eskainiz euskara sustatzera

mugatu zen. Haatik, iruditzen zaie gaur egun «modu zabal eta integratzailean» heldu beharko litzaiekeela bi helburu horiei, «hizkuntzen susperkuntzari eta erabilerari dagozkion ikuspegi dikotomikoak» baztertuta, «osagarritasuna» bilatuta eta euskarari bultzada emanda orain arte nagusiki gaztelaniaz aritu izan diren euskarrietan ere, «euskara modu goxoan txertatzeko, ulermen maila baxua edota ohiturarik ez duten ikus-entzuleak erakarritz», eta, horrela jokatuta, «euskararen legitimazioa, presentzia soziala eta erabilgarritasuna bultzatuz». Horretarako, eta baita arestian aipatu dugun familia mistoen kontuari aterabidea emateko ere, proposatzen dute baliatzea irudiak, grafismoa, gaininprimaketak eta digitalizazioak zabaltzen dituen aukerak (azpituduluak eta audio elebiduna, nagusiki). (Amezaga eta Arana, 2008: 47-48)

Proposamenaren lehen atalari arreta berezia jartzea merezi duela uste dugu: *ETB1 = euskal kultura eta euskararen sustapena* eta *ETB2 = euskal gizartea informatzea eta kohesionatzea* ikuspegi dikotomikoa gainditzeari, alegia. Izan ere, Andoni Aranburu EITBko Estrategia eta Komunikazio Zuzendaria Mondragon Unibertsitatean 2016ko Gertukom jardunaldian<sup>13</sup> aipatutako arazoa datorkigu gogora: Galizian eta Katalunian kate autonomiko jeneralista bakarra daukate eta horrek erraztu egiten die marka lantzea; ETBren kasuan, aldiz, kate jeneralistak bi dira. Horrek, aurrekontuan eragiteaz gain, marka indartzea zailtzen du Aranbururen iritziz.

Bi kontu horiek gogoan izanik eta lehenago aipatutako aldaketa soziolinguistikoak aintzat hartuta, burura datorkiguna da ea ez ote den garaia ikuspegi dikotomiko hori gainditzeko, kate bakarrean batuta euskal gizartea informatzeko eta kohesionatzeko funtzioa eta baita euskara eta euskal kultura sustatzeko ere. Kate jeneralista bakarraz ari gara, gaztelaniari ere leku egin baina, azpituduluak, audio bikoitza eta ikus-baliabideak oro baliatuta, euskararen hegemonia bermatuko lukeen kate bakarraz, gainerako hirurak euskarazko tematikoei utzita (adibidez, umeentzako bata, kirol eta albisteentzako bestea eta lehenago botatako telesailentzako hirugarrena). Egitea baino errazagoa da esatea, badakigu, baina gaiak hausnarketa merezi duela uste dugu.

<sup>13</sup> <http://gertukom2015.mondragon.edu/eu>

#### 4. Azken hitza

Euskaraz diharduten komunikabideen gaur egungo argazkia eskaini dugu artikulu honetan, argazkiari arretaz erreparatu eta atentzioa ematen duten zenbait elementu seinalatzearekin batera. Dena dela, ez da komeni nondik gatozen ahaztea. Hona Luis Alberto Aranberri *Amatiño*-k kontaturiko hiru anekdota, Hego Euskal Herrian 1970eko hamarkada amaieran bizi zen giroaren adierazgarri:

1. *Deia*-ren bi erredaktore-buruetako batek, guztiz kazetari ona eta Unibertsitateko irakasle, benetan uste zuen (eta jendaurrean esaten zuen) euskara ez zela komunikazio-hizkuntza (*el euskara no es lengua de comunicación*), eta, ondorioz, alferrik ari ginela, euskara ez baitzen sekula komunikabideetan zabalduko eta normalduko. Hau 1977an esaten zuen, ETB sortu baino bost urte lehenago.

2. ETB 1983an hasi zenean, ez genuen uste egunero albistegi bat euskaraz egiteko gauza izango ginenik eta, hortaz, ETBren lehen programazioa telebista elebidun bezala prestatu zen. Gero, azkenengo momentuan, Eusko Jaurlaritzak hartu zuen euskaraz bakarrik egiteko erabakia, irriari zein prentsa elebidunaren porrota aztertu ondoren.

3. Euskaltzaindiak [Espainiako] *Real Academia*-ren titulua jaso zuenean (1975 inguruan), Euskaltzaindiak berak prentsaurrekoa eskaini zuen Durangon eta den-dena gaztelaniaz izan zen. Prentsaurrekoa amaitzear zela, galdera gehiago ez zegoela-eta, nik euskaraz galdetu nuen ea euskaraz galderarik egiterik ote zegoen. Inguruan nituen kazetariak irain edo probokaziotzat hartu zuten nire *ausardia* hura.» (Amatiño, Zuberogoitia, 2003: 273an aipatua).

Garai berean, Ipar Euskal Herriko egoera ez zen hobe; Alexandre De la Cerdak<sup>14</sup> aipaturiko anekdota honek garai hartako aurreiritzien berri ematen du: «(...) Une anecdote peut facilement montrer l'état de sous-développement voulu et contrôlé de l'information dans lequel se trouvait le Pays Basque: désirant interviewer un vieux pilotari sur ses souvenirs, ce dernier

<sup>14</sup> 1970eko hamarraldi amaieran Ipar Euskal Herrian emititzen hasi zen Radio Adour Navarre irrati elebidun abertzalearen zuzendari zen Alexandre De la Cerda.

hésitait, et finissait par nous répondre que le micro n'était pas un instrument basque.» (De la Cerda, Zuberogoitia, 2003: 347n aipatua).

Kinka horretan, 1980ko hamarkada giltzarri izan zen euskarazko komunikabideentzat: hamarkada hasieran ikus-entzunezkoen arloan Ipar Euskal Herriko euskal irratiak eta EITB sortu ziren ia ezer ez zegoen lekuan; hamarkada amaieran, berriz, tokiko prentsa eta *Euskaldunon Egunkaria*. Denbora-tarte laburrean ia-ia ez izatetik izaterako bidea egin zela, funtsean, eta hazkunde-prozesu luze eta konplexuan murgilduta jarraitzen duela euskarazko komunikazio-eremuak, hazikurenak jota aldi-aldi (izatea berez baita problematiko) baina proiektu berriekin eta eremuak zabalduz, bizi-bizirik den seinale. Orain, heldutasun-puntura iritsita, agian estrategiak birpentsatu eta urrats berriak egiteko garaia ailegatu zaie euskarazkoei, izate hutsetik haratago joan eta apurka-apurka Euskal Herriko komunikabideen artean lidergoa lortzeko.

## Bibliografia

Amezaga, Josu; Arana, Edorta, 2008, «Telebistagintzaren digitalizazioa eta euskerak», *Bat*, 68, 37-49. Hemendik jasoa: <http://www.soziolinguistika.eus/files/02%20J%20Amezaga%20et%20al.pdf>

Aranburu, Andoni, 2016-02-27, «EITBren etorkizunarekiko konpromisoa» *Berria*. Hemendik jasoa: [http://www.berria.eus/paperekoa/1832/017/003/2016-02-27/eitbren\\_etorkizunarekiko\\_konpromisoa.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1832/017/003/2016-02-27/eitbren_etorkizunarekiko_konpromisoa.htm)

Aranzabal, Joxe, 1998, «Euskarazko herri prentsaren bilakaera», *Euskonews & Media*, 8. Hemendik jasoa: <http://www.euskonews.com/0008z/bk/media0801eu.html>

ARGIA, 2012-11-21, «Hekimen sortu da, euskal hedabideen elkartea», *Argia*. Hemendik jasoa: <http://www.argia.eus/albiste/hekimen-sortu-da-euskal-hedabideen-elkartea>

Astigarraga, Idoia, 2011, «Euskarazko telesailen produkzioaren uzta eta mugen zertzelada XXI. mendean: Goenkale saioaren kasu-azterketa», *Uztaro*, 78, 5-29.

Azurmendi, Nerea, 2004, *Ramon Labaien. Euskal Telebista, hutsean sortua*. Andoain: Andoaingo Udala.

Basterretxea, Jose Inazio, 2003, *Aurkari ikusezina. Identitateaz eta gizarte-komunikazioaz*. Irun: Alberdania.

BERRIA, 2012-03-17, «Topaguneko tokiko hedabideek Tokikom enpresa sortu dute, etorkizuna elkarlanean diseinatzeko». *Berria*. Hemendik jaso: [http://www.berria.eus/albisteak/62437/topaguneko\\_tokiko\\_hedabideek\\_tokikom\\_enpresa\\_sortu\\_dute\\_etorkizuna\\_elkarlanean\\_diseinatzeko.htm](http://www.berria.eus/albisteak/62437/topaguneko_tokiko_hedabideek_tokikom_enpresa_sortu_dute_etorkizuna_elkarlanean_diseinatzeko.htm)

Camacho, Idoia, 2002, *Herri aldizkarien funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999)*. [Doktorego-tesia]. Leioa: EHU.

CODESYNTAX, 2015-02-27, «Umap Iturriak: euskaldunok Twitterren partekatzen ditugun loturen jarraipena» [blog mezua], *Sustatu*. Hemendik jaso: <http://sustatu.eus/1424978766715>

Cormack, Mike; Hourigan, Niamh, 2007, *Minority Language Media. Concepts, Critiques and Case Studies*. Bristol: Multilingual Matters.

DEIA., 2015-12-22, «EITB cierra el año con 1.070.000 telespectadores y oyentes». *Deia*. Hemendik jaso: <http://www.deia.com/2015/12/22/ocio-y-cultura/comunicacion/eitb-cierra-el-ano-con-1070000-telespectadores-y-oyentes->

Egaña, Txema; Zuberogoitia, Aitor; Bidegain, Eneko, 2015, «Media Literacy: University student perception of local media in Basque language». *Shaping the Future of News Media*. Barcelona, Pompeu Fabra, 17-19th June 2015.

EUSKO JAURLARITZA, 2015, *Euskarazko hedabideak* [txosten argitaragabea]. Gasteiz: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza.

Goikoetxea, Garikoitz, 2016-03-08, «Hekimenek ez du nahikotzat hartu diru laguntzen egituratze berria», *Berria*. Hemendik jaso: [http://www.berria.eus/paperekoa/1851/011/001/2016-03-08/hekimenek\\_ez\\_du\\_nahikotzat\\_hartu\\_diru\\_laguntzen\\_egituratze\\_berria.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1851/011/001/2016-03-08/hekimenek_ez_du_nahikotzat_hartu_diru_laguntzen_egituratze_berria.htm)

———, 2015-11-04, «117.000 irakurle ditu BERRIAk», *Berria*. Hemendik jaso: [http://www.berria.eus/paperekoa/1757/008/001/2015-11-04/117000\\_irakurle\\_ditu\\_berriak.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1757/008/001/2015-11-04/117000_irakurle_ditu_berriak.htm)

HEKIMEN, 2016, «Hekimen elkartearen agerraldia Eusko Legebiltzarrean». Hemendik jaso: <http://www.argia.eus/albisteak/dokumentua-hekimen-elkartearen-agerraldia-eusko-legebiltzarrean>

Iraola, Arantxa, 2016-03-10, «Guretzat, irismenaren irizpideari %70 ematea desorekatuta dago», *Berria*. Hemendik jaso: <http://www.berria.eus/paperekoa>

koa/1757/008/001/2016-03-10/guretzat\_irismenaren\_irizpideari\_70\_ematea\_desorekatuta\_dago.htm

Izagirre, Koldo, 2004, «Masustak, madariak eta New York», *Jakin*, 142, 11-25.

Jones, Elin Haf Gruffydd, 2013, «Minority Language Media, Convergence Culture and the Indices of Linguistic Vitality», in Jones eta Uribe-Jongbloed: *Social Media and Minority Languages. Convergence and the Creative Industries*. Bristol: Multilingual Matters, 58-72.

Landaluze, Koldo, 2015-03-17, «Hamaika Telebista dedica una programación especial a Korrika», *Gara*. Hemendik jasoa: [http://kazeta.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara\\_2015-03-17-06-00/hemeroteca\\_articles/hamaika-telebista-dedica-una-programacion-especial-a-korrika](http://kazeta.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara_2015-03-17-06-00/hemeroteca_articles/hamaika-telebista-dedica-una-programacion-especial-a-korrika)

Letona, Xabier, 2013, «EITB eta herri ekimeneko hedabideak» [Argia sarien banaketa-ekitaldian eskainitako hitzaldia]. Hemendik jasoa: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2355/eitb-eta-herri-ekimeneko-hedabideak>

Salces, Gorka, 2016, *Euskaldunak komunikabideen aurrean. Iritzien, ohituren eta jarrearen azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa* [Doktorego-tesia]. Leioa: EHU.

TOKIKOM-EN GOGOETA TALDEA, 2013, *Euskal hedabideen etxea, tokikoen ikuspegitik*. Hemendik jasoa: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1385548090/zer\\_berri/muinetik/dokumentuak/2013/EUSKAL\\_HEDABIDEEN\\_ETXEA.pdf](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1385548090/zer_berri/muinetik/dokumentuak/2013/EUSKAL_HEDABIDEEN_ETXEA.pdf)

TOPAGUNEA, 2011, «Hedabideak, aliantzen garaia», *Topaberri*, 65, 14-18. Hemendik jasoa: <http://topagunea.eus/dokumentua/topaberri-65-2011ko-abendua-hedabideak-aliantzen-garaia/>

Urkizu, Urtzi, 2016a (2016-02-19), «Hekimeneko hedabideetako trafikoa %76 hazi da bost urtean», *Berria*. Hemendik jasoa: [http://www.berria.eus/paperekoa/2346/036/002/2016-02-19/hekimeneko\\_hedabideetako\\_trafikoa\\_76\\_hazi\\_da\\_bost\\_urtean.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/2346/036/002/2016-02-19/hekimeneko_hedabideetako_trafikoa_76_hazi_da_bost_urtean.htm)

———, 2016b (2016-02-02), «ETBk azkenaldiko ikusle datu onenak lortu ditu urtarrilean», *Berria*. Hemendik jasoa: [http://www.berria.eus/paperekoa/2346/036/002/2016-02-02/etbk\\_azkenaldiko\\_ikusle\\_datu\\_onenak\\_lortu\\_ditu\\_urtarrilean.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/2346/036/002/2016-02-02/etbk_azkenaldiko_ikusle_datu_onenak_lortu_ditu_urtarrilean.htm)

———, 2016c (2016-01-03), «Inoizko ikusle datu txikienak izan ditu ETBk 2015. urtean», *Berria*. Hemendik jasoa: [http://www.berria.eus/albisteak/118220/etb1ek\\_eta\\_etb2k\\_inoizko\\_ikusle\\_datu\\_txikienak\\_izan\\_dituzte\\_2015ean.htm](http://www.berria.eus/albisteak/118220/etb1ek_eta_etb2k_inoizko_ikusle_datu_txikienak_izan_dituzte_2015ean.htm)

———, 2015-03-28, «Korrikaren amaiera emango dute bihar euskarazko komunikabideek», *Berria*. Hemendik jasoa: [http://www.berria.eus/paperekoa/2273/029/002/2015-03-28/korrikaren\\_amaiera\\_emango\\_dute\\_bihar\\_euskarazko\\_komunikabideek.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/2273/029/002/2015-03-28/korrikaren_amaiera_emango_dute_bihar_euskarazko_komunikabideek.htm)

Williams, Colin; Evas, Jeremy;; Climent-Ferrando, Vicent eta Larrinaga, Elixabete, 2011, *Irigoienazpikoa - Hizkuntza ez hegemoniko edo maila ertainekoak hedabideetan eta IKTetan*. Andoain: Hitzurun Hizkuntz Zerbitzuak

Zuberogoitia, Aitor, 2003, *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*. [Doktorego-tesia]. Leioa: UPV/EHU.



## **Anbotoko Dama eta infernua. Aurrez sartu eta atzez irten**

**La Dama de Anboto y el infierno. Entrar de frente y salir de espaldas.**

**La Dame d'Anboto et l'enfer. Entrer de face et sortir de dos.**

**The Lady of Amboto and hell. Entering face first and leaving backwards.**

MENTXAKATORRE ODRIOZOLA, Jon  
Deustuko Unibertsitatea  
mentxaka\_71@hotmail.com

Noiz jaso: 2016-04-19

Noiz onartua: 2016-05-27

Euskal mitologia deritzogun eremuan, Barandiaranek izaki baten garrantzia azpimarratu zuen: Mari, hainbat mitoren erdigune, eta hainbat jeinu edo numenen agintari. Euskal mitologiaren interpretazioan ere, pertsonaiak arreta nabarmena erakarri du, batez ere XX. mendeko hermeneutikak matri(ark)alismoaren teoriarekin lotu zuenetik. Mariren inguruan emandako azalpenek, ordea, ez dute bere gaia agortzen, eta bada abagunea azalpen berriren bat proposatzeko.

Mariren egoitzara *aurrez sartu eta atzeraka irten* formula edo erritua gorde duten kontaktuzunak bildu dira, eta testuinguru berri bat eman zaie. Hots, Mari eta bere eremua antzinako infernuaren erakusle direla adieraztea du helburu testu honek, mitoak artelantzat hartzen dituen filosofia gida izanik, eta greziar tradizioa gogoan izanda.

**Hitz-gakoak:** Anbotoko Dama, Infernua, Mitoa, Erritua.

En la mitología vasca, Barandiaran destacó la importancia de un ser: Mari, centro de varios mitos, así como jefe de varios genios o númenes. También en la interpretación de la mitología, el personaje ha recibido una destacada atención, sobre todo desde que la hermeneutica del siglo XX lo unió con la teoría matri(arc)alista. Sin embargo, las explicaciones dadas sobre Mari no agotan su tema.

Se han recopilado narraciones que guardan la fórmula *entrar hacia delante y salir hacia atrás* de la sede de Mari, y se les ha dado un nuevo contexto. Es decir, el objetivo de este texto es exponer que Mari y su entorno son muestra del infierno, con la ayuda de un enfoque filosófico que toma los mitos como obras de arte, y teniendo en mente la tradición griega.

**Palabras clave:** Dama de Anboto, Infierno, Mito, Rito.

Dans la mythologie basque, Barandiaran a souligné l'importance d'un être : Mari, au centre de plusieurs mythes et qui est présentée comme le chef de plusieurs génies ou divinités. Ce personnage a bénéficié d'une attention toute particulière dans l'interprétation de la mythologie, surtout depuis que l'herméneutique du XX<sup>e</sup> siècle l'a relié à la théorie matri(arc)ale. Pourtant, les explications données sur Mari n'en ont pas épuisé le sujet.

On a collecté des récits qui contiennent la formule *entrer en avant et sortir en arrière* de la demeure de Mari, et on leur a donné un nouveau contexte. C'est-à-dire que l'objectif de ce texte est de démontrer que Mari et son environnement sont des manifestations de l'enfer, grâce à un cadrage philosophique qui considère les mythes comme des oeuvres d'art et qui garde à l'esprit la tradition grecque.

**Mots-clés:** Dame d'Anboto, Enfer, Mythe, Rite.

In Basque mythology, Barandiaran highlighted the importance of a being: Mari, center of several myths and head of several geniuses or numens. Also in the interpretation of mythology, the character has received prominent attention, especially since the hermeneutics

of the twentieth century joined it with the matri(arch)alist theory. However, the explanations given on Mari do not exhaust its subject.

There have been collected stories that keep the formula *come forward and go back* to the headquarters of Mari, and they have been given a new context. That is the objective of this text is to show that Mari and its surroundings are pointers of the Underworld, with the help of a philosophical approach that takes the myths as works of art, and bearing in mind the Greek tradition.

**Keywords:** Dame of Anboto, Underworld, Myth, Rite.

## 1. Sarrera

Euskal mitologiari begira, izaki bat nabarmendu egiten da denen artean: Mari, leizeetako jainkozko, zerutik hegalaria, ezaren eramaile. Hala eta beste hainbat eratarata agertzen zaigu bildutako kontakizunetan, eta irakurketa askoren gaia izan da azken hamarkadetan, Barandiaranek honakoa esan zuenetik:

Jeinu bat da (emakumezkoa, euskal mitologian dauden gehien-  
goen antzera), beste herrialde batzuetan izaki askori atxikitako fun-  
tzio ugari bereganatu dituena. Gainerako jeinuen agintaritzat har-  
tzen da. Bere egungo izenaren atalen artean, badirudi zaharrena Mari  
dela (1996: 99) [...] Numen horrek (Mari) jatorri askotako gai mi-  
tikoen erdigune tematikoa edo elkargunea osatzen du; indoeuropa-  
rrak batzuk, hondo aurre-indoeuroparrekoak beste batzuk... baina  
bere ezaugarriak adituta... Lurraren sinbolotzat hartzeraz jotzen dugu  
–pertsonifikazioa, beharbada–. (1996: 106)<sup>1</sup>

Adierazpen horren hausnarketaz eta neurriaz ohartaraztea komenigarria  
zaigu aurrera egin orduko. Hasteko, Barandiaranek *jeinu* edo *numen* izenak  
darabiltza Mariz aritzeko, eta emakumezkoa dela esaten du –euskal mitolo-  
gia osatzen duten gehienak diren harira–. Bigarren, funtzio asko bere  
esku dituela azaldu zuen ikerlariak, beste herrialde batzuetan izaki ezberdi-  
nek bermatzen dituztenak. Ondoren, jeinuen agintari dakusagu, eta hartzat  
jotzen dugu, azalpenak dioen legez. Azalpena luzatu egiten du Barandiar-  
anek, zuhur: Mari gai mitiko askoren eta ezberdinen ardatza da, indoeuropa-  
rrak eta ez-indoeuroparrak horiek. Eta honako ondorioaren alde egin zuen  
ikertzaileak: Mari lurraren ikur da; haren irudi pertsonifikatua, agian.

Ondo neurtutako azalpen horretatik at baieztapen ugari egin dira, ordea.  
Mariri Amalur, jainkosa, nagusia, zerutarra, antzinako indarra eta abar iza-  
tea egotzi zaio. Izan ere, bere ezaugarriak gogoan hartuz, laster nabari da  
batzuk zaharrak direla, berriagoak diruditenen artean, eta, oro har, euskal  
tradizioan antzinetatik bizirik dirauen izakia dela, garaian-garaian bere egi-

<sup>1</sup> Lan honetan agertuko diren aipu guztiak, jatorriz euskarazkoak ez badira, egileak itzulitakoak dira.

tekora egokitutakoa. Alperrik ez baitzuen esan Barandiaranek (1974: 440) euskal mitologiaren inguruan: «Ondorioz, esan daiteke euskal mitoek euskal Pirinioko paleolitoko ehiztariaren itzalak eta irudi kideak islatzen dituztela, edo, gertagarriagoa dena, haietatik oinordetzan hartutakoak».

Dena den, azken urteetan Mariren –eta euskal mitologiaren– gainean egindako irakurketak eta interpretazioak ez dira erabatekoak. Barandiaran, Azkue eta bestek hasitako bilketa eta ikerketa etnografiko eta antropologiko aberatsa beste diziplina batzuentzat pizgarri izan da, eta, ekarpen nabarmenen artean, Ortiz-Osés-en (2007) irakurketa hermeneutikoa, Hartsuagaren (2004a) mitologia konparatuaren azterketa eta antropologia feministaren (Arana, 1998; Díez *et al.*, 2010) adierazpena azpimarratu daitezke. Ekarpene horiek, bestalde, ez dute gaia agortzen. Asetasun gabezia horren testuinguruan kokatzen da lan hau, Mariren gainean egindako irakurketen alboan osagarri bat gehitzera datorrena, ikuspegi filosofikoari helduz.

Mariren inguruan diharduten mito eta esaundak asko dira Euskal Herri osoan zehar, eta horien aldaerak hainbat gehiago. Eta horietan aro ezberdinetako osagaiak igarri daitezke, bat etorritako aberastasunaren berri. Lan honetan proposatzen dena, hortaz, euskal mitologiaren gako den elementu baten gainean argiren bat piztea da. Zehatzago esanda, Mari eta infernuaren arteko lotura azaltzea da azterketa honen asmoa. Izan ere, euskal kulturen infernuaren orekatzearen inguruko gogoeta izan da ikerketa hau bultzatu duena, eta honako hipotesia adierazi da: Mari, eta bere giroa, aspaldiko infernuaren ezagutzaren giltzarrietako bat da; tradizio zaharreko infernuaren berri ematen du.

Asmoa aurrera eramateko, Mariren inguruko mito bat aukeratu da: harrerengana zerbait galdetzeko –edo ikustera soilik– haitzulora aurrez joan ostean, atzez irteten denarena. Horren lehen bertsioa Barandiaranek eman zigun 1920. urtean, *Erritu bitxi bat* izenpean. Kontakizunean artzain bat agertuko zaigu batzuetan, olagizona besteetan, edo beste ohiko langileren bat, baina denek sartutako eran irten beharko dute Damaren egoitzatik. Euskal antropologia eta etnografiaren inguruko iturriak arakatu eta gero, aurrerago aurkeztuko diren aldaerak aurkitu dira, eta horien azterketa eta erkaketa egingo da, osagai esanguratsuenak identifikatu, jorratu eta dago-

kien testuinguruan ulertzeko. Aldaera guztietan ezinbestekoa den mezu edota formula, *aurrez sartu eta atzeraka irten*, bilakatuko da ikerbide gero, lan honen lehergai izan baita. Formula hori lurpeko beste munduarekin lotuta dagoela erakustea izango da egitekoa.

Hautatutako iruditegiaren irakurketa egiteko, lehenbizi, ahozkotasunaren nondik norakoak aurkeztuko dira, ahozkotasunak formula batzuen transmisioan duen fideltasuna nabarmenduz. Bigarrenez, Mariren inguruko jakintza aurkeztuko da, haren gainean egindako irakurketen sintesi kritikoarekin batera. Hirugarrenez, euskal tradizioan lurpeko beste munduaren aztarna ezagunak eskainiko dira, infernua zigor-toki bihurtu baino lehena-goko ezagutza pentsamenduan orekatua egon dela erakusteko asmoz –izan ere, gure hipotesiaren aurrean galde daiteke ea infernu baten beharra egon ote den–. Horren ostean, mitoaren aldaerak aztertuko dira, motiboak aurkeztu eta horietatik adierazitako formula aztergai bilakatu, Euskal Herritik kanpo agertzen den beste kontakizun batzuekin konparatzeko; greziarrak izango dira, hain zuzen. Azkenik, ondorioak aurkezteaz gain, ikerketak zabalduko dira ikerlerro eta hipotesi berriak adieraziko dira. Urrats horietatik abiatuta eraikiko da testu honen hausnarketa, beraz, euskal mitologiaren ikuspegi berri bat ekartzeko nahiarekin.

## 2. Ahozkotasuna

Kobak, leizeak eta lurrazalean zabalduko beste txoko batzuk, Euskal Herri tradizionalaren kulturaren, lur azpiko izakiei buruzko ahozko literaturaren sorrera izan dira, materia, (g)une eta hutsari dimentsio espiritual gehituzkoan, mitologiak inguruari aberastasun berezia eman baitio: dena bizirik dago. Sargune horien bidez iritsi daitekeen luraren barneko tokirik sakonenak infernua eta hildakoen egoitza dira, tradizio zaharrear. Leku sakratuak dira, jainkoarekin harremanetan jartzen dutelako; izan ere, infernua, luraren erdigunea eta zerurako atea ardatz beraren baitan daude, alde batetik besterako iraganbide. Antzinako jakituria hori hitzaren bidez helarazi du, belaunaldiz belaunaldi, memoria kolektiboak. Beraz, ahozko kontakizuna batzea, oinarritzko mezua jasotzea eta bere esanahia zientifikoki interpretatzea garrantzitsua izango da (Satrustegi, 1987; 1997).

Lekuonatarrei jarraituz (1978; 1982), ahozko literaturaz ari garenean, gogoan izan behar da artegintza herrikoiaren osagai batez dihardugula, eta ez herri xehetik aldendutako eliteaz. Artea denez, inspiratutako zerbait da, gure mundua aberasteko berrikuntza, aurkezten den orotan berezitasuna lortzen duena. Eta, ahozkoa denez, ahotik ahorakoa da, *ahoa loratzen dena*; hots, ahoz esan, belarriz ikasi eta biez gozatzen dena, buruz jaso eta gordezteko, eta bihotzez bizitzeko.

Horregatik, argi ikusten dugu ulermen eta irudimen bereko entzulea eta kontalaria behar dituela ahozko literaturak. Zentzu eta irudi bereko kategoria sistema batek esanahi-mundu bat sortzen du, eta belaunaldi batetik besterako transmisioa egoteko kontalariaren ahoarekin harremana duten belarriak egon behar dute. Horrela bakarrik lor daiteke tradizioa<sup>2</sup>: zaharrak gazteagoari *ekarri* egiten dio bere mundua osatuko duen esangura, hura jaso eta garaira egokitzeke. Zaharra, *betikoa*, berri, *egungoa*, egina.

Eremu horretakoa da mitoa, hitzezko ikurra, kulturaren lehen mailan kokatzen dena, gizatalde baten ideologia dramatikoki adierazten duena. Gizaldietan zehar onartutako balioak eta eredutzat edukitako idealak zaindu eta garaietara egokitzen dituen heinean, mitologiak, mitoen multzoak, talde baten izana egituratzen du. Mitologia mundu-ikuskerara batez osatuta dago, eta, era berean, mundu-ikuskerara bat osatzen du, sinboloarena eta misterioarena. Baina oso ezberdinak izan daitezke mito batek eduki ditzakeen hasiera, geroko erabilera eta bilakaera.

Aldi ezberdinetan, helburu ezberdinetarako erabili badira berbazko sinbolo horiek, zelan jakin edo aztertu daiteke bere muineko mezua? Erantzuna mitoan –edo bere aldaeretan– gordetako esakuntza biribiletan eta bizietan dagoelakoan gaude, denboran zehar estilistika bati emandako indar handiaren erakusle baitira. Mintzaldian nabarmentzen diren formula horiek dira gakoa, erabiliaren erabiliaz landu eta borobildutako bitxiak, artearen

<sup>2</sup> Gogoan izan dezagun «tradizio» (*traditio*) latinezko *traderetik* (ekarri) datorrela. Helburuetako bat partekatzea da, lotura sortzea, bizipena eskainiz. Horregatik, kontatzearen testuinguru guztiak zeresana dauka: gorputzaren adierazpideak, doinuak eta abar. Irudien eta ideien mugimendua azkarra da, hotsen jardunean. Begitandutakoak mundu bat sortzen du, eta entzundakoaren oihartzunak hura esploratzera gonbidatzen du, mundu horrek ezagutza eduki bat daukalako.

aldetik bete-beteak. Haietan mitoaren hasieratik gordetako mezua edota kutsua dago. Altxor horiek ahalbidetzen dute tradizio baten dimentsiorik ugarienera heltzeko giltza.

Zertan oinarritzen dugu baieztapen hura? Ong-ek (1996) adierazi zuenez, ahozkotasanak munduarekiko harremanaren kategoria bereziak erakusten dizkigu; komunitatea eta sakratua denarekiko lotura estua duten kategoriak, hain zuzen. Ahozko literaturak, beraz, paperean izkiriatutako letraren abstrakzio kontzeptualaren eta analitikoaren orde, imajinazio komun bat eskaintzen du. Ahozkotasuna soinuak sortutako irudian oinarritzen da, iradokitako iruditegian.

Izan ere, testuak aberastu edo moztu egiten dira, hau edo bestea hanpazten da, garaian garaiko kultur egoera eta hizkuntz eskakizunei egokitzeko. Nortasuna, sentiberatasuna eta indarra daude jokoan, igorlearen eta jasotzailearen artean, unearen eta saioaren artean. Horregatik esaten dugu ahozkotasuna *herriarena* dela. Ez da egileren izenik gordetzen, sortzaileak ezezagunak dira. Eta egitura zabalen sistematizaziorik ez da ematen. Horren ondorio da aldaera ezberdinak aurkitzea kontakizun baten inguruan (Etxebarria *et al.*, 2009).

Hitzaren eta hizkuntzaren arabera bizi den kulturak ahozko hitzaren dinamismoa eta bizi-indarra ezagutzen ditu. Horregatik, ez da testu finkorik eskatzen, berria baino, jatorra den heinean. Hortaz, gizaldiz gizaldi, talde baten osagarri eta bereizgarri dena igaro egiten da, kontakizunak horrela jasoko du. Hots, iraun egiten du (Kortazar, 1995).

Hori dela eta, proposatzen dena zera da: mitoa nondik kontatzen den adieraztea; hau da, mitoari izaera eta edukia ematen dion ardatza edo erreferentzia puntua zein den azpimarratzea. Aldez aurretik aipatutako formulak, kontakizunetan gordetzen diren egiturak, izango dira eskuarteko egitasmo honen giltzarri, hitz edota azalpen batzuk, nahiz eta ulertu ez, belaunaldiz belaunaldi, gizaldiz gizaldi, igaro egin direlako, *istorioak hala esaten duelako*.

Websterrek berak, kontakizunen iraupenaz aritzerakoan, nabarmendu egin zuen benetako jazoerak edo pasadizoak xehetasun guztiakin transmititu izan direla beti, baserri giroko atal izateagatik. Bigarren mailako elementuak,



apaingarriak, aldaeren eragileak, ez dira inoiz hain garrantzitsutzat hartu, ordea. Euskal baserritarren gainean ikerlariak (1877: 18) esan zuenez:

Oso sendoa da, ere bai, euren atxikimendua kontuzaharren benetakoa testutzat daukatenarekiko. «Ez dut ulertzen, baina istorioak horrela dio»; «*Hala da*»; «Kontakizunak hala dio», behin eta berriz izan zen baieztatua.

Aipagarria da, Barandiaranek berak 1920an Ursuaranen entzundako istorio bat, Tortoren (Tartalo) ingurukoa. Kontakizunaren arabera, anaia bi bere egoitzara sartu ziren. Tortok zaharrenari burrunzti bat sartu, sutan erre eta jan ondoren, honakoa dio istorioak: «Jarraian, lurrean etzan zen eta lo artu zuen. Burdin-olako aspoak bezela zebilen haren bularra, gora ta beera, arnaska zakarrean» (1988: 207). Bere paparra ez zen uhin edo mendi baten antzera mugitzen, ola baten eran baizik. Inondik inora ez beste era batera.

Beraz, testuak daude, mamia badaukagu. Baina, Apalategik (1987) zioenez, testuingurua falta zaigu interpretatzeko. Horregatik, mitoak abiapuntutzat –eta ez helmugatzat– hartuta, esandakoagatik eta esateko eragatik aztertuko dira haiek. Mitoaren aldaera bat-beraren analisia egingo da laster, helburu birekin: pentsamendu tradizionalaren lekuko diren elementu esanguratsuetara heldu, eta sinbolismoaren garrantzia azpimarratu. Izan ere, aipatu berri dugun autoreak esan zuenez, ahozkotasunean, sinbolismoa «ez da kontzeptuala, errealista baino, objektu errealak pentsamenduaren jasotzaile direlako» (1987: 103-105). Horren adibide ditugu Mariren orrazia edo aharia, esate baterako.

Mitologiaren ikerketan argi ikusten da –agian, inon baino hobe–, hitzen eta hizkuntzaren eragina gogoaren gainean, eta gogoaren eta irudimenaren lana hitzen eta hizkuntzaren gainean. Uste, jakituria eta sinesmena hitz edo esaeren bidez zelan eratzen den iker-eremu ikaragarri garrantzitsua da. Eta aspaldiko hitz gako edo formulazio batzuk egun izateak haien testuingurua bilatzera bultzatzen du. Ezin dira elementu horiek arreta gabe geratu. Beraz, ulermen markoak berreskuratzeko saiakera egin beharra daukagu, jakituria, enkriptatuta egon arren, guganaino iritsi delako: «beharrezkoa da aurrerago joatea, idatzita ez dagoenaren analisiak giza gogoari ikuspegi berriak eskaintzen dizkiolako» (Apalategi, 1987: 73).

Datorren atalean, Mariren inguruan –eta euskal mitologiaren inguruan, oro har– eraikitako interpretazioen berri emango da, gure irakurketa eta horren oinarriak egongo diren mitoaren aldaeretara igaro baino lehen.

### 3. Mari eta bere inguruko teoriak

Barandiaranen hitz zuhurrei erreparatuz gero, ohar garrantzitsu bat egin beharra daukagu. Hark, nahiz eta Mari beste batzuen agintari legez agertzea onartu, *jeinu* edota *numen* kategoria eman zion; hau da, ohiko izakietatik harago dagoen dibinitatea. Horregatik, guk *jainkozko* izendapena erabiliko dugu Marirentzat, dibinitatearen nolakotasuna adierazita, jainko-jainkosen maila onartzearekiko neutro agertzearen abantaila duelako. Izan ere, askotan jainkosatzat aurkeztu izan da, eta guk ez diogu izaera hori ukatuko, baina argudio sendoak eman behar dira horretarako. Argibide honen ostean, Mariren gainean egindako teoria nabarmenenak aurkeztuko ditugu, ikerketarekin jarraitu aurretik.

Mari beti da emea, andrazkoa, *Dama*. Paleolitoan eratutako ezaugarri horrek bere oihartzun zuzena eduki zezakeen neolitoan, gizartearen egitura soziopolitikoaren isla delakoan; ama-lerroko kultura baten adierazgarri delakoan, hain zuzen<sup>3</sup>. Ortiz-Osés-en matri(ark)alismoaren inguruko diskurtsoaren hasiera osatu dute horrelako susmoek, honako baieztapena onartuta: Mari antzinaroko jainkosa ahalguztiduna da; Jainkosa Nagusia, alegia. Horren ondorioz, Mariri *Amalur* edota *Amari* izena atxiki zaio, eta Ama Orokorren mailara igo.

#### 3.1. Euskal hondo matriala

Barandiaranek batutako ekoizpen mitologikora joz, eta Neumanni (2009) jarraituz, Ortiz-Osés-ek Ama Nagusiaren arketipoaren gailentzea ikusi

<sup>3</sup> Emazte da maila berriago horretan, *Sugar*, *Sugoi*, *Culebro*, senartzat daukanean. Bikotekide horrek neolitoaren berri ematen du, eta Erdi Aroa eta mairuen berri *Maiu* izendapenarekin; hortik letorke *Mai*a izena Mari berarentzat. Jantzi ederrak, ile hori eta luzea, eta urrezko orrazia eta gaztelua horren argibide dirateke (Huarte, 2005: 37-38; 40-41).

zuen, eta Mari euskal mitologiaren erdigune legez ezarri zuen. Baieztapen horren gainean eraiki zuen autoreak bere teoria guztia: Aita Jainkoa (*Deus pater*) nabarmentzen duten mitologia patriarkalen aurrean, euskal mitologiaren bereizgarri da Mari izeneko Ama Jainkosa, euskaldunen psike matrialaren adierazgarri (2007).

Ikuspegi horretatik aldendu egingo gara, hainbat arazo sortzen dituelako. Hasteko, *Amalur* (ama-lur) eta *Amari* (ama-ari) izendapenek ez dute jasotako tradizioan lekukorik. Lehena, gerraurreko literaturan tokia badu ere, 1968. urteko F. Larruquert-en eta N. Basterretxearen dokumentalak egin zuen ospetsu –gero Ortiz-Osés-ek Mariri behin eta berriz emana–, eta bigarrenaren jatorria ez dugu zehatz ezagutzen<sup>4</sup>. Bestalde, ikerketa arkeologiko-antropologikoek, Mariren mitoaren aztarnak paleolitoan koka daitezkeela iradoki arren, ez dute ezer zehatzik baieztatu, horretarako Mari jainkosatza jo beharko litzatekeelako –eta are gehiago, Jainkosa Nagusizatza<sup>5</sup>. Hori eginez gero, Gimbutasen ekarpenak (1991, 1996) kontuan hartu beharko lirateke, eta Mari eta neolitoaren arteko lotura aztertu. Horren saiakera eta proposamena egin genuen, Mari balizko Jainkosa Nagusiaren aldeetako baten orekatzea dela azpimarratuz<sup>6</sup>. Egun ezagutzen dugun Mari antzinako jainkosaren aurpegietako bat dateke; Lur-amarena<sup>7</sup>, alegia, lurra –gaina eta behea–, bizitza eta heriotza arautzen dituen.

<sup>4</sup> Ikus: Mtz. Lizarduikoa *et al.* (2007: 151). Lan horretan *Amari* izendapena azaldu eta darabilte, ekinean dabilen lurreko energiari iritziz, baina etimologiaren baieztapen horrekin nor hasi zen ez dakigu argi.

<sup>5</sup> Ortiz-Osés-entzat, esaterako, Mari, paleolitoko kobetako balizko jainkosa, neolitoko Jainkosa bilakatu zen, *Amalur*, euskal mitologiaren eta unibertsoaren erdigune: «Hasieran *Amalur* zen (Ama Lur) eta *Amalur* Mari zen (Ama Jainkosa Nagusia) eta Mari gauza guztiak zen» (1985: 85). Bere teoriak azken hamarkadetan egokitu dituen arren, ez dago pisuzko arrazoirik horrelakorik baieztatzeko.

<sup>6</sup> Ikus: Mentxakatorre (2016). Lan horretan Mari eta Pertsefone –bere testuinguruan bat-bera– baliokide sinbolikoak direla ondorioztatzen da, besteak beste.

<sup>7</sup> Beste ohar bat egiteko beharrean gaude; izan ere, euskaraz, izen biz osatutako izen konposatuak bere lehen osagaian dauka oinarria: lehen elementuak bigarrena determinatzen du euskal gramatika.

### 3.2. Anboto, euskal Olinpo

Amaren gainean eraikitako lurtasunari<sup>8</sup> kritika egin zion Aranak (1998, 2000a), bestalde. Izan ere, euskal matriarkalismoa babestu nahi duenak Mari eta figura mitologiko femeninoak nabarmendu, eta euskal hizkuntzan emakumezko elementuak bilatzea besterik ez dauka. Beste irakurketa bat proposatzen du, ordea, emakumetasuna lurrarekin batzeak beti beheko, azpiko, kutsua mantentzen omen duelako bere esanetan: Mari airekoa da, bere eginkizun garrantzitsuenak –meteorologia eta ugalketa– airean egiten dituelako. Gainera, honakoa adierazi zuen: «harpeetan badu egoitza –lurpean– beti zerutik hurbil dago, mendian. Lurpean bizi baina zeruan lan egin» (2000a: 119)<sup>9</sup>. Hori dela eta, Mari, beste inorengandik baino, Zeus jainkoarengandik hurbilago dagoela ondorioztatu zuen Aranak –Zeusek arranoa ikur daukan bezala, Marik, saia–<sup>10</sup>.

### 3.3. Eskakizun feministak

Aranaren esatekoak antropologia feministaren eremuan kokatu daitezkeen arren, badira kategoria horretatik apagarriago diren beste batzuk, Del Valle-k (1985) adierazi zuenetik euskal gizarteko botere eta prestigio sozial handiko maila asko gizonetzkoen esku egoten jarraitzen zutela –ikerketa antropologikoa, esaterako–, nahiz eta kolektibo femeninoa etxeko zereginetara lotzeko ideologia kontserbadorea nagusi izateari utzi.

Izan ere, azken hamarkadetan, euskal gizarteko genero sisteman aldaketa gehiago gertatuagatik ere, euskal matriarkatuaren nozioak indarrean da-

<sup>8</sup> Ortiz-Osés-en eta Eranoseko Zirkuluaren oinarri psikoanalistekin bat datorrena: Ama zegoen hasieran, eta bereganatu egin zuen lurraren poloa.

<sup>9</sup> Antzekoa dio «ama-ortzia» deitzerakoan (1998: 839).

<sup>10</sup> Horrez gain, euskal mitologiaren azterketa batek matriarkalistorik edo emakumearekiko berdintasunik erakusten ez duela azaldu du (2000b). Euskal mitologiako emazteak gizonak baino ahulago agertzen dira orokorrean. Sorgina, adibidez, *sorcière* –andrazkoa–, gaiztoa den bitartean, aztia, *devin* –gizonetza–, ongarria da. Ikus: Caro Baroja (1986: 322-325), eta autore horren beste hainbat lan.

rrai. Ikuspegi horrek emakumearen irudi indartsua darabil, egitura sozialaren euskarri, lurrari eta etxeari (ama-lur eta etxeoandre) lotuta, eta eremu publikoetan zein pribatuetan babesten omen da, emakumearekiko injustiziak mintzagai izatean, euskal nazionalismoaren diskurtsorako iragan edota erro idealen iturri delako. Hala ere, horren alde egiten duten emakumeek «ospea eta ohorea ematen dieten egitura soziala babesten dute, baina espazio publikoko boterera sarrerarik barik, ezta erdigune sinbolikora inklusio barik» (Díez et al., 2010: 122).

Lurraren ikur izatetik eta andrazko izatetik harago bila, Mariren desobediencia eta anibalentzia azpimarratzen ditu ikuspegi feministak, ekin-tza ugari egiteko eta forma anitz hartzeko gaitasuna laudatuz. Mariren mitoa, beraz, gizartearen proposamen dualistaren aurrean eta pertsona izateko hainbat aukera mugatzen duten kultur arauen aurka egiten duen erronka legez interpretatu daiteke; Mari tradizionalistaren parean, Mari urratzailea, alegia, «ezarritako mugak gainditzeko eta bere ahalmenak handitzeko prest dagoena, generoa eta beste ezberdintasun batzuk harreman desegokien oinarri izango ez diren sistema berri bat eratzeko» (Díez et al., 2010: 123).

### 3.4. Ez-indoeuropartasuna

Aurreko hiru azpiataletan Mariren gainean egindako irakurketa askoren artean interesgarrienak bildu dira. Ortiz-Osés-en teoriak bi ezaugarri ditu: mundu erlijioso-sinbolikoaz eta horrek euskal gizartean daukan eraginaz dihardu. Aranaren ekarpena, ordea, mundu erlijioso-sinbolikora mugatzen da, eta Díez eta besterena, gizarterako eraginera. Irakurketa horiek guztiek ematen dituzten erantzunak baino zalantza gehiago sortzen dituzte. Orain aurkeztuko dena, Hartsuagak mitologia konparatuaren eremuan egindakoa da, eta, erabatekoa ez izanagatik ere, bai mundu erlijioso-sinbolikori, bai euskal gizarteari dagokionez, sendo dihardu.

G. Dumézil-en funtzio hirukoitzaren ikuspuntutik abiatuta, Hartsuagak (2004a) adierazi zuen euskal mitologia indoeuropar mitologiaren multzoan sartzen ez dela, honako baieztapenetan oinarrituz:

- Indoeuoparrentzat lurra eta zerua bereizi egiten dira; euskaldunentzat, ordea, ez. Ortzia, lurrazalak eta lurpeak osotasun bat-bera osatzen dute.
- Aurrekoaren ondorioz, euskaldunentzat mundua bat izanik, jainkozkoekiko harremana handiagoa da indoeuoparrentzat baino, toki berean baitaude.
- Arrazoi bi horiek direla eta, euskaldunek ez dute izan indoeuoparrek bezainbesteko ezberdintasunik gizarte mailan, eta historiaren beste ikuspegi bat garatu izan dute. Gainera, indoeuoparren jainkozkoek zerbitzuan (menderakuntzan) oinarritzen dituzte harremanak; euskaldunek elkarlanean (berdintasunean), berriz.

Euskaldunak, ondorioz, munduaren ikuspegi immanentea dauka, indoeuoparrak transzendentea duen bitartean. Heriotza artikulatzeko era ezberdin bi, beraz: euskalduna lurretik lurrera joaten omen da, jaiotzetik heriotzara, eta indoeuoparrak beste ezertan itxaropena dauka. Horregatik, indoeuoparren ortzia jainkoz beteta dagoen bitartean, euskal mitologian Mariren antzektokia baino ez da, lurpetik eragindako fenomeno meteorologikoentzako lekua. Mari, izaki lurterra, eguraldiarekin eta ekonomiarekin (nekazaritzarekin) lotuta dago: neolitotik geratutako eguraldiaren pertsonifikazioa da.

### 3.5. Tradizioko Mari

Laburtuz, lau teoriak Mariren lau irudi eskaintzen dituzte: Amalur Jainkosa Ahalguztiduna (Ortiz-Osés), Zeusen pareko izaki zerutarra (Arana), pertsonaia kontserbadore/urratzailea (Díez et al.) eta eguraldiaren agintaria (Hartsuaga). Azalpen horietatik urrundu egingo gara, eta beste bide bat jorratuko dugu. Horretarako, Mariren inguruan bildutako materialetara joko dugu, interpretaziorik gabe emandako Barandiaranen lanetara, gehienbat.

Antzinako ikuspegi geozentrikoak Mariren alaba biren berri ematen du: Eguzki eta Ilargi. Ahizpa horiek mundua argitzen dute, osotasunean; hau

da, egunez goitik dabilta, bizidunei argia emanez, eta gauaz, behetik, hildakoen egoitzetatik. Ibilbide horrek antzinako lurpeko mundu femeninoaren berri ematen digu: lurpea berotasunaren eta ondo egotearen lekua da, hildakoen arimek aurkitzen dutena kobetan barrena abiatuta, Justizia eta aberastasunaren etxea<sup>11</sup>.

Egoitza lurraren barnean dauka Marik; harpeetatik eta leizeetatik irteten da lurrazalera. Hainbat kobatako ataritan eta alde sakonetan ikusi omen dute, Anboton, Txindokin edota Murumendin, esaterako. Aho horietatik, gainera, ateratzen dira eguraldia zehaztuko duten laino, hodei, harri eta haizeak. Bestalde, egiaren eta ondo egitearen bermatzaile –ezaren eramaile– izateaz gain, Mari uztaren jagole da, eguraldia arautzen baitu. Horregatik, ez da oparotasun basatiarekin erlazionatzen, haziz ereindako eta landutako lurrarekin baino. Nekazaritza eta abeltzaintzaren munduarekin lotzen da, ondorioz, bere metamorfosiek edo irudiek baieztatzen dutenez: sugeak, hegaziak –saiak, batez ere, animalia sakratuak dira euskal munduan– eta aberreak<sup>12</sup>.

Bere izena askotan lekuari lotuta dager –Anbotoko Mari, Muruko Dama, adibidez<sup>13</sup>–. Jatorriari dagokionez, etimologia ezberdinak aurkeztu

<sup>11</sup> Testutxo bat aipatzeko nahia dugu hemen, Etxebarriak (1995: 33.1) Petra Etxebarriarengandik –Orozkoko behe partekoa, 86 urte– 1983. urtean jasoa, «Anbotoko Señorea eta eguzkia»: «Anbotoko Señorea esataudien e kueba batera joaten sala orrastuten. D'orastute gero urten d'egoskiek urteitauela. Kueban oten sala, kuebati urten da gero orrastuten asten sala. Ta orrasturduin egoskiek urteitauela. Ori bai, ori entzunitaukat». Orrazi hori askotan urrezkoa dela azaltzen da, eta beste izaki mitologiko batzuekin hurbiltasuna erakusten du. Ikus: Webster (1877: 47-48), Vinson (1967: I, 7-10), Caro-Baroja, «Las lamias vascas y otros mitos» (1985: 7-53), Casenave-Harigile (1988), Barbier (1998: I, 6. eta 7.; III, 2.), Holmer (1991: 110-113) eta Cerquand (1992: I, 13. eta 14.).

<sup>12</sup> Ikus: «Animalien ezagutza eta begirunea Zuberoako Basabürüan» (Peillen, 1985: 37-56). *Aberre* etxekotuentzat da, eta *pixti*, basatientzat –*animalia*, orokorra–. Behia, behorra, zezena, zaldia, aharia, akerra... abeltzainen betiko lagun dira. Igitaiak eta zuhaitzaren irudiek ere nekazaritza bizitza erakusten dute, eta urreak, horri dagokion aberastasuna. Hots, neolitoan sortutako bizierara igortzen dute. Gogoan izan *kultura* hitza *culteretik* datorrela, lurra landuko duen *goldetik*, hain zuzen.

<sup>13</sup> Ikus: Azkue (1935: XV, 10. eta 12.; 1942: Ipuin laburrak, 203. eta 235.). Ez dezagun ahaztu, bestalde, Mariren jatorrietako bat neskatxa bahitua ere badela. Bahiketaren kontua hurrengo

dira, baina horien gainetik esanahia nabarmendu egiten da: Mari *Dama*, *Andrea*, *Señorea*, da. Izendatze horiek argi uzten omen dute deitua nor den, zalantza gabe. *Sorgina*, *Gaiçtoa*, *Sugarra* irizteak izugarria, ikaragarria, suntsitzailea denarekin lotzen dute Mari<sup>14</sup>.

Horregatik guztiagatik, Marirekin lotutako haziak, heriotza-osteak eta aberastasunak lurpeko mundua iragartzen dute. Eta badira, azken batean, gogoan izan beharreko beste datu bi. Alde batetik, Marirengana erantzun bila joatea, galdera edo kontsulta bat egitera, orakulu-galdetze gisa; eta, bestetik, Marirengana joatean, garai guztietan ezagututako eta bete beharreko araudia: hika mintzatu behar zaio, kobatik sartutako eran irten behar da<sup>15</sup>, eta ez da egonaldian zehar koban jesarri behar.

#### 4. Beste munduaren artikulazioa

Behin Mariren gainean esandako teoria entzutetsuenak azalduta, eta jainkozkoaren inguruan batutako materialetara itzulita –irakurketetatik irakurgaira eginda–, gure ibilbide berria egitekotan gaude. Orain arte argi daukaguna zera da: Mari andrazkoa da, Dama edo antzeko deiturak jasotzen ditu, egiaren aldekoa da, eguraldiarekin lotuta dago eta haitzuloen eremuekin zerikusia dauka. Lurpearen testuingurua nabari da.

Kontua honakoa da: lurpeaz eta hari lotutako jainkozko batez aritzeak azalpen sakonagoa eskatzen du. *Beste mundu* bat identifikatzeak gureak ez diren arau eta hatsarre batzuk egotea eskatzen du. Hots, mundu horrek, beste bat izan dadin, *beste logika* batez gidatutako eremua izan behar du.

---

oharrarekin batera pentsatzea gomendatzen dugu.

<sup>14</sup> Pertsefonerekin kidetasun handiak ditu, gure ustez. Gogora ekarriko ditugu aurreko ikerlari batzuek egindako baieztapen bi: «Mari, batzuetan, Kore edo euskal Proserpinaren antzekoa da» (Caro Baroja, 1986: 294); «Ez da, berez, koba eta leizeetako biztanle, infernukoa baino» (Sorazu, 1980: 287).

<sup>15</sup> «Beraren gana izkutuko gauzen batzuek jakiteko eta etofkizuna azaltzeko lenago joaten ziran entzutea oraindik bada. Lagun asko bere mendekoak zituala; bere bizitokira sartzen zana, sartu bezela irten beaf zuala, bestela Dameak bafuan gelditu-erazitzen zuala» (Barandiaran, 1974: 210).



Lurpe hori antzinako infernu (*inferus*) legez identifikatzea da gure egitekoa, baina, aurretik, Mariren koba barnea beste printzipio batzuk dituen tokitzat daukan azalpenaren berri emango dugu, Baltzaren lanari so, hizkuntzalari-tza eta filosofia uztartuz.

#### 4.1. Kobaren barnea eta kanpoa

K. Bühler eta A. García Calvo hizkuntzalarien formulazioei jarraituz –azkenaren ekarpenei batez ere–, Baltzak (Mtz. Lizarduikoa et al., 2007) dio, hizkuntzari berari adituz gero, mintzamoldea eta mundu-egitura lotzen dituen tirabira argitzen dela. Haren esanetan, hizkuntzak erakusten du ez dagoela mundu bakar bat, mundu bi baino; kontakizun mitikoetako munduak, alegia, elkarren arteko konponbiderik ez dutenak. Mundu bi horien banaketa betierekoa da, hitz egitean mundu horietako batean egiten delako, baina besteaz ari izan. Mundu bi dira, beraz, hizkuntzak erakusten dituenak: esanahirik gabeko mundua, bata; esanahien erlazioen multzoa duen mundua, bestea.

Baltzak argudiatzen duenez, gure ideia, kontzeptu, irudi edo ezagutzak iraganari dagozkie; gogoari, hain zuzen, hitz egitean hizpidera dakarguna oroimenekoa baita. Esanahien mundu horri *gogaldea* deritzo Baltzak, esanahien arteko harreman esanguratsuek gauzatutako mundua. Gainerako mundua kontzeptu eta ideietatik at dagoena da; esanahirik bako mundu horri *elegunea* deritzo autoreak. Bertan, elegunean, hitz egiten dugu, bertan baitaude beste munduak dituen esanahietara heltzeko hizketa puntuak. Hortaz, mundu bi horiek, gogaldea eta elegunea, edozein mintzalditan bereiz daitezke. Alde batetik, nolabaiteko esanahia duten hitz-multzoa, eta, bestetik, hizketa-puntua markatzen duten deiktikoak, berezko esanahirik bakoak<sup>16</sup>. Beste era batera esanda, gogaldez mintzatzen gara hitz egiten dugun elegunean.

<sup>16</sup> Ohar bedi irakurlea deiktikoei –ni, hi, hemen, orain, hau...– une eta gune zehatzetan hartzen dutela esangura; hau da, testuinguruaren arabera jasotzen dute edukia. Enuntziarako eta erreferentziarako abiapuntuak dira, eta adierazpena hartu egiten dute beste alde batetik, esanahia dagoen eremutik, zehazki.

Behin hori guzti hori argituta, Baltzaren esanetan, kultura baten hizkuntzak baliatzen duen gogaldeari errepara diezaiokegu, gizatalde horren gaineko ezagutza izateko, haren jakituria, sinesmen eta usteen berri izateko. Baltzak indoeuroparrei heltzen die, haien mitologiari, eta irudi sinbolikorik nagusia Aita Jainkoa dela adierazten du. *Deus pater* hori egunarekin, aitarekin, jabetzarekin eta boterearekin erlazonatuta dago, eta, Baltzak dioenez, norberaren identitate eta existentziarekin lotuta, arrazoibide bitxi baten bidez: (nor)bera eta bere burua bat eginda. Norbera eduki (esanahi) bidez definitzea –jaun eta jabe egite hori–, ondorioz, gogaldea eta elegunea –denboran zehar– bat eginda lortzen da.

Euskaraz, ordea, ez da horrelakorik gertatzen, Baltzaren esanetan: «ni» eta «neure burua» ondo bereizten dira beti, gogaldearen eta elegunearen arteko muga ondo mantentzen delako. Hitanoak, emakumezotasunaren mugagabetasunaren ordain sinbolikoak, deixi-markek eta aditz sistemak hori erakusten omen dute<sup>17</sup>. Hau da, euskal hizkuntzak, euskaldunen elegunearen eta gogaldearen jatorrizko orekatzailearen sistemak, ez du zerikusirik indoeuroparren hizkuntza sistemekin egiteko horretan –eremu guztietara hedatzen diren inplikazio antropologiko guztiekin–. Gainera, Baltzak dioenez, euskarak erakusten dituen ezaugarri horiek euskal kontakizunetan islatzen dira. Non eta Mariren gainekoetan, haren haitzuloan eutsi beharreko arauetan<sup>18</sup>. Barandiaranek azaldu zuenez, Marirengana jotzen duenak honakoak ditu arauak:

- Hitanoz mintza.
- Bizkarra eman ez<sup>19</sup>.

<sup>17</sup> Horren inguruko azalpen zehatz-mehatzez jabetzeko, ikus: Baltza (2000).

<sup>18</sup> «Bitxia ez ezik, misteriotsua ere bada: are gehiago, hiru betekizun horietan, ezin baztertzuko hiru lege itxuraz bakun horien arteko barne-loturan, euskal mitologiaren eta euskararen beraren Misterio Nagusia datzala diot» (2007: 255). Orrialde berean, laster, aipatutako bi munduei buruzko erreferentzia egiten du autoreak: «Bat-batean begiz jotzen dena zera da: *bi munduz* mintzatzen zaizkigula arauok, elkarren artean oso desberdinak diren bi munduren arteko aldeaz».

<sup>19</sup> Bigarren araua, zehatzago: «Sartu den bezelaxe lezetik irten bear du, ots, barnera begira sartu bada, barnera begira irten bear du bizkarka ibiliz. Baldinkizun au illen baten arima agertzen zaio».

– Lurrean eseri ez, hark hala eskatuta ere.

Baltzak horizontaltasunerako hurbilpentzat jotzen du esertzea, indoeuro-parren denbora, existentzia eta identitatearen ideiekin lotutakoa. Euskalduna eremu horretatik aldendu egiten da, beraz, zutik iraunez. Bestalde, hitanoz aritzean, gauza bi azaltzen dira. Batetik, aurrean dagoena aintzat hartzen dela –ez da gogaldetik ekarritako ezer–. Bestetik, une eta gune horretan aditutakoa –Mari– emakumezkotasuna dela. Baltzaren arabera, arau hori zuzenean dago lotuta azaltzeko geratzen denarekin.

Damaren leize-zulotik sartu bezala irten behar da. Horren arrazoia honakoa da: kobara doanak, sartzear dagoela, kobaren barnea dauka aurrean, iluntasuna eta ezezaguna dena, mugagabea eta esanahirik gabekoa dena. Bere atzekoa, kanpokoa, ordea, ezaguna eta definitutako edukiduna da, mugatua eta gogoan bildua. Baltzak adierazten duenez, kobaren barnea eleguneari dagokio, eta, kanpo-aldea, gogaldeari. Marirekin hitz eginda, kobaren barruan, bizkarra eman eta kanpokoa aurrean eta barnekoa atzean jarrita, munduak irauli egiten dira: barnea gogaldea eta kanpoa elegunea bihurtzen dira biraketarekin. Ondorioz, iluna eta mugagabea zena benetakoa da orain; gogoan gordetakoa, atzean utzitakoa, aurrean dagoen gauzatzat hartzen da. Tradizioak hainbat kontakizunetan gordetako formula, beraz, aurrez sartu eta atzeraka irten, mundu biak ondo bereizteko mezua gordetzen eta adierazten duen jakituriaren altxorra da.

#### 4.2. Infernuaren aztarnak

Mundu bi dira, hortaz, Marik haitzuloan duen egoitza eta kanpoko eremua. Arau ezberdinak dituzten munduak, logika ezberdinei erantzuten dietenak. Iluna, ezezaguna, dena *bestea* da guretzat. Eremu hori lurpekoa, ezezaguna, bestea eta arau bitxiduna legez ezaugarritzeak antzinako infernuan pentsatzera garamatza. Hurrengo atalean, Marirengana bere kobara bisita egitera joan eta aipatutako formula erakusten duten kontakizun baten zen-

---

nak bete bear dunaren antzekoa da; ark ere arimaren bekoz-beko bear du» (Barandiaran, 1972: 344; baita 166; 429).

bait aldaera aztertuko dira, infernuarekin duten lotura ikusteko asmoz, baina, lehendabizi, galdera garrantzitsu bati erantzuna eman behar zaio: ba al dago antzinako infernuaren aztarnarik euskal tradizioan? Eliza kristauak azken mendeetan azpimarratutako zigor lekua ez den lurpeko eremuaren berri gorde izan da? Beste era batera esanda: infernu zaharraren logikaz bideratutako munduaren ezagutzarik egon da euskal pentsamenduan? Beharrian egon al da horretarako?

Egia esan, edozein kulturak polo biak –lurterra eta zeruterra– era berezi batean orekatzen ditu; horrek, hain zuzen, egiten du mundu ikuspegi bat kultura izatea. Baina gizakia kulturala denetik gaur egunera, orekatze prozesu asko egon dira. Horregatik, hainbat elementu ordezkatu egiten dira, eta, beste batzuk, zenbait mailatan estali. Euskal kulturaren infernu zahar baten lekukotasunak egon badaude, eta horietatik bi adierazpen labur emango ditugu –*Lacubegi* eta *Orcus* hitzetatik abiatuta–, goragoko galderari erantzuna emateko.

Lehenarekin hasteko, Uxue aldera egin beharra dago, IV. mendeko oparri bateko boto zaharren idatzira: *Coelii Tesphoros et Festa et Telesinus, Lacubegi. Ex voto*. Lacubegiren izenaren inguruan Huarteri (1997) jarraituko diogu, aurreko ekarpenak<sup>20</sup> gogoan izanda, mitologiarekin zerikusi handia daukan azken azalpena berak eman duelako. Haren esanetan, *lacus* infernuari irizteko erabili da zenbaitetan kristautasunean. Eskaintza kantua, «*In offertorium*», dakar adituak harira:

*Domine, Iesu Christe, Rex gloriae, libera animas omnium fidelium defunctorum de poenis inferni et de profundo lacu.*

*Libera eas de ore leonis, ne absorbeat eas tartarus, ne cadant in obscurum; sed signifer sanctus Michael repraesentet eas in lucem sanctam, quam olim Abrahamae promisisti et semini eius. Amen.*

<sup>20</sup> Latinezko *lacus* «laku, aska, aintzira, zingira, urbatu, urgeldi, bihitegi» da. Horregatik, *Lacubegirentzat* «Lakuaren uhina, zaparrada» (Blazquez, Elorza) edo «Lacozaina» (Iraburu) esanahiak proposatu dira. Urangaren aburuz, ordea, Uxue ez omen da ustezko ur jainkozko horrentzat lur egokia, baina Salaberrik inguru hartan egin beharreko drainadurak mahairatu zituen. Ikus: Huarteri (1997).

Salbazioaren mezuan oinarritutako erlijioak antzinaroko hitzei eta beste munduaren geografiari zehaztasun gehiago eman omen zien: goian, zerua, garbientzat; behean, infernua, hil ostean zerua merezi ez dutenentzat. Eta infernua leku ezberdinak: tartarora, zigor tokia; amildegia, leizea, galdutakoena; linboa, bataio-bakoen egoitza; eta, bereziki, aberastasunaren eta oparotasunaren lekua<sup>21</sup>. Huartek gogorarazten duenez, Mediterraneo antzinako kulturetan, infernurako sarbideetako bat azpiko urak ziren; Akeronte, Kozito, Flegetonte, Lete eta Estigia ibaiak, hain zuzen. Autoreak (1997: 363) era horretako urekin lotzen du *Lacubegi*: «lakuaren iturria», «beheko lakuaren iturria», «beheko munduaren iturri edo begia»<sup>22</sup>.

Bestalde, bada hiztegi hurbilean infernuaren berri ematen digun hitzen bat: *ortzilarre*, *ortzirale*. Gaur egun ostiraltzat daukagun horren gainean, zera argitzen du Lafittek: «Erromanoek *Orcus* hilen jainkotzat zaukaten eta gure «*feria sexta*» hilen eguntzat, latinez *orcina dies* edo *orcilaris dies*, guk «Purgatorietako arimen eguna» diogun bezala» (1973: 128). Lurpeko eta hildakoen eremua ezagutzen zen, beraz, euskal pentsamenduan, testura ekarritako adibideek erakusten dutenez.

<sup>21</sup> Virgiliok Danteri honakoa esaten dio (Alighieri, 1992: *Inf.* IV, 33-39): «Ezer baino lehen, ona da jakin dezazun / bekatuak ez zutela inoiz egin: eta edukita / irabaziak, bataio barik ez zaizkie nahikoak, / zure fedearen ate dena, aditzen dudanez. / Kristautasuna izan baino lehenago izan zenak / Jauna ez du behar bezala amatu: / eta esaten dizkizudan horietan ni neu ere banaiz». Antzinasuneko poeta, filosofo eta agintari apartak dakusa Dantek, infernuko lehen mailan, egoitza garai, zabal eta argitsu batean, eremu berdean. Hildakoen leku oparo hori Plutoren –Hadesekin, eta bere emazte Pertsefonerekin, kidetzen dena– eremuan zegoen antzinasunean –Euskal Herrian ere, lurpean (Barandiaran, 1973: 12)–. Hala, euskal mitoren batean ere, bataiatutakoak ez dira Marirentzat eta lurpeko leku aberatsetarako izango, zerurako baizik: «nee umeek zerurako, ta ni oaiñ Muruako» (Barandiaran, 1972: 161).

<sup>22</sup> Antzinasuneko infernura sartzeko beste era bat haitzuloak ziren, eta haietan egindako inkubazioa, esna eta ametsaren arteko gogoia lotuz. Jakituria lortzeko egiten omen ziren bidaiak horiek (Kingsley, 2010). Bide batez, gogoan izan dezagun aurreko oin-oharrean *Jainkotiar komediako* aipatutako pasarte horretan, Dante infernura sartu berri dagoela, bere lo sakonetik biziki atera eta gero. Loan Akerontetik eramana izan da.

## 5. Itzalen mundua

Euskal mitologiak argibide gutxi batzuk ematen ditu lurpearen inguruan: hildakoak, gaueko itzal bihurtuta, kobetan barrena doaz bertara. Bestalde, bada datu interesgarri bat: hildakoren bat (*izugarri, arimaerratu*) bizidunen bati agertuz gero aurrez izan behar du beti, atzea eman gabe<sup>23</sup>; Marirekin egin beharreko gauza bera, alegia. Errespetu kontu soiltzat hartu izan da, oro har<sup>24</sup>; bestalde, Baltzaren ustez, ikusitako eran, bi mundu eta logika ez nahasteko arrazoia da hori. Atal honetan, azalpen bi horiek aberastu egingo ditugu, greziar jatorriko lan ezberdinetara joz, eta Harpur-en (2010) ikuspegi filosofikoak lagundurik.

Hasteko, orakuluaren motiboa, infernuarekin duen harremanean, eka-rriko dugu testuaren erroetara. Lurpeko izaki eta jainkozkoiei, jakituria eske, kontsultak egiten zitzaizkien, eta horren adibide esanguratsu bi emango ditugu: Odiseoren eskutik lehena, Parmenidesen eskutik bigarrena. Ondoren, infernuan atzera ez begiratzearen arauaren berri ematen duten bi kontakizun ezagunetara joko dugu: Orfeorena eta Pertseorena.

### 5.1. Jakituria eske

Odiseoren ibilaldi luzearen berri ematen digun lana *Odisea* da. Bertan, Troiatik Ithakarako bidean, bada pasarte bat oso interesgarria dena dagokigun gairako: XI. kantua. Zirtzeren egoitzatik joateko garaia heldzerakoan, Odiseo eta bere gizonak Hadesen eta Pertsefoneren erreinura joan beharra daukate, Tiresias aztiaren zori eske. Egiteko izugarri horren aurrean, haien gidari nor izango den galdetu zion Odiseok Zirtzeri. Haren erantzuna eta geroko jazoerak dira nabarmentzekoak.

<sup>23</sup> Formula bat dago hori errazteko: «Zazpi eztauz ez adi alde, eta aufeti» (Barandiaran, 1973: 53).

<sup>24</sup> Erromako printzerri garaiko enperadoreei, edota Ekialdekoei, bizkarrik ez ematea ez zen errespetu kontu hutsagatik, jainkozkoatasuna aitortzen zitzaielako baizik. Ikus: Solís (2014). Elizkideek ere, bizkarra eman baino lehen, agur egin behar diote Jaunari.

Odiseok ez du behar inolako gidaririk beste mundura joateko. Pertsefoneri kontsokratutako basoetara heltzean, hilobi bat zabaldu eta bertan eskaintza oparo bat egin zuen hildakoentzat eta infernuko jainko-jainkosentzat, libazio eta sakrifizio bidez<sup>25</sup>. Hori eginda, Hadesek eta Pertsefonek baimenduta, hainbat hildako agertu zitzaizkion Odiseori, eta horrek bere aitzoaz eusten zien, odoltzara batzuei baino heltzen ez utziz.

Interesgarria zaigu Odiseoren infernurako bidaia. Bizirik heltzen da, edo, hobe esanda, infernua beragana deitu egiten du. Horregatik odolaren garrantzia: hildakoek edan egin behar dute berarekin, bere eremuan, egoteko. Tiresiasak argitzen duenez: «hildakoen artetik odolera heltzen utzitakoak / bere egiak esango dizkizu, eta uzten diozunak / bizkarra emango dizu, eta bere bidean atzera egingo du» (XI, 147-149). Zera pentsatzera darama: bizidunak infernuan hangoen moduan egon ezin diren arrazoiaगतिक, hildakoak, itzalak baino ez direnak, ezin dira bizidunen eremuan bizidunen erara egon. Mundu ezberdinetakoak izateak logika ezberdinen menpe egotea suposatzen du, eta beste eremura joanez gero, horko arauetara moldatu beharra. Hori dela eta, hildakoak bizitzarekin lotu egin behar dira, odolaren bidez.

Beste mundura doa Odiseo, beraz, ezagutza bila. Eta zein tokitara bada-kigu zehatz: Ereborra, *iluntasunera*, Hadeseko lehen eremura, hil eta jarraian heldutakora. Antzinaroko literaturan, bestalde, besteren bat ere infernue-tara jaitsi zen, eta bertan jakintsu bilakatu. Parmenides, bere poeman azaldu zuenez, beste mundura heldu zen, baina lehen eremua baino barrurago: Gauaren eta Egunaren ateen osteko tokira heldu zen, Tartaroko amiltze handiaren eta Gauaren egoitzaren ondora. Parmenidesen bidaiatik nabarmentzekoa duguna hauxe da: infernuan, Jainkosak<sup>26</sup> onartu egin zuen, eta logika erakutsi zion; izate edo ez izatearen bideak, alegia.

<sup>25</sup> Zitzek guretzat interesgarria den datu bat ematen dio Odiseori (X, 526-530) bere egoitza utzi orduko, begiradaren norabideari dagokionez: «Hildakoen nazio onesgarria erreguz ondo baretua izan ostean, / bildots bat sakrifika ezazu, eta ardia berarekin; beltzak biak, / bekokia Ereborantz jarritz; kendu zuk aurpegia, / begirada ibaiaren uretan, eta, orduan, jendetza / zugana helduko da bizigabekoen artetik».

<sup>26</sup> Kingsleyk (2010) Pertsefone legez identifikatzen du.

Odiseo eta Parmenidesen adibideetatik ondorioztatzen dugu itzalen mundura ezin dela edozein bizidun joan, bizitza erronkatzat hartzen duena baino –bihotza gazte duena<sup>27</sup>. Eta infernua mundu honetarako jakituria lortzeko eremua dela, lurpea gidatzen duten arauak beste hatsarre batzuei erantzuten dieten heinean. Datozen lerroetan, logika eta arau horren inguruan eraturako antzinatasuneko beste bi adibide azalduko ditugu, Orfeori eta Pertseori helduz.

## 5.2. Atzera so ez

Orfeo, Apoloren semea, musikaren maisua zen, poesiaren printzea, gizaki hilkorrari hainbat erritu irakatsi ziona. Euridizez maiteminduta, suge batetik ausiki egin ostean hil zenean, haren bila joan zen infernura. Hades eta Pertsefone bereganatzeko gai izan zen kantuz eta liraz, eta Euridize bizidunen eremura itzultzeko eskatu zien. Hunkiturik, eskaria baimendu zuten, eta Orfeok «hura [Euridize] onartu zuen Avernoko ibarretatik irten arte begiak atzera ez botatzearen baldintzarekin batera; edo oparia baliogabe geratu behar zuen» (*Met.* X, 51-53). Baina goiko lurretatik gertu, indar barik geratzeko beldurrez eta hura ikusteko gogotsu, maiteak begiak atzera bota zituen, eta Euridize bigarren aldiz jausi zen itzalen eremura<sup>28</sup>.

Infernuko legea ageri zaigu berriro, aurrera eta atzera norabideak ondo bereizten dituenak. Horregatik, ezin esanguratsua da, behin Orfeo hilda, hildakoari dagokion eremuan egonda, Euridizeri aurrez aurre begiratu ahal izatea (*Met.* XI, 62-67):

Itzala lurpean sartzen da eta aurretik ikusitako toki guztiak ezagutzen ditu, eta, errukitsuen landa artetiko bilaketan, Euridize aurkitzen du eta beso gogotsuz besarkatzen du. Hemen dabilta batzuetan batera: beste batzuetan berak jarraitzen dio aurretik doanari, beste

<sup>27</sup> Hala, Jainkosak *kouros* –Κοῦρ’– deritzo Parmenidesi (I, 24).

<sup>28</sup> Virgilioren *Georgican* (IV, 487) Pertsefonek agintzen duen legea Euridize bere ostetik joatea da.



batzuetan bera doa aurretik, eta, ziur orain, Euridizeri begiratzer a itzultzen da Orfeo.

Eta begiradaren garrantziaz ere datorkigu azken adibidea, Pertseorena. Heroia, Medusaren burua ekartzeko hitzemand a, bere bila doa, akabatzeko asmoz. Erronka arriskutsua, haien zuzeneko soak harri bilakatu egiten baitu. Gorgonak lotan daudela, Ovidiok aurreko iturrietan aurkitzen ez dugun datu bat ematen digu Pertseo Atenak gidatutako kolpea ematera doanean. Aurrekoek Medusari aurrez aurre begiratu zioten; «berak, ordea, ezkerreko besoan zeraman brontzezko ezkutuan islatuta ikusi zuen Medusaren irudi harrigarria» (*Met.* IV, 783-785). Medusari atzeraka eginez doakio Pertseo, hortaz, ezkutuko isla gidari hartuz, aurrez aurre begiratzea ekidinez; Orfeok egindakoaren aurkakoa, hain zuzen.

Harpur-ek (2010) C. G. Jungen kontziente/inkontziente, ego/arima, eremuak gogoan izanda, azalpen ikaragarri esanguratsua ematen dio Pertseoren mitoari. Bizidunen mundua, bizidunentzat argia dena –Baltzaren gogaldea–, Jungen kontzientziarekin kidetzen du Harpur-ek, eta hildakoen eta itzalen mundua, bizidunentzat iluna dena –Baltzaren elegunea–, inkontzientearekin. Hori dela eta, infernua ezin da alde kontzienteak eskatzen duen jarrera eduki –hortan egiten du akats Orfeok–, arima edo alde inkontzientearen jokabidea baizik. Pertseo, ondorioz, garaile irteten da, itzalen munduan, Medusa, infernuko izaki, ez duelako gure munduko gauza legez aintzat hartzen. Itzal edo irudi xume izan beharrekoari irudiaren bidez hiltzen dio.

Zertan datza Pertseoren garaipena, orduan? Mundu biak, gurea eta bestea, bizidunena eta infernua, eta haien logika eta arauak ezagutzean, eta horiek ez nahastean. Harpur-ek azaltzen duenez, mundu biak polo ezberdin bi legez har daitezke, eta batean literala dena, bestean, ez. Horregatik, beste munduan zerbait aurrez aurre izateak bizidunen munduan izango lukeen trinkotasuna onartzea suposatzen du; Medusari dagokionez, infernuko izaki den heinean<sup>29</sup>, munstro suntsitzaile bat.

<sup>29</sup> Homero (1986: XI, 634-635).

Beste mundua inkontzientearen eta arimaren izaerarekin erkatzeak oinarritzko ideia bat dauka Harpur-en pentsamenduan: alderantzizkotasuna. Bizidunen eta hildakoen munduen arteko etenaldia adierazten du, jarraitutasuna galdu barik; mundu bien arteko lotura indarrean dago. Elkarrekiko harremana daukate: batzuetan beste mundua honen osagarritzat jotzen da; beste batzuetan, bestalde, honen bihurkaria; eta, beste batzuetan, azkenik, honen isla-irudi. Dena den, Harpur-ek argitzen duenez, beste mundua ez da honen aurkakoa, beste aldea edo ikuspegia baizik.

Hurrengo atalera jo orduko, honetan azaldutakoa adieraziko dugu, labur: Odiseo eta Parmenides infernura bidaiatzeko gai dira, erritu bidez. Lehenak, sakrifizio batez, infernua erakarri egiten du; bigarrena, inkubazio bidez, loan garraiatua da (Danteren antzera). Orfeok eta Pertseok, bestalde, infernura lanen bat egitera joateko ausardia daukate. Bertako arauak ezagutzen eta onartzen dituzte; arrakasta bigarrenak lortuko du.

## 6. Mitoaren aldaerak

Greziar tradiziotik nabarmendutako adibideek erakusten dutenez, infernuak bere logika dauka<sup>30</sup>, eta bertan bere printzipioei jarraitu behar zaie. Orain, ikusitakoa euskal mitologia aztertzeke izango da gogoan, euskal tradizioan Marik izan duen esanahiaren inguruan azalpen bat emateko gero. Lanaren helburu hori betetzeko, Mari bere kobako egoitzara zeozer eske doanaren kontakizun batzuk izango ditugu aztergai.

Gure asmoa, lanaren hipotesiari erantzuteko, ez da kontakizunen jatorriaz aritzea<sup>31</sup>; mezu mitologikoak edota mami ideologikoak azalaraztea bai,

<sup>30</sup> Gogoan izan dezagun, beste adibide esanguratsu legez, Sofokles (1981) poetaren *Antigona* tragedia. Antigonak, hiriko legediaren aurka, bere neben arteko borrokan hilda irtendakoa lurperatu nahi du, lurpeko jainko-jainkosen arauak eskatzen duenez.

<sup>31</sup> Jatorriaren inguruan ezer ez dakigu, baina kobak eremu garrantzitsu izandako garai batean daudeke errotuak; Paleolitotik hasita, alegia. Gainera, Barandiaranek batutako material etnografiko eta mitologikoari adituz gero, berrogei kobazulotik gora dira Mariren bizileku Euskal Herrian zehar (1972: 338-339).

ordea, baina haien osteko euskaldunaren eta horren munduaren erabateko irudia emateko nahiak itsutu gabe. *Erritu bitxi bat* izenaz ageri zaigu, euskal mitologiaren bilduman, gure gaia daukan bildutako lehen kontakizuna, Barandiaranek 1920an jaso. Orditik mito edo kontakizun beraren aldaera ezberdinak, edo antzeko motiboak dituzten kontakizunak, bildu egin dituzte XX. mendean zehar hainbat ikerlarik. Datozen lerroetan, aurkitutako aldaera guztien erkaketa bat egingo dugu<sup>32</sup>, motibo –ahozko literaturako mezu unitate– nagusien aurrean duten erantzunari erreparatuz, etorkizuneko ikerlerro berriak zabaltzeko asmoz, eta lan honen muina den formula nabarmenduz. Interesgarri zaizkigun motiboak, testuko mezu unitateak, honakoak dira:

- Orakulua eskatu/kontsulta egin
- Kristautasunaren eta paganismoaren arteko erlazioa
- Formula/erritua indarrean egon
- Erritua ez betetzeak dakarren zigorraren aipamena
- Elkarrizketa hitanoz/zuka

Lan honen ikerlerroa definitzen duen motiboak, aurrez sartu eta atzeraka irteteak, bere balizko parekoa dauka Thompson-en (1955-58) zerrendan: K534.3. *Heroia atzeraka dabil gezurrezko bidea uzteko*. Lanaren gaia Mariren egoitzak infernuarekin duen lotura aztertzea denez, aipatutako motibo horrek honako bigarren honekin duen lotura azaltzea izango da egitekoa: A671.0.3. *Leizerako sarrera infernurako ate legez*.

### 6.1. Kontakizunen transmisioa

Datozen lerroetan *Erritu bitxi bat* eta bere aldaerak aztertuko ditugu. Horretarako, ipuin-azterketa bi –Apalategi (1987) eta Etxebarria (1992)–

---

<sup>32</sup> Testuak aipatzerakoan jatorriz jasotako edota argitaratutako eran emango dira; hau da, haren grafiari eutsiko zaio, emandako ahozkotasanari bere esanahia aitortzeko. Testu horien biltzaileek egindako oharrek ere tratamendu bera jasoko dute.

konsultatu dira eredu gisa, eta Hartsuagaren (2004b) jentilen akaberen gaineko mito-aldaeren azterketa. Azken lan horretako teorizazio metodologikoan azaldutako kontakizunen transmisioaren gakoak ekarriko ditugu testura, labur, ahozko kontakizunak gure aztergai direlako, eta horiek, ahozkoak izateagatik, aldakortasunaren menpe daudelako, idatziz edo digitalki ezarri ezik. Nahiz eta gure helburua ez den mito baten formarik jatorrizkoena eta bere ibilbidea irudikatzea, baliagarri izango zaigu oinarri batzuk finko izateko.

